

Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundeen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko

Juan José Álvarez Rubio
José Luis Iriarte Ángel
Cayetana Santaolalla Montoya
Unai Belintxon Martín



GLOBERNANCE
GOBERNANTZA DEMOKRATIKOAREN INSTITUTUA
INSTITUTO DE GOBERNANZA DEMOCRATICA

Gobernantza Demokratikoaren Institutua

2019ko azaroa

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

*Txosten hau, nahi gabeko errore edo omisiorik ezean,
planteatutako gaien buruzko gure iritziaren azalpena da.
(Egileak)*

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| Laburpen exekutiboa. | 7 |
| I. Aurrekariak / Testuingurua. | 11 |
| 1.1. Sarrera. | 11 |
| 1.2. Txostenaren xede diren salgaiak eta teknologiak. | 12 |
| II. Arma-merkataritzaren eta interes orokorreko portuen arloko eskumen-erregulazioa. | 13 |
| 2.1. Garraioaren eta interes orokorreko portuen arloko eskumena. | 13 |
| 2.2. Kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren arloko eskumena. | 15 |
| III. Armen merkataritza, erabilera bikoitzeko teknologia, esportazioa eta gardentasun- eta kontrol-neurriak arautzen dituen esparru juridikoa. dauden arau multzoen (nazioartekoa, Europakoa eta Estatukoa) azterketa. | 18 |
| 3.1. Arau multzoak. | 18 |
| 3.2. Nazioarteko arau multzoa. | 21 |
| 3.3. Europako arau multzoa. | 27 |
| 3.4. Estatuko arau multzoa. | 34 |
| 3.5. Giza eskubideak Europar Batasunean. Arauketa eta mekanismoak. | 38 |
| IV. Arazo zehatz bat: Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara esportatzea. | 40 |
| 4.1. Nazioarteko zehapenak. Alderdi orokorrak. | 40 |
| 4.2. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) zehapenak. | 40 |
| 4.3. Europar Batasunaren zehapenak. | 41 |
| V. JIMDDU, haren arauketa eta jardun administratiboa. | 48 |
| 5.1. Kanpo merkataritzako operadoreen erregistro berezia eta bertako inskripzioa. Kontrol-agiriak, eta baimenak emateko eskumena. | 48 |
| 5.2. JIMDDU (Erabilera bikoitzeko materialen kanpo merkataritza arautzeko ministerioarteko batzordea). | 50 |
| VI. Ohar bat Europar Batasuneko aduana-prozedurari buruz. | 53 |
| 6.1. Merkataritza askea eta aduana zuzenbidea. 952/2013 (EB) erregelamendua (batasunaren aduana kodea). | 53 |
| 6.2. Muga-zergen TARIC kodea eta muga-zergen nomenklatura. Armak, defentsarako materialak eta erabilera bikoitzeko teknologiak edo/eta produktuak. ezkutuko salmentak ote? | 54 |

| | |
|---|----|
| VII. EAEko erakundeen egitekoa: sektoreko EAEko enpresa-operadoreei kontrol-mekanismoak ezartzea, gardentasuna eta erantzukizuna areagotzeko. _____ | 57 |
| 7.1. Egungo egoeraren testuingurua. gizarte-erantzukizun korporatiboa eta gardentasuna: eae-ko arma-sektorearen jokabide-, etika- edo/ eta gardentasun-kodeei buruzko aipamena. _____ | 57 |
| 7.2. EAEko armamentu-sektorerako jokabideari buruzko esparru kodea eta giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatokia edo/eta ebaluazio batzordea. _____ | 68 |
| 7.3. Sektorean interesak dituzten EAEko enpresentzako kenkari fiskalei aplikatu beharreko esparru juridikoaren azterketa. _____ | 74 |
| VIII. Ondorioak. _____ | 84 |

Laburpen exekutiboa

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak txosten bat eskatu zion ikerketa-lantaldeari, aztergai izango zituena EAEko arma-merkataritzari eta -esportazioari aplikatu beharreko esparru juridikoa, giza eskubideen errespetuarekin lotuta, eta EAEko erakundeek beren esku-men-eremuaren barruan gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta ordenamendu juridiko indarduna betetzeko izan lezaketen eginkizuna. Zehazki, honako gai hauek jorratu eta hausnartu behar ziren azterlan horretan: 1) Armen merkataritza, armen esportazioa, eta gardentasun- eta kontrol-neurriak giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa ez urratzeko eta arma konbentzionalen desbideratzea era esponentzialean murrizteko; 2) Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara armak esportatzea; 3) EAEko erakundeek kontrol-mekanismoak ezartzea EAEko enpresa-operadoreen gain, gardentasun handiagoa lortzeko eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloan sakontzeko.

Bada, egindako azterketa juridiko-teknikotik atera diren ONDORIO nagusiak honako hauek dira:

•Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta EAEko erakundeek itsas garraioaren eta interes orokorreko portuen arloetan duten eskumena

Aplikatu beharreko arau juridikoak –barnekoak, Europakoak zein nazioartekoak– kontuan izanik, ondorioztatu behar da ez Eusko Jaurlaritzak, ez Eusko Legebiltzarrak, ez EAEko erakundeek ez dutela eskumenik merkataritzako ontzidiaren eta interes orokorreko portuen gain, Espainiako Konstituzioak (148.1.6 eta 149.1.20 artikulua) eta Autonomia Estatutuak (10.32 eta 12.8 artikulua) osatzen duten eskumen-sistemaren arabera.

•Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta EAEko erakundeek kanpo-merkataritzaren, armen eta armamentu-industriaren arloetan duten eskumena

Kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren gaineko eskumena dela-eta, egindako azterketaren ildotik, azpimarratu beharra dago eskumen hori ukatu egiten zaiela autonomia-erkidegoei. Espainiako Konstituzioaren 149.1.3, 149.1.10; 149.1.13 eta 149.1.26 artikuluen irakurketa konbinatuak erakusten du nola Estatuak argi eta garbi, haietan aipatzen diren eskumenak eskusibotzat jotzean, eskumenok beren gain hartzea eragozten dien autonomia-erkidegoei.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 346. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu kideek eskumen eskusiboa dutela armen, munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpenaren edo/eta merkaturatzearen arloan, egia ere bada EBFTren beraren 215. artikuluan ezarritakoaren itzalpean aurreikusten dela nola EBK murrizketa-neurriak har ditzakeen, Batasuneko estatu kideei debekatuz arma konbentzionalak, horien munizioa eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia saltzea edo/eta laguntza teknikoak edo/eta finantzariora eskaintzea hirugarren herrialdeei, hirugarren estatu hori zuzenbide humanitarioa urratzen ari bada.

•Armen eta erabilera bikoitzeko teknologiaren merkataritza eta esportazioa arautzen dituen esparru juridikoari buruz, ohartarazi behar da badirela hainbat arau multzo errealitate juridikoan

1) Nazioarteko arau multzoari dagokionez, Nazio Batuen Gutuna aztertu eta gero, ondorio gisa esan daiteke Nazio Batuen organoek gutun horretan eskaintzen zaizkien mekanismoak baliu ditzaketela, hirugarren herrialde batera arma-esportazio jakin bat egiteak nazioarteko segurtasun-politika, segurtasuna bera edota bakearen mantentzea eragotz dezakeen kasuetan. Armen Merkataritzari buruzko Tratatuari dagokionez, azpimarratu behar da AMT nazioarteko akordio bat dela, bertan parte hartzen duten estatuak lotesten dituela eta arma konbentzionalen eta horien munizioaren merkataritza, joan-etorriak, garraio-aldaketak eta artekaritza erregulatzeko arauak ezartzen dituela. Nazioarteko testuak armen transferentziari buruzko betebeharrak zehatz batzuk ezartzen dizkie estatu parte-hartzaileei: armen transferentziak kontrolatzeko sistema bat ezarri eta mantentzea; zenbait arma-transferentzia debekatzea eta zenbait arma-esportazio ez baimentzea; armen inportazioak arautzea; joan-etorriak eta garraio-aldaketak arautzea; armen artekaritza arautzea; bete-hartze-mekanismoak ezarri eta mantentzea; beste estatu parte-hartzaile batzuekin informazioa trukatea; eta arma-transferentzien erregistroa antolatzea.

AMT aginduzkoa izateari dagokionez, aitortu beharra dago hainbat eta hainbat manutan estatuen esku uzten duela, neurri batean, araua errespetarazteko eta beteazteko ardura. Horrek bide ematen digu

pentsatzeko ez ote gauden berez soft law-ko arau baten aurrean, nazioarteko legegilearen ahaleginak gorabehera.

2) Europar Batasunak teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko taxutu duen sistemari dagokionez, horren oinarria da Kontseiluaren 2008ko abenduaren 8ko 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua. Jarrera bateratuak irizpide sail bat arautzen eta egituratzen du. EBko estatu kideek aintzat hartu behar dituzte irizpideok, EBren Zerrenda Militar Bateratuan jasotako gaiak esportatzeko aurkez daitezkeen lizentzia-eskaeretako bakoitza ebaluatzeko garaian.

Jarrera bateratuak aginduzkotasuna eta haztapena/subjektibotasuna konbinatzen ditu bere irizpide gehienetan. Estatu kideek arau nazional zorrotzago eta bermezaleagoak taxutu eta aplikatu ditzakete beren esportazioetarako, bi material motei dagokienez (armak edo/eta defentsarako materiala, eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia). Europako sisteman irizpen edo interpretaziorako halako tarte bat ageri da, eta horrek aplikazio aldakorra ahalbidetzen die estatuei, nolabaiteko zorrotzasun falta duena.

Azkenik, gogoan izan behar da EBko estatu kideen atzerri- eta segurtasun-politika erkidea gobernuen arteko kontua dela nabarmenki, eta izaera horren ondorioz itzuri egiten diola Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren kontrol judizialari. Izan ere, arau orokor gisa, atzerri- eta -segurtasun politika erkidearen (ASPE) esparruan onartzen diren legegintza eta araugintzako egintzak ez dira EBko jurisdikzio-organo gorenaren kontrol judizialaren pean jartzen. Hori ez da oztopo aipatutako arau-esparru hori nazioarteko zuzenbide publikoko arauen pean egoteko eta nazioarteko jurisdikzio-organo baten kontrol juridikoaren xede izateko.

428/2009 Erregelamenduari dagokionez, zuzenean aplikatzeko araua da, eta helburutzat du araubide erkide eraginkorra aplikatzea erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko, EBko estatuen nazioarteko erantzukizunak eta konpromisoak betetze aldera.

Egia da, hala ere, arau horrek Teknologia eta tresneria militarren esportaziorako Jarrera Bateratuaren ildoari jarraitzen diola eta estatu kideei egozten dizkiela erabilera bikoitzeko produktuak esportatzeko eskaerari buruz erabakia hartzeko eta ondorioz baimena edo lizentzia eman edo ukatzeko eskumena eta erantzukizuna. Hori bai, Europako arauak erabilera bikoitzeko produktuen eta horien xedeen zerrenda erkideak egotearen mende jarri nahi du sistemaren eraginkortasuna.

Azken batean, berriro ikusten dugu Europako arau batek ez duela aginduzko edo nahitaezko arauaren mailarik, bere zatirik handienean, eta gaiaren gaineko eskumen osoa egozten zaiela estatu kideei; are gehiago, haztapan-faktore eta araugintzako kontzeptu juridiko zehaztugabeak eransten dira, zenbaitetan arau zehatz baten aginduzkotasuna itxuraz eztitu edo leundu egiten dutenak.

Armen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen esportazioaren kontrol eraginkorrak sustatzeari dagokionez, esan beharra dago EBk eta haren erakundeek gaur egun nazio elkarte aurreratuena osatzen dutela, armagabetzeko, armak ez ugaritzeko eta armamentua kontrolatzeko alde anitzeko tratatuak eta sistemak orokortzearen, osorik aplikatzearen eta betetzearen aldeko konpromiso sendoena daukana.

AMTren eta jarrera bateratuaren aplikazio konbinatuak nazioarteko esparru juridiko funtsezkoa sortzen du, egin beharreko esportazioen arriskuen ebaluaziorako aintzat hartzekoa, eta EBk berriaz babestu du AMTn dauden xedapenen aplikazio orokorra, haren unibertsalizazioa sustatuz eta gardentasun handiagoa eta erantzukizunaren areagotzea bilatuz armen zein erabilera bikoitzeko produktuen esportazioetan. Horretarako baliatu izan ditu Kontseiluaren 2013/768/ASPE eta 2017/915 erabakietan jasotako programak, besteak beste.

Zalantzarik gabe, EBk nazioartean arlo honetan azaltzen duen planteamenduak multilateralismo eraginkorra du ardatz, eta estrategia horrexetan bermatzen ditu bere segurtasun- eta defentsa-politikaren koherentzia eta eraginkortasuna. Jakina da behar adinako adostasunik gabe nazioarteko ekintza juridiko-politiko batek modu esponenzialean murrizten duela bere helburua lortzeko ahalmena (kasu honetan arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen kontrolik gabeko ugaritzea eta haiek erabiliz giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren kontra egiten diren urratzeak gutxitzea da helburua).

Esanak esan, bistan denez, arma konbentzionalak eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuak salduz diru-sarrera itzelak lortzen dira, eta armamentuaren nahiz erabilera bikoitzeko teknologiaren ikerketa eta garapenak etekin ederrak dakartza. Zalantzarik gabe, faktore horien eraginak barne-gatazkak zein nazioartekoak desorekatu ditzake, eta hori guztia oztopo izan daiteke herrialdeetako, Europako eta nazioarteko araudi zorrotzagoa sustatzeko garaian. Hala ere, armamentuaren beste sektore batzuetarako (arma kimikoak, biologikoak eta nuklearrak), dagoeneko nazioarteko kontrol-esparru juridiko askoz zorrotzagoa eta sakonagoa finkatzea lortu da.

3) Estatuko arau multzoari dagokionez, osagai hauek dituela aipatu behar da: abenduaren 28ko 53/2007 Legea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa, eta abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua, defentsa-materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko erregelamendua onartzen duena.

Arauk oinarrizko hiru kategoriatan sailkatzen ditu erregulatzen dituen produktuak edo materialak. Hala, 1. artikulua, legearen xedeari eta helburuari buruzkoak, adierazten duenaren arabera, legearen eragin-eremuan sartzen dira defentsarako materialak, beste material batzuk (polizialak eta segurtasunekoak, horiek defentsarako materialaren kontzeptutik kanpo geratzen baitira, 3. artikulua xedatzen duenez), eta erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak.

Ondorio gisa azpimarratu behar da legearen 8.1 artikulua zenbait arau-kontzeptu zehaztugabe jasotzen dituela eta horregatik sistemak zenbait hutsune dituela, ziurtasun eta aurreikusgarritasun falta eragiten dutenak. Manuak ez ditu argi zehazten edo mugatzen zenbait kasu, esportazio-eragiketarako baimena ukatzeko, eteteko edo/eta indargabetzeko kontuan hartu behar direnak. Eta, bestalde, legearen 16.3 artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduaren (679/2014 Errege Dekretua) 19.3 artikuluan esportazio-eragiketen kontrol parlamentarioarako mekanismo bat ezartzen dela eta Defentsa Batzordeak gauzatzen duela mekanismo hori. Kontrol-mekanismo hori urtean behin abiarazten da, baimenak jada emanda daudelarik. Beraz, haren eraginkortasuna eta efikazia oso mugatuak dira: kontrol testimonial hutsa da, zurruna, aurrez erabakitako esportazio-baimena berbideratzeko, indargabetzeko edo eteteko ekintza-tarterik ematen ez duena.

4) Giza eskubideak EBn izenburuko atalean, azpimarra daiteke nazioartean Europar Batasuna dela zailtzarrik gabe giza eskubideak gehien bermatzen eta babesten dituen gobernuarteko erakundea. Ez du parekorik, indarrean baitauka giza eskubideak bermatzeko mekanismo bikoitza: batetik 1950eko Erromako Hitzarmena eta GEEAren kontrola, eta bestetik Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta EBJAren kontrola. Subjektuek sistema horretara jo dezakete balizko urratzeen aurrean.

•Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara armak esportatzea

Nazioarteko zehapenei dagokienez, esan dezakegu zehapen horiek legezko neurriak direla, Nazio Batuek edo integrazio ekonomikorako prozesuetako erakundeek edo beren kabuz zenbait herrialdek erabakitzen dituztenak, atzerriko estatu, talde sozial eta politiko edo pertsona fisiko zein juridikoen aurka, eta bai partikularrekiko bai erakunde publikoekiko harreman ekonomikoetan eragiten dutenak, funtsean. Hori bai, kontuan izan behar da, NBEren ezaugarriak eta dituen gaitasun eta ahalmen juridiko eta faktikoak direla-eta, NBEko kide diren herrialdeei dagokiela Segurtasun Kontseiluak onartutako nahitaezko neurriak bete-betean aplikatzea (legegintzaz inplementatuak izan zein administrazioko edo arlo judizialeko ekintzen bitartez inplementatuak).

EBren zehapenei dagokienez, Kontseiluaren atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloko erabakien bitartez ezartzen dira zehapen horiek, hau da, Kontseiluaren ASPE erabakien bitartez. Prozesu hau bete behar da zehapena erabakitzeko: EBren Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkariek proposamena egiten du, eta prestatze-organo hauek hura aztertzen eta eztabaidatzen dute: Zehapena jarri nahi zaion herrialdea zein eremu geografikotan dagoen, hango talde arduraduna; Kanpo Harremanetako Kontseilarien Taldea (RELEX); beharrezkoa bada, Politika eta Segurtasun Komitea (PSL); eta Ordezkarri Iraunkorren Lantaldea (Coreper II). Azkenik, Kontseiluak ASPE erabakia onartzen du aho batez.

Azkenik, kontuan izan behar da nazioarteko zehapenei buruzko araudia sarritan aldatzen dela, murrizketak ezartzea eragin duten gertaerek eboluzionatu ahala edo datu eta inguruabar berriak azaldu ahala.

JIMDDU eta haren erregulazioa direla-eta, esan daiteke, nortzuek osatzen duten ikusita, itxuraz interes komertzialek dutela lehentasuna baimenak emateko edo ukatzeko garaian, eta bigarren mailan uzten direla beste interes batzuk, hala nola defentsa, nazioarteko segurtasuna, Estatuaren segurtasuna edo giza eskubideak. Ikus daiteke, argi eta garbi, diseinatutako sistemak ez diela ordezkariarik ematen armagabetezarekin, giza eskubideekin edo nazioarteko lankidetzarekin zerikusia duten gaietan espezializatutako administrazio-organoei.

•EAEko erakundeen egitekoa, eta sektoreko EAEko enpresa-operadoreari kontrol-mekanismoak ezartzea, gardentasuna eta erantzukizuna areagotzeko

Gardentasunari dagokionez, ondorio gisa esan daiteke ezen, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, taxutu duen arau-esparruan

ezarritakoa etorkizunean gauzatu ahal izateko, aldatu egin beharko liratekeela abenduaren 28ko 53/2007 Legea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoa, eta abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua, defentsarako materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamendua onartzen duena, bai eta Sekretu Ofizialen Legea ere (apirilaren 5eko 9/1968 Legea).

Jokabide-kodeei eta Eusko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriei dagokienez, ondorio gisa esan daiteke oso gutxi direla kode etiko edo jokabide-kode irekia edo jendaurrekoa duten enpresak, giza eskubideen babesa edo zuzenbide humanitarioa bezalako gaiei dagokienez. Haietako askok ez dute jendaurrean adierazten ezta industria-sektore horretan ari direnik ere.

Alde horretatik neurri egokia izan liteke jokabideari, etikari edo/eta gardentasunari buruzko esparru-kode bat diseinatzea edo/eta sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-sektoreko enpresetan integratu eta aplikatu ahal izango dena. Horrelako kode bat ezartzeko, jakina, abiapuntutzat hartu behar dira autonomia pribatua eta alderdien borondatezkotasuna. Esparru-kode horretan jaso litezke honako proposamen hauek: giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publiko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzak sustatua, edo/eta merkataritza egokirako jokabide- edo/eta etika-batzorde bat sortzea eta bertan ordezkariak izatea administrazio publikoek, sektoreko enpresek, sektore horren bezero eta erabiltzaileek eta gizarte zibilak.

I. Aurrekariak/Testuingurua

1.1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak txosten bat eskatu dio ikerketa-lantaldeari, aztergai har ditzan zer esparru juridikoa aplikatu beharko litzaiokeen giza eskubideen errespetuarekin lotuta EAeko arma-merkataritzari eta -esportazioari, eta zer jardunbide hartu beharko luketen EAeko erakundeek beren eskumen-eremuaren barruan gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta inderrean den ordenamendu juridikoa betetzeko.

Irizpen honek bi xede ditu:

Lehenengo eta behin, arma-merkataritzaren lege- eta eskumen-esparruari eta interes orokorreko portuei buruzko azterketa egingo da, beharrezko premisa baita Europar Batasunaren barruan Autonomia Erkidegoak duen egitekoa eta eskumena zehazteko.

Bigarrenik, honako gai hauei aplikatu beharreko esparru juridiko arautzailea aztertzeari ekingo zaio:

I. Armen merkataritza, armen esportazioa, eta gardentasun- eta kontrol-neurriak giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa ez urratzeko eta arma konbentzionalen desbideratzea era espontzian murrizteko.

II. Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara armak esportatzea.

III. EAeko erakundeek kontrol-mekanismoak ezartzea armamentuaren arloko EAeko enpresa-operadorearen gain, gardentasun handiagoa lortzeko eta erantzukizuna areagotzeko.

Bi gaietako lehenengoari dagokionez, konstituzionaltasun-blokeak osatutako lege- eta eskumen-esparruaren gaineko azterketa egingo da, autonomia-erkidegoak arloan dituen eskumen zehatzak zein diren argitzeko. Zehazki, Europako edo Europar Batasuneko erakundeek eskumen horiek progresiboki beren gain hartzeko prozesua aztertuko da.

Bigarren gaia dela-eta, irizpen honen xedea da, Europako esparru juridikoa aztertu eta gero, zenbait ondorio praktikoa azaltzea eta, behar izanez gero, zenbait gomendio prestatzea, EAeko erakundearen egitekoa zehaztea ahalbidetuko dutenak, neurri egokiak hartze aldera, arma konbentzionalen nazioarteko merkataritzan gardentasuna handitu eta erantzukizuna areagotzeko kontrol-mekanismoen ezarpenari dagokionez.

EBko erakundeek Europako Zuzenbidea garatzeak eragin nabarmena du nazioarteko merkataritzan, giza eskubideetan eta Europako garraioen arloko politika erkidean, jatorrizko Europako Erkidegoa egungo Europar Batasuna bihurtzearen ondorioz. Izan ere, Lisboako Tratatua indarrean jarri zenez geroztik EBk badu nazioartean nortasun juridiko berekia subjektu independente gisa, Europar Batasunaren Tratuaren 47. artikulua arabera, eta horrek, berriz, EBren eta estatu kideen arteko eskumen-banaketari eragiten dio bai barne-eremuan bai nazioartekoan.

Alde horretatik, ezin da aipatu gabe utzi Europar Batasunaren lege-aniztasunak, askotariko ordenamendu juridiko nazionalekin batera, benetako erronka juridiko, ekonomiko eta politiko bilakatzen duela edozein politika erkideren lorpena. Hori guztia alora utzita ere, Europar Batasuneko estatu ugarietako batzuek lege-gintzako lurralde-sistemen aniztasuna dute ezaugarri, Espainiako Estatu tartean dela.

Hala ere, arreta berezia merezi du EBk armen merkataritza eta esportazioaren, giza eskubideen eta garraioaren arloetan ahalmen handiagoak eskatzeko agertzen duen desio berezko eta koherenteak, nahiz eta estatu kideek uko egin eskumen handiagoak lagatzeari politika erkide, eraginkor eta behin betikoaren premia duten funtsezko sektore horietan.

Orain ematen den irizpenak planteatu den arazo zehatz bati erantzuten dio. Arazo horrek ondorio koherenteak eskatzen ditu, EAeko erakundeek nazioarteko arma-merkataritzan arma-esportazioen kontrola eta gardentasunaren hobekuntza bultzatzeko daukaten eskumen-tartea aintzat hartuko dutenak.

1.2. Txostenaren xede diren salgaiak eta teknologiak

1.2.1. Armak

1.2.1.1. Definizioa: Txosten honen xede dira honako kategoria hauetan sartzen diren arma konbentzional guztiak: gudu-orgak; gudu-ibilgailu blindatuak; kalibre handiko artilleria-sistemak; gudu-aireontziak; erasotzeko helikopteroak; gerraontziak; misilak eta misil-jaurtigailuak; arma txikiak eta arma arinak.

1.2.1.2. Definizioaren kritika eta ñabardurak: Arestian eskainitako definizioa Armen Merkataritzari buruzko Nazio Batuen Tratatuen 2.1 artikulua mugatzen du. Jakina, ulertu behar da kontzeptu horren osagarri dela munizio kontzeptua, zeina jasota baitago aipatutako nazioarteko arauaren 3. artikuluan eta arau horren berorren 4. artikuluan, atal eta osagaiei buruzkoan. Hala ere, aurrekoa esanda, bistan da nazioarteko arauak eskainitako kontzeptua mugatua dela eta kanpoan uzten dituela erabilera militarra izan dezaketen bestelako arma, salgai eta teknologia batzuen kontzeptuak. Hala, bada, kanpora geratzen dira suntsipen handiko armak, armamentu nuklearra edo/eta erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak (besteak beste, tresneria nuklearra, substantzia kimikoak, toxinak, mikroorganismoak, tresneria elektronikoa, laserrak, propulzio-sistemak, ordenagailuak eta ibilgailu bereziak). Aurrekoa esanda, eta erabilera bikoitzeko salgai eta teknologiei erreparatuta, horiei buruzko definizio bat dago txertatuta irizpen honetako hurrengo epigrafean.

Beharrezkoa da, halaber, defentsa-materialaren kontzeptuaren aipamen labur-laburra egitea: izaera militar soila duen materiala da, eta erabilera bikoitzeko materialaren ezaugarri mistoetatik bereizten da, azken hori bietarako izan daiteke-eta, erabilera zibilerako zein militarerako. Estatuko barne-arauen multzoan honako definizio hau ematen dute bai abenduaren 28ko 53/2007 Legeak, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoak, 1.10 artikuluan, bai abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoak, kontrabandoaren errepresioari buruzkoak (zeinak 1. artikuluan 13. apartatuan zuzenean igortzen baitu 53/2007 Legea defentsa-materialatzat zer hartu behar den zehazteko):

Defentsa-materiala: armamentua, eta berariaz erabilera militarerako diseinatutako produktu eta teknologia guztiak, bortxarako, informaziorako edo babeserako erabil daitezkeenak gatazka armatuetan, bai eta haiek garatzea, ekoiztea edo erabiltzea xede dutenak ere, betiere Gobernuak erregelamenduz onartzen dituen garapen-arauetan jasorik badaude.

1.2.2. Erabilera bikoitzeko salgaiak eta teknologiak

1.2.2.1. Erabilera bikoitzeko produktuen definizioa: Irizpen honen gaiari dagokionez, erabilera bikoitzeko produktutzat jo behar dira bai erabilera zibilak eta bai militarrek izan ditzaketen produktuak –euskarri logikoa (softwarea) barne– eta teknologiak; tartean, bai lehergaiz bestelako erabileretarako eta bai arma nuklearrak edo bestelako lehergailu nuklearrak fabrikatzen laguntzeko erabil daitezkeen produktu guztiak.

1.2.2.2. Definizioaren kritikak eta ñabardurak: Europako arau batean dago mugatuta goian emandako definizioa, eta arau hori zuzenean aplikatu behar da Europar Batasuneko estatuen ordenamendu juridikoe-tan. Hala, definizio hori dakar, bere 2.1 artikuluan, Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduak, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duenak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 1232/2011 EB Erregelamenduaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko 388/2012 Erregelamenduaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko ekainaren 12ko 599/2014 Erregelamenduaren bidez eta Batzordearen 2016ko irailaren 12ko 2016/1969 EB Erregelamenduaren bidez aldatuta dago).

Estatuko araudian xedatutakoaren aipamen laburra ere egin behar da. Hala, bada, abenduaren 28ko 53/2007 Legeak, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoak, 1.13 artikuluan, eta abenduaren 12ko Lege Organikoak, kontrabandoaren errepresioari buruzkoak (zeinak 1. artikuluan 14. apartatuan zuzenean igortzen baitu bai Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 EE Erregelamendura bai 53/2007 Legea) hitzez hitz jasotzen dute Europako arauan xedatutakoa, hau adierazten baitute:

Erabilera bikoitzeko produktuak: bai erabilera zibilak eta bai militarrek izan ditzaketen produktuak –euskarri logikoa (softwarea) barne– eta teknologiak; tartean, bai lehergaiz bestelako erabileretarako eta bai arma nuklearrak edo bestelako lehergailu nuklearrak fabrikatzen laguntzeko erabil daitezkeen produktu guztiak.

Erabilera bikoitzeko material, teknologia edo produktuen definizio hori osatu eta zehaztu egiten da 428/2009 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean, kategoriaka identifikatzen baitira honako produktu hauek: material, instalazio eta tresna nuklearrak; material bereziak eta lotutako tresneria; materialen tratamendua; elektronika; ordenagailuak; telekomunikazioak eta informazioaren segurtasuna; sentsoreak eta laserrak; nabigazioa eta abionika; ontzidia; eta aeronautika eta propulzioa.

1.2.3. Amaierako oharra, bi material moten transferentziari buruz

Bi material moten (batetik armak eta defentsarako materialak eta bestetik erabilera bikoitzeko produktuak) transferentziak, Espainiako ordenamendu juridikoan, abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuak antolatzen edota arautzen ditu, zeinaren bidez onartzen baita defentsarako materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamendua (2014ko abuztuaren 26ko BOE, 207. zenbakia).

II. Arma-merkataritzaren eta interes orokorreko portuen arloko eskumen-erregulazioa

2.1. Garraioaren eta interes orokorreko portuen arloko eskumena

Itsas garraioaren sektorea, bai eta portuak ere, merkataritza-jarduera garatzeko behar ditugun azpiegiturak diren aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat herriaren garapen ekonomikoaren ardatz dira, eta haren gizarte-koherentsia gauzatzeko ahalbidetzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoak itsasoarekin eta portu-jarduerarekin duen lotura historiko eta ekonomikoa bistakoa da. Izan ere, garraioaren eta portuen sistema bikain batek herri bat edo nazioen elkarte bat eta haren funtzionamendua egituratzeko aukera ematen du; pertsonen, enpresen eta salgaien mugikortasuna sustatzen du, eta bermatu egiten du ekoizpen eredia garatzea, merkatuak handitzea eta lurralde-egiturak finkatzea.

Portuen eta garraioaren EAEko sistemaren garrantzi ekonomikoa are handiagoa da ekonomia espezializatu, lehiakor eta independenteak ezaugarri dituen ingurune ekonomiko eta komertzialean, horrelako ekonomiek beharrezkoa baitute nazioarteko merkataritza-sistema bat, Europa barnekoa eta/edo Europaz kanpokoa, portu- eta garraio-azpiegituren sistema bikain batean oinarrituta dagoena.

Arlo hain berezi eta garrantzitsu horretan, Europako eta estatu-tako legeen askotarikotasunak eta estatuko nahiz estatu barneko ordenamendu juridiko desberdin askoren bizikidetzak zenbaitetan zaildu egiten du edozein politika erkideren lorpena eta benetako erronka juridiko, ekonomiko eta politiko bihurtzen du. Jakina, arestian adierazi dugun bezala, ez da ahaztu behar Europar Batasuneko estatu batzuen ezaugarria dela legegintzako lurralde-sistema propioen multzoa edukitzea, zenbait arlotan trataera juridiko bereziaren beharra dutenak.

Garraioaren eta portuen arloko eskumena gaur egun baldintzapean daukate Europako zuzenbideak eta Europako erakundearen interesek, erakundeok sektorea arautzeko gogo gero eta biziagoa agertzen baitute. Arautzeko gogo horren adierazgarri da EBJAk 2014ko abenduaren 11n SAGEPei eta interes orokorreko portuei buruz emandako epaia (C-576/13 auzia). Funtsean, horrek berekin dakar EBren eta estatu kideen arteko eskumen-banaketa birformulatzea garraioaren eta portu-jarduera eta -azpiegituren arloan. Izan ere, EBko tratatu indardunetan xedatutakoak Europako politika erkideen bilakaera baldintzatzen du. Europar Batasunaren Tratatuan, Lisboako Tratatuan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan askatasunerako, segurtasunerako eta justiziarako esparru bat bermatu beharri buruz jasotako premisek baldintzatzen dute bilakaera hori, bereziki. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 67.1 artikulua berariaz jasotzen du Europar Batasuna askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua dela, betiere oinarritzko eskubideen eta estatu kideetako sistema eta tradizio juridikoen errespetuaren itzalpean.

Eskumen-kontuei dagokienez, noski, gogoratu behar da Europar Batasunaren Tratatuaren 5.3 artikulua xedatutakoa, argi eta garbi arautzen baitu subsidiarioritasun-printzipioa, honako hau esanda,

“3. Estatu kideek, nahiz beren gobernu zentralaren bidez, nahiz eskualde- zein toki-erakundeen bidez, xede-ekintzaren helburuak ondo lortu ezin dituztenean, eta, xede-ekintzaren maila edo ondorioak direla-eta, helburuak Batasunaren bidez hobeto lortzeko modukoak direnean, orduantxe bakarrik, eta hein horretan, subsidiarotasun-printzipioaren indarrez hartuko du parte Batasunak bere eskumen eksklusiboak ez diren eremuetan.”

Barne-eremuan Espainiako Konstituzioa (EK) da oinarrizko araua, gure ordenamendu juridikoaren maila horrek eta Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketak ardatz dutena. Izan ere, 1978ko Espainiako Konstituzioa da eskumen-kontu honetarako aintzat hartu beharreko lehenengo elementu arauemailea. Konstituzio-manuen lehenetasun hierarkikoari eta eraginkortasunari lotuta dago haiek sistemaren konfigurazioan duten garrantzia. Kontuan izan behar da, batetik, ondore beteak sortzen dituela Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-mugaketari eta -banaketari dagokienez, itsas garraioaren eta portuen arloan, eta, bestetik, itsas garraioaren eta portuen sistemaren edukia eta arauak osatzen dituzten balio juridikoak berresten dituela.

Espainiako Konstituzioaren 148.1.6 artikulua bermatu egiten du gure antolamendu juridikoak itsas garraioari eta portuei buruz dituen arau edo legeen askotarikotasuna, alde batetik, eta autonomia-erkidegoen eta Estatuaren araugintza-eskumenean esparruak mugatzen ditu, bestetik. Izan ere, aipatutako konstituzio-manuan dagoen klausulak bermatu egiten du autonomia-erkidegoek eskumena izatea babes-portuekin, kirol-portu eta -aireportuekin eta orokorrean merkataritzako jarduerarik garatzen ez dutenekin lotutako gaietan erregelak, legeak eta araudiak egiteko.

Hau xedatzen du 148.1.6 artikulua:

“1. Honako gai hauek izan daitezke autonomia-erkidegoen eskumenekoak: [...] 6.a. Babes-portuak, kirol-portu eta -aireportuak, eta, orokorrean, merkataritzako jarduerarik burutzen ez dutenak.”

Era berean nabarmendu daiteke, ordea, beste alde batetik Konstituzioaren 149.1.20 artikulua argi aitortzen dituela Estatuaren eskumen eksklusibotzat honako gai hauek, besteak beste: merkataritzako ontzidiala, ontzietan bandera jartzea, itsasertzeko argiak eta itsas seinaleak, interes orokorreko portuak, interes orokorreko aireportuak; aireko espazioaren kontrola, aireko bidaiak eta garraioa, meteorologia-zerbitzua eta aireontzien matrikulazioa.

Hau xedatzen du 149.1.20 artikulua:

“1. Honako gai hauek estatuaren eskumen eksklusibokoak dira: [...] Merkataritzako marina eta ontzietan bandera jartzea; itsasbazterretan argiak jartzea eta itsas seinaleak egitea; interes orokorreko portuak; interes orokorreko aireportuak; aireko espazioa, eta airetik bidaiak eta garraioa kontrolatzea; meteorologia-zerbitzua; eta aireontzien matrikulazioa.”

Antzeko hitzez, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Estatuko Portuen eta Merkataritzako Ontzidiaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 11.1 artikuluan hau dio:

“1. Estatuko Administrazio Orokorrari eskumen eksklusiboa dagokio, Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoaren indarrez, interes orokorreko portuen gainean, zeinak lege honetan aurreikusitakoaren arabera sailkatuta baitaude.”

Izan ere, aztertutako manuetatik ondorioztatzen denez, konstituzio-testuak argi uzten du autonomia-erkidegoei legegintza-, betearazpen- eta erregelamendugintza-ahal osoak aitortzen zaizkiela itsas garraioaren eta portuetako jardueraren gain, baina eskumen horrek salbuespen bakarra eta garrantzitsua duela honako gai hauetan: merkataritzako ontzidiala eta ontzietan bandera jartzea, itsasertzeko argiak eta itsas seinaleak, interes orokorreko aireportuak, aireko espazioaren kontrola, aireko bidaiak eta garraioa, meteorologia-zerbitzua, aireontzien matrikulazioa eta interes orokorreko portuak. Hain zuzen ere horrela dago sailkatuta Bilboko portua (Estatuko Portuen eta Merkataritzako Ontzidiaren Legearen testu bateginaren I. eranskina), eta handik abiatzen dira armen eta erabilera bikoitzeko teknologiaren nazioarteko bidalketa eta esportazioetako batzuk. Funtsean, interes orokorrekotzat sailkatu gabeko jolas-jarduerari eta arrantzari dagokienez soil-soilik dira autonomia-erkidegoaren eskumenekoak portuak eta itsas garraioa.

Konstituzionaltasun-multzoa deritzon horretan ezarritako eskumen-diseinuaren eraikuntzan EAeko Autonomia Estatuaren 10.32 eta 12.8 artikuluek osatzen dute bigarren giltzarria. Hala, Gernikako Estatuaren 10.32 artikulua honako hau dio,

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen erabatekoa du honako gai hauetan: [...] Euskal Autonomia Erkidegoko trenbideko, lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioaren eta portu, heliportu, aireportu eta meteorologia zerbitzuaren arloan, horrek Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedaturikoa ezertan galarazi gabe. Garraio-gaietan, zama-kontrataguneak eta terminalak.

Bestalde, testu arauemaile beraren 12.8 artikulua hau xedatzen du,

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren legeria betearaztea honako gai hauetan: [...] Interes orokorrekotzat jotako portu eta aireportuak, Estatuak zuzeneko kudeaketa beretzat gordetzen ez duenean.

Bi artikulua batera edo konbinatuta interpretatz gero, ondoriozta daiteke interes orokorrekotzat sailkatutako portuen zuzeneko kudeaketa autonomia-erkidegoak har lezakeela bere gain baldin eta Estatuak ez baditu beretzat gordetzen haien zuzeneko kudeaketa eta, horrekin batera, indarrean dagoen legeriaren betearazpena. Alabaina, ohartarazi dugun bezala, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulutik ondorioztatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du portuen gain baldin eta interes orokorrekotzat sailkatuta ez badaude (2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko portuena eta itsas garraioarena; zioen azalpena eta 1.1 artikulua).

Esparru juridiko indarduna eta eskumen-esparrua aztertutik, bistan da ez Eusko Jaurlaritzak, ez EAEko erakundeek, ez dutela eskumenik merkataritzako ontzidiaren eta interes orokorreko portuen arloan, Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak osatutako eskumen-sistemaren arabera, zeina, ohartarazi dugun moduan, gaur egun Europari begira eta Europar Batasunak berariaz taxututako politikaren arabera interpretatu behar baita.

2.2. Kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren arloko eskumena

Kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren gaineko eskumena dela-eta, hasieratik azpimarratu beharra dago eskumen hori ukatu egiten zaiela autonomia-erkidegoei. Europan, egia izan arren, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 346. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatututako eskumen eskusiboa dutela armen, munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpenaren edo/eta merkaturatzearen arloan, egia ere bada EBFTren beraren 215. artikuluan ezarritakoaren itzalpean suma daitekeela nola EBk murrizketa-neurriak har ditzakeen, Batasuneko estatu kideei debekatuz arma konbentzionalak, horien munizioa eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia saltzea edo/eta laguntza teknikoa edo/eta finantzarioa eskaintzea hirugarren herrialdeei, hirugarren estatu hori zuzenbide humanitarioa urratzen ari bada.

Beraz, berriro aipatu behar da Europar Batasunari buruzko Tratatuak 5.3 artikuluan subsidiarioritasun-printzipioaz xedatutakoa. Lisboako Tratatuaren 1.6 artikulua ere, zeinak aurrekoa aldatzen baitu, printzipio hori jasotzen du eta hau xedatzen du hitz berberetan,

Estatu kideek, nahiz beren gobernu zentralaren bidez, nahiz eskualde- zein toki-erakunde bidez, xede-ekintzaren helburuak ondo lortu ezin dituztenean, eta, xede-ekintzaren maila edo ondorioak direla-eta, helburuak Batasunaren bidez hobeto lortzeko modukoak direnean, orduantxe bakarrik, eta hein horretan, subsidiarioritasun-printzipioaren indarrez hartuko du parte Batasunak bere eskumen eskusibokoak ez diren eremuetan.

Izan ere, Espainiako arma-sektorean kanpo-merkataritzako politikak eraginik izango balu atzerri-politika, segurtasun eta defentsa erkideetan, giza duintasunean, giza eskubideetan eta askatasunean, Europar Batasunak eta haren erakundeek eskumena izango lukete eremu horien guztien gain. Albora utzi gabe EBk eskumen eskusiboa duela merkataritzako politika erkideko gaietarako edo/eta barne-merkatua arautzeko, arma konbentzionalen, lehergaien eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen transferentziari dagokionez. Hain zuzen ere merkataritzako politika erkideak eskaintzen dituen tresnak eta atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloan hartutako erabakiak izan dira, biak batera, EBri ahalbidetu diotenak lege- eta arau-esparru egituratua edukitzea arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen salerosketa kontrolatzeko.

Horrela xedatzen du **Europar Batasunaren Tratatuak**, Lisboako Tratatuaren bidez aldaketak sartu ondoren 2., 6.1, 6.3, 21. eta 24. artikuluetan.

Giza duintasuna, askatasuna eta giza eskubideak:

EBTren 2. artikulua: Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna:

EBTren 6.1 artikulua: Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu, 2007ko abenduaren 12an Strasburgon onartu zen bezala, Tratatuaren balio juridiko berbera izango duelarik. Gutuneko xedapenek ez dituzte inola ere zabalduko Tratatuaren Batasunari aitortzen zaizkion eskumenak. Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak Tratatuaren interpretazioa eta aplikazioa arautzen duen Gutuneko VII. tituluko xedapen orokorrekin bat ulertuko dira. Behar bezala eduki behar dira kontuan Gutunean adierazten diren azalpenak, xedapen horien iturriak adierazten dituzte eta.

Oinarrizko eskubideak Europar Batasunaren Zuzenbidearen printzipio orokor:

EBTren 6.3 artikulua: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak eta estatu kideen konstituzio-tradizio erkideetatik datozenak Batasunaren Zuzenbidearen osagai izango dira, printzipio orokor direnez.

Europar Batasunaren ekintza nazioarteko jokalekuan:

AEBTren 21.1 artikulua: Sortzeko, garatzeko eta zabaltzeko orduan sustagarri izan dituen printzipio berberak izango dira Batasunaren ekintzaren oinarri nazioartean diharduenean ere, mundu osora zabalduta nahi dituelako hauek: demokrazia; zuzenbide-estatua; giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen unibertsaltasuna eta zatiezintasuna; giza duintasunaren errespetua; berdintasun- eta elkartasun-printzipioak; eta Nazio Batuen Gutuneko nahiz nazioarteko zuzenbideko printzipioen errespetua [...].

EBk politika erkideak eta ekintzak zehaztu eta gauzatzea:

EBTren 21.2 eta 21.3 artikulua: 2. Nazioarteko harremanen eremu guztietan, Batasunak politika erkideak eta ekintzak zehaztu eta gauzatuko ditu, eta lankidetzaren maila handia lortzen saiatuko da, honetarako: a) bere balioen, funtsezko interesen, segurtasunaren, independentziaren eta osotasunaren alde egiteko; b) demokrazia, zuzenbide-estatua, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbideko printzipioak sendotzeko eta babesteko; c) bakeari eusteko, gatazkei aurrea hartzeko eta nazioarteko segurtasuna sendotzeko, Nazio Batuen Gutunaren helburuen eta printzipioen arabera, Helsinkiko Azken Aktako printzipioen arabera eta Parisko Gutunaren helburuen arabera, kanpoko mugekin zerikusia dutenak barne; d) garatzeko bidean dauden herrialdeetako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen jasangarriaren alde egiteko, helburu nagusi batekin: pobrezia desagerraraztea; e) herrialde guztiak munduko ekonomiara biltzeko ahaleginak egiteko, besteak beste nazioarteko merkataritzak dituen oztopoak arian-arian ezabatuz; f) ingurumenaren kalitatea eta munduko baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra babesteko eta hobetzeko nazioarteko neurriak antolatzen laguntzeko, garapen jasangarria lortze alderara; g) hondamendiren bat jasaten duten jendartei, herrialdeei eta eskualdeei laguntzeko, berdin naturak eragindakoa edo gizakiak eragindakoa den; eta h) alde askotako lankidetzaren sendoa eta munduaren gobernamentu zuzena oinarritzat dituen nazioarteko sistema baten alde egiteko. 3. Batasunak 1. eta 2. paragrafoetan aipaturik dauden printzipioak errespetatuko ditu, eta horko helburuak lortzen saiatuko da, titulu honetan [...] jasota dauden eremuetako atzerri-ekintza [...] zehaztu eta aurrera eraman behar duenean [...].

EBk eskumena izatea atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloan eta estatu kideek baldintzarik gabeko babesa ematea Batasunari:

EBTren 24.1 artikulua: Atzerri- eta segurtasun-politika erkidean Batasunak duen eskumenak Batasunaren atzerri-politikaren eremu guztiak eta segurtasunari buruzko gai guztiak hartuko ditu bere baitan, defentsa erkidea ekar dezakeen defentsa-politika erkidea arian-arian eratzeko barnean hartuta.

EBTren 24.2 artikulua: Batasunak, atzerri-ekintzarako dituen printzipioen eta helburuen eremuaren barruan, atzerri- eta segurtasun-politika erkidea zuzendu, definitu eta gauzatuko du, eta zeregin horretan,

oinarri gisa, estatu kideen arteko elkartasun politikoa garatuko du, interes orokorrekoak diren gaiak zehaztu eta estatu kideen ekintzaren elkarganatze gero eta zabalagoa lortuko du.

EBTren 24.3 artikulua: Estatu kideek biziki eta baldintzarik jarri gabe bultzatuko dute Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika elkarrenganako leialtasunez eta elkartasunez, eta Batasunak eremu horretan egiten duena errespetatuko dute.

Behin aurrekoa jasota, barne-eremuan, zalantzarik gabe, Espainiako Konstituzioa (EK) da berriro ere oinarritzko araua, gure ordenamendu juridikoaren maila horrek eta Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketak ardatz dutena. Espainiako Konstituzioa da inondik ere eskumen-kontu honetarako aintzat hartu beharreko lehenengo elementu arauemailea. Beste behin ere azpimarratu behar da konstituzio-manuen lehentasun hierarkikoari eta eraginkortasunari lotuta dagoela haiek sistemaren konfigurazioan duten garrantzia. Hala ere, jabetu beharra dago, azpimarratu dugun moduan, zein diren EBren interesak bai kanpoko eta nazioarteko merkataritzaren eremuan eta bai arma-merkataritza edo -industriaren, segurtasunaren eta atzerri-politikaren arloan.

149.1.3, 149.1.10, 149.1.13 eta 149.1.26 artikuluen irakurketa konbinatuak erakusten du nola Estatuak argi eta garbi, haietan aipatzen diren eskumenak eskusibotzat jotzean, eskumenok beren gain hartzea eragozten dien autonomia-erkidegoei.

149.1.3 artikulua: Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: [...] Nazioarteko harremanak.

149.1.10 artikulua: Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: [...] Aduana eta muga-zergen araubidea; eta kanpo merkataritza.

149.1.13 artikulua: Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: [...] Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehaztea eta horren koordinazio orokorra egitea.

149.1.26 artikulua: Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: [...] Arma eta lehergaiak ekoizti, saldu nahiz erosi, eduki eta erabiltzeko araubidea.

Izan ere, aztertutako manuetatik ondorioztatzen denez, konstituzio-testuak argi uzten du autonomia-erkidegoek ez dutela legegintza-, betearazpen- eta erregelamendugintza-ahalik armen kanpo-merkataritzaren eta industriaren gain eta armen gain.

Horrelaxe dago jasota, Estatuak arma-industriaren gain eskumen eskusiboa izateari dagokionez, konstituzionaltasun-multzoa deritzon eskumen-egituraren bigarren giltzarrian, hau da, EAEko Autonomia Estatutuaren 10.30 artikuluan. Estatuaren 10.30 artikulua horrek hauxe dio:

“Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen erabatekoa du honako gai hauetan: [...] Industria, salbu eta arau berezien peko industriak ezartzea, handitzea eta lekualdatzea, dela segurtasunagatik, armadaren eta osasunaren interesagatik edota legeria berezia behar dutenak eta atzerriko teknologia eskuratzeko aurreiazko kontratuak behar dituztenak. Industria-sektoreen berregituraketan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuak erabakitako planak garatu eta gauzatzea.”

Aurrekoaz gainera gogora ekarri behar da, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera Estatuako segurtasun-indar eta -kidegoei dagokiela arma eta lehergaien kontrolaren arloko eskumena. Eskumen hori ukatu egiten zaio polizia autonomikoari. Honako hau xedatzen du 17. artikulua:

Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian foru-araubidearen eguneratze-prozesuaren haritik, Euskal Herriko erakundeei egokituko zaie, Estatu honetan zehazten den eran, autonomia-lurraldean gizakien eta ondasunen babeserako eta herri-bakea zaintzeko Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea, Estatuaren segurtasun-indar eta -kidegoentzat gorderik gelditzen direla, nolahi ere, erkidegoz kanpoko edo erkidegoz gaindiko polizia-zerbitzuak, hala nola portu, aireportu, itsasertz eta mugak zaintzea, aduanak eta espainiarrak eta atzerriarrak nazio-lurraldean sartu eta ateratzea kontrolatzea, atzerriarren araubide orokorra, estradizioa eta kanporatzea, emigrazioa eta immigrazioa, pasaporteak, nortasun-agiri nazionala, arma eta lehergaiak, Estatuaren zerga-bidearen babesa, kontrabandoa eta Estatuari egindako zerga-iruzurra.

III. Armen merkataritza, erabilera bikoitzeko teknologia, esportazioa eta gardentasun- eta kontrol-neurriak arautzen dituen esparru juridikoa. dauden arau multzoen (nazioartekoa, Europakoa eta Estatukoa) azterketa

3.1. Arau multzoak

3.1.1. Nazioarteko zuzenbidea

- Nazio Batuen Gutuna.
- Armen Merkataritzari buruzko Tratatu.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.
- Erromako 1950eko Hitzarmena, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestekoa.

3.1.2. Europako zuzenbidea

3.1.2.1 Zuzenbide instituzionala

- Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu, Parisen sinatua 1951ko apirilaren 18an (1986ko urtarrilaren 1eko BOE).
- Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu, Erroman sinatua 1957ko martxoaren 25ean. Berrespen-tresna, 1985eko ekainaren 12koa (1986ko urtarrilaren 1eko BOE).
- Europako Agiri Bakuna, 1986ko otsailaren 17koa eta 28koa (EEAO, L 169. zenbakia, 1987ko ekainaren 29koa; 1987ko uztailaren 3ko BOE).
- Europar Batasunaren Tratatu, Maastrichten sinatua 1992ko otsailaren 7an (10/1992 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Espainiak Europar Batasunaren Tratatu berrestea baimentzen duena, 1992ko abenduaren 29ko BOE). Berrespen-tresna, 1994ko urtarrilaren 13ko BOE.
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (EBAO, C 364/01, 2000ko abenduaren 18koa)
- Nizako Tratatu, Nizan sinatua 2001eko otsailaren 26an, Europar Batasunaren Tratatu, Europako Erkidegoak eratzeko tratatuak eta lotutako zenbait egintza aldatzen dituena (EEAO, C 80/1, 2001eko martxoaren 10ekoa).
- Lisboako Tratatu, zeinaren bidez aldatzen baitira Europar Batasunaren Tratatu eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu (EBAO, C 306/01, 2007ko abenduaren 17koa).
- Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bertsio finkatua (EBAO, 83. zenbakia, 2010eko martxoaren 30ekoa).

3.1.2.2. Europako zuzenbide eratorria

3.1.2.2. a. Kanpo-merkataritzari, armen esportazioari eta horien kontrolari buruzko araudia.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua, maiatzaren 6koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barruko transferentzien terminoak eta baldintzak sinplifikatzeari buruzkoa.
- Batzordearen 2010/80/EB Zuzentaraua, 2010eko azaroaren 22koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.

- Batzordearen 2012/10/EB Zuzentaraua, 2012ko martxoaren 22koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen 2014/18/EB Zuzentaraua, 2014ko urtarrilaren 29koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen 2014/108/EB Zuzentaraua, 2014ko abenduaren 12koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen 2016/970 (EB) Zuzentaraua, 2016ko maiatzaren 27koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen 2017/433 (EB) Zuzentaraua, 2017ko martxoaren 7koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen 2017/2054 (EB) Zuzentaraua, 2017ko azaroaren 8koa, defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrendari dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Batzordearen Gomendioa, 2011ko urtarrilaren 11koa, defentsa-enpresak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/43/EE Zuzentaruaren 9. artikulurekin bat etorri zizkiotz buruzkoa (zuzentzari hori defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barruko transferentzien terminoak eta baldintzak sinplifikatzeari buruzkoa da).
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 258/2012 (EB) Erregelamendua, 2012ko martxoaren 14koa; horren bidez, Su-armen, horien pieza eta osagaien eta munizioen lege kontrako fabrikazioaren eta trafikoaren aurkako Nazio Batuen Protokoloaren 10. artikulua aplikatzen da (protokolo hori Nazioz haraindiko delinkuentzia antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren osagarri da), eta esportazio-baimenak eta inportazio- eta zirkulazio-neurriak ezartzen dira su-armetarako, horien pieza eta osagaietarako eta munizioetarako.
- Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua, 2008ko abenduaren 8koa, teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko arau erkideak definitzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/51/EE Zuzentaraua, 2008ko maiatzaren 21koa, zeinaren bidez aldatzen baita Kontseiluaren 91/477/EE Zuzentaraua, armak eskuratu eta edukitzea kontrolatzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2003/468/ASPE Jarrera Bateratua, 2003ko ekainaren 23koa, armen artekaritza kontrolatzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2000/401/ASPE Ekintza Bateratua, 2000ko ekainaren 22koa, amaierako erabilera militar batzuei dagokien laguntza tekniko kontrolatzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2009/1012/ASPE Erabakia, 2009ko abenduaren 22koa, EBk hirugarren herrialdeetan armen esportazioaren kontrola eta 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuko printzipioak eta irizpideak sustatzeko xedez egiten dituen jarduerak babesteari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2012/711/ASPE Erabakia, 2012ko azaroaren 19koa, Batasunak hirugarren herrialdeetan armen esportazioaren kontrola eta 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuko printzipioak eta irizpideak sustatzeko xedez egiten dituen jarduerak babesteari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2013/768/ASPE Erabakia, 2013ko abenduaren 16koa, Segurtasunerako Europako Estrategiaren esparruan EBk Armen Merkataritzari buruzko Tratatuaren aplikazioaren alde egiten dituen jarduerari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2015/2309 (ASPE) Erabakia, 2015eko abenduaren 10koa, arma-esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzeari buruzkoa.

•Kontseiluaren 2017/915 (ASPE) Erabakia, 2017ko maiatzaren 29koa, EBk Armen Merkataritzari buruzko Tratatuaren aplikazioaren alde egiten dituen sentsibilizazio-jarduerei buruzkoa.

•Kontseiluaren 2018/101 (ASPE) Erabakia, 2018ko urtarrilaren 22koa, arma-esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzeari buruzkoa.

•Europar Batasunaren Zerrenda Militar Bateratua, 2018ko otsailaren 26ko Kontseiluak onartua (tresneria hori aurreikusten da Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuan, zeinaren bidez teknologia eta tresneria militarrek kontrolatzeko arau erkideak definitzen baitira) –EBAO, C 98/1, 2018ko martxoaren 15ekoa.

•Batzordearen 2018/1922 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2018ko urriaren 10ekoa, zeinak aldatzen baitu Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena. EBAO, L 319/1, 2018ko abenduaren 14koa.

•Hogeigarren urteko txostena, Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuak, teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko arau erkideak definitzen dituenak, 8. artikuluko 2.m apartatuan xedatzen duenaren arabera egina. EBAO, C 453/1, 2018ko abenduaren 14koa.

3.1.2.2. b. Erabilera bikoitzeko materialari eta kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzko araudia.

•Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamendua, 2009ko maiatzaren 5ekoa, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena, eta egin zaizkion aldaketak.

•Batzordearen 1232/2011 (EB) Erregelamendua, 2011ko azaroaren 16koa, zeinak aldatzen baitu Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena.

•2016/1969 (EB) Erregelamendu Delegatua (2016ko azaroaren 15eko AO), zeinak aldatzen baitu Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena. Erregelamendu horrek eguneratu egiten du Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamenduaren I. eranskina (erabilera bikoitzeko produktuen zerrenda).

•Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 599/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko apirilaren 16koa, zeinak aldatzen baitu Kontseiluaren 428/2009 (EE) Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena.

3.1.2.2. c. Aduanei eta nazioarteko merkataritzari buruzko Europako araudia.

•Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 952/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko urriaren 9koa, Batasunaren aduana-kodea ezartzen duena.

•Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamendua, 1987ko uztailaren 23koa, muga-zergazko eta estatistikako nomenklaturari eta aduana-tarifa erkideari buruzkoa.

•Batzordearen 2016/1956 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2016ko azaroaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baita Kontseiluaren 2658/87 (EEE) Erregelamenduaren (muga-zergazko eta estatistikako nomenklaturari eta aduana-tarifa erkideari buruzkoaren) I. eranskina.

3.1.3. Estatuko zuzenbidea

•53/2007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoa.

•679/2014 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, defentsarako materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamendua onartzen duena.

•9/1968 Legea, apirilaren 5ekoa, sekretu ofizialei buruzkoa.

•19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

•12/1995 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, kontrabandoaren errepresioari buruzkoa.

3.2. Nazioarteko arau multzoa

3.2.1. Nazio Batuen Gutuna

Arma-merkataritzari, erabilera bikoitzeko teknologiar, horren esportazioari eta horrelako merkataritza-harremanen gaineko gardentasun- eta kontrol-neurriei dagokienez, Nazio Batuen Gutuna da lehenik aztertu beharreko nazioarteko araua, haien eragina saihestu edo behintzat arindu ahal izateko giza eskubideetan, zuzenbide humanitarioan eta nazioarteko segurtasunean.

Nazioarteko testuaren atarikoan berariaz jasorik daude, besteak beste, Nazio Batuetako herrialdeen xede hauek:

[...] gure ustea berrestea bai gizakien oinarrizko eskubideetan, bai gizakiaren duintasunean eta balioan, bai gizonen eta emakumeen arteko eta herri handien eta txikien arteko eskubide-berdintasunean [...]

[...] justiziar, eta tratatuetatik zein nazioarteko zuzenbidearen beste iturri batzuetatik eratorritako bete-beharren errespetuari eutsi ahal izateko baldintza egokiak sortzea [...].

Nabari daitekeenez, argiak dira Nazio Batuen nazioarteko erakundearen ezarpenaren bitartez lortu beharreko azken helburuari buruzko bi adierazpen horiek. Aurrekoaz gainera, benetan esanguratsua da “tratatu-tatik zein nazioarteko zuzenbidearen beste iturri batzuetatik eratorritako bete-beharren errespetua”ren aipamena. Izan ere, tratatuetatik eratorritako bete-beharren errespetuaz mintzatzen da orokorki, barnean hartuta, hain zuzen ere, Armen Merkataritzari buruzko Tratatu, eta, beraz, errespetatu egin behar da tratatu hori. Oso bestelako kontua izango da aipatutako tratatuetako arauen ez-betetze baten aurrean nazioartean abian jarri beharreko mekanismoak zehaztea.

Nazio Batuen Gutunak 1. artikuluan xedetzat jasotzen du –I. kapituluan, nazioarteko testuaren helburu eta printzipioei buruzkoan– nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea justiziaren eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioekin bat etorritz; orobat nazioen artean sustatzea “[...] adiskidetasunezko harremanak, eskubide-berdintasunaren printzipioaren errespetuan oinarrituak”, eta nazioarteko lankidetzaren bitartez konpontzea “[...] nazioarteko arazo ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo humanitarioak, eta giza eskubideen nahiz gizaki guztien oinarrizko askatasunen begirunea garatu eta sustatzea [...]”.

Izan ere, aipatutako esparruetan azal daitekeen nazioarteko arazo orok izango du lekua nazioarteko testu horretan, baita izaera ekonomikoko arazoek ere, eta horietako bat izan liteke nazioarteko arma-esportazioa, albora utzita esportazio horrek eraginik baduen ala ez arazo humanitarioetan edo giza eskubideen inguru-koetan. Gaiaren konplexutasuna, gure iritziz, nazioarteko testuaren aplikazio-eremuarekin zerikusia duen eskumen-arazo batean datza.

Alegia, esaten badugu giza eskubideak eta zuzenbide humanitarioa urratzen dituen estatu batera armak esportatzen dituen beste estatu bat agian nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak eta zuzenbide humanitarioa urratzen ari dela, baina nazioarteko bakean eta segurtasunean eragin gabe, orduan ez da Nazio Batuen Gutuna izango giza eskubideak babesteko aldarrikatu eta, kasua bada, aplikatu beharreko testu arauemilea. Aldiz, zenbait herrialdetara armak esportatzea –kasu honetan, Espainiatik armak esportatzea– nazioarteko bakearen eta segurtasunaren iraupena arriskuan jar dezakeen gauza bada (jakina, horrek giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren urratzea ere ekar dezake berekin), orduan bai izango dela aplikatzekoa nazioarteko testu hori, eta abian jarri ahal izango dira bertan ezarritako mekanismoak erantzukizunak argitzeko. Aztertu beharreko gaiaren kalifikazioaren menpean dago esparru juridiko bat edo beste bat aktibatzea.

Aurrekoa azaldurik, eta hirugarren herrialde batera arma-esportazio jakin bat egiteak nazioarteko segurtasun-politika, segurtasuna bera edota bakearen mantentzea eragotz dezakeen kasuetan, Nazio Batuen Gutuna eta eskura jarritako mekanismo guztiak bete-betean aplikatu ditzake Nazio Batuen Erakundeak, bere kide guztien berdintasun subiranoaren printzipioa bere existentziaren oinarri edo giltza duen nazioarteko erakundea den aldetik.

Noski, hori balitz aztertu beharreko kasua, nazioarteko esparru juridikoa eta Nazio Batuen Gutunean jasotako mekanismoak erabat aplikagarriak lirateke, eta nahikoa litzateke Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren aurrean frogatzea estatu jakin batek egindako arma-esportazioek nabarmen edo zuzenean eragiten dietela nazioarteko bakeari eta segurtasunari; horrenbestez Segurtasun Kontseiluak neurri egokiak hartu eta bere esku dituen mekanismoak abiarazi ahal izango lituzke, behar izanez gero.

Gogora ekarri behar da Gutunaren 25. artikulua dioena, hau da, Nazio Batuetako kideek onartu egiten dutela Segurtasun Kontseiluaren erabakiak betetzea. Eta manu horrek, Gutunaren beraren 34. artikuluan xedatutakoarekin lotuta, bide ematen du ondorioztatzeko Segurtasun Kontseiluak hartutako erabakiak nahitaez bete behar dituztela Nazio Batuetako kide guztiek, eta Kontseiluak izango duela eskumena nazioen arteko tirabira edo gatazkaren batera eraman dezaketen auzi edo egoera oro ikertzeko, ea nazioarteko bakearen eta segurtasunaren iraupena arriskuan jar ote dezakeen zehazteko helburuz.

Hori horrela bada, Segurtasun Kontseiluak ahalmen edo/eta eskumen osoa du zehazteko indar armaturik baliatu gabe zer-nolako neurriak erabili behar diren bere erabakiak gauzatzeko, eta Nazio Batuetako kideak hertsia ditzake neurri horiek aplikatzera. Neurriok barruan hartu ahal izango dute, Gutunaren 41. artikuluan jasotzen denez, “[...] harreman ekonomikoen etete erabatekoa edo partziala [...], bai eta harreman diplomatikoak etetea ere”. Ulertu behar da manu horretan biltzen direla produktu eta salgai jakinak esportatzeko edo/eta inportatzeko debekuak, armen enbargoak eta beste hainbat neurri.

Egia ere bada, hala ere, Segurtasun Kontseiluak horrelako auzi bati buruz erabakia onartu ahal izateko bederatzi kideren baiezko botoak behar dituela, tartean kide iraunkor guztien baiezko botoak, eta, beraz, kide iraunkor batek aurkako botoa emanez gero blokeatu egingo direla erabakia eta nazioarteko testuan araututako mekanismoen abiaraztea (beto-eskubidea).

Horrela xedatzen du Gutunaren 27.3 artikulua, hau esanez:

“Segurtasun Kontseiluak gainerako gai guztiei buruz erabakiak hartu ahal izateko bederatzi kideren baiezko botoak beharko ditu, tartean direla kide iraunkor guztien baiezko botoak [...]”.

3.2.2. Armen merkataritza buruzko tratatua

Inongo dudarik gabe, nazioarteko bigarren arau bat aztertu beharra dago, hizpide dugun gaian duen garrantziagatik: Armen Merkataritza buruzko Nazio Batuen Tratatua (AMT). Nazioarteko arauzko tresna horren atariko benetan argigarria da berariaz aipatzen duenean tratatuaren abiapuntua dela Nazio Batuen Gutunaren 26. artikulua, zeinaren xedea baita nazioarteko bakearen eta segurtasunaren ezarpena eta iraupena sustatzea, betiere munduko giza baliabideetatik eta baliabide ekonomikoetatik ahalik gutxien desbideratuz armamentuetara, eta bermatzea azken horiek ez direla desbideratuko legez kontrako merkatura edota baimenduta ez dauden amaierako erabilera zein erabiltzaileetara —esaterako, ez direla erabiliko ekintza terroristak burutzeko.

Atarikoan egiten duen ohartarazpen horrekin batera, ordea, tratatuak berretsi egiten du estatu orok eskubide subiranoa duela bere lurraldean soilik dauden arma konbentzionalak arautzeko eta kontrolatzeko, bere sistema juridiko edo konstituzionalarekin bat etorritik. Nazioarteko testuak, aurrekoaz gain, bakearen, segurtasunaren eta giza eskubideen arteko lotura aipatzen du atariko horretan. Beren arauen aplikazio egozia bultzatzen eskualde-erakunde garrantzia ere ez du ahazten testu arauemai horrek, eta EB horietariko bat da.

Jakina, adierazpen horiek Nazio Batuen Gutunaren 51. artikuluekin batera irakurri behar dira. Artikulu horiek adierazten du estatu guztiek berezkoa dutela banakako edo taldeko defentsa legitimorako eskubidea:

51. artikulua: Gutun honetako inongo xedapenek ez du eragotziko defentsa legitimorako berezko eskubide indibidual edo kolektiboa baliatzea, baldin eta eraso armaturen bat egiten bada Nazio Batuetako kide baten aurka, harik eta Segurtasun Kontseiluak nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko neurri egokiak hartzen dituen arte [...].

Hori esanda, egia da aipamen horri beste batzuk ere gehitzen zaizkiola; esate baterako, Genevako 1949ko Hitzarmenekin bat etorritik nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko eta errespetarazteko bete-behar berariazkoa, eta giza eskubideak errespetatu eta errespetaraztekoa.

Armen Merkataritza buruzko Tratatua nazioarteko akordio bat da, bertan parte hartzen duten estatuak lotesten dituen eta arma konbentzionalen eta horien munizioaren merkataritza, joan-etorriak, garraio-aldaketak eta artekaritza erregulatzeko arauak ezartzen dituen. Nazioarteko testuak armen transferentziari buruzko bete-behar zehatz batzuk ezartzen dizkie estatu parte-hartzaileei: armen transferentziak kontrolatzeko sistema bat ezarri eta mantentzea; zenbait arma-transferentzia debekatzea eta zenbait arma-esportazio ez baimentzea; armen inportazioak arautzea; joan-etorriak eta garraio-aldaketak arautzea; armen artekaritza arautzea; betearazpen-mekanismoak ezarri eta mantentzea; beste estatu parte-hartzaile batzuekin informazioa trukatzeko; eta arma-transferentzien erregistroa antolatzea (horren haritik armak aipatzen ditugunean, AMTren 2. artikuluan jasotakoez ari gara).

Beste alde batetik, jabetu beharra daukagu EB dela armen transferentzietan ezarri beharreko kontrolei buruz nazioartean laguntza gehiago eman duten eskualde-erakundeetako bat (beste adibide batzuen artean, Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua eta Kontseiluaren 2018/101/ASPE Erabakia). Ondorio gisa esan dezakegu nazioarteko eremuan jarraitu beharreko eredu dela AMT, aplikazio- eta kontrol-esparru juridiko sakona daukalako indarrean, armen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien esportazioaren inguruan.

AMT aginduzkoa izateari dagokionez, aitortu beharra dago hainbat eta hainbat manutan estatuen esku uzten duela, neurri batean, araua errespetarazteko eta betearazteko ardura. Horrek bide ematen digu pentsatzeko ez ote gauden berez soft law-ko arau baten aurrean, nazioarteko legegilearen ahaleginak gorabehera. Hain zuzen ere horrexek moteltzen ditu haren eraginkortasuna eta araugintzako erantzunaren harmonizazio desiratu, eta azken batean agerian jartzen ditu, gure ustez, lege eta arauen ziurgabetasun juridiko handiagoa eta arauak aplikatuta lor daitekeen emaitzaren aurreikusgarritasun txikiagoa. Izan ere, nazioarteko testuaren eraginkortasun hori estatu parte-hartzaile batek edo/eta eskualde-erakunde batek gaiari buruz izan dezakeen asmo edota ikuspegi zehatzaren mendean geratzen da.

Arauak bere aplikazio orokorra erregulatzen du 5. artikuluan, eta, artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoa albora utzita –“1. Estatu parte-hartzaile guztiek modu koherente, objektibo eta ez-diskriminazionalen aplikatuko dute tratatu hau, bertan aipatutako printzipioak aintzat hartuz”, eta “2. Estatu parte-hartzaile bakoitzak kontrol-sistema nazional bat ezarri eta mantenduko du, kontrol-zerrenda nazionala barne, tratatu honetan xedatutakoa aplikatzeko”–, esan daiteke erregulazioak halako lausotasun bat duela tratatuko estatu bakoitzak zer mekanismo eta sistema ezarri behar dituen zehazteko garaian; eta ondorioz herrialdeek interpretazio harmonizatu gabeak eta zenbaitetan interesatuak egiten dituzte.

Hona zer dioten 5. artikuluko beraren 3. apartatuak: “Estatu parte-hartzaile guztiak adoretzen dira ahalik eta arma konbentzional mota gehienei aplika diezaieten tratatu honetan xedatutakoa”. Ikus daitekeenez, aginduzkotasun edo obligaziozkotasuna moteldu egiten da kasu zehatz honetan.

Nazioarteko arauak baditu, era berean, estatu parte-hartzaileei diskrezionalitate nabarmena eta funtsezko protagonismoa ematen dizkieten testuak. Hala, 5.4 artikulua hau dio kontrol-zerrenda dela-eta: “estatu parte-hartzaile bakoitzak, bere lege nazionalekin bat etorritik, bere kontrol-zerrenda nazionala emango dio Idazkaritzari [...]. Beren kontrol-zerrendak argitara ematera adoretzen dira estatu parte-hartzaileak.

Eta 5. artikulua berak, 5. apartatuan, tratatuko estatuak premiazten ditu tratatuaren xedapenak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten, baina ez du modu harmonizatuan zehazten zeintzuk diren hartu beharreko neurriak. Dudarik gabe, nazioarteko testua negoziatu eta zirriborroak egiteko garaian lortu zen adostasun urriaren isla dira testuaren argitasunik eza eta arau nazionalen zein estatuak banaka duten protagonismoaren etengabeko aipamenak. Eta, jakina, sistema lauso bat ezin daiteke hartu estatu parte-hartzaile bakoitzak bere egoera berezia egokituko duen araugintzako erantzuna aurkitzeko eta antolatzeko aukeratzat, zeren eta, armen transferentzien eta esportazioaren gaineko kontrol-sistema benetan eraginkorra izatea nahi izanez gero, nazioarteko ahalik eta adostasun handienarekin arautu behar bailitzateke.

Izan ere, nazioarteko testuaren arabera, estatu parte-hartzaileek armen eta munizioen esportazioa eta transferentzia arautzeko barneko kontrol-sistema gardena eta eraginkorra antolatu behar dute, beren erantzukizunaren eta kontrolaren pean, eta gainera aipatutako kontrol-zerrenda nazionala sortu eta gainerako herrialde tratatukideen eskura jarri behar dute. Alegia, funtsean helburua da estatu esportatzaileak berak bere burua kontrolatzea nazioarteko merkataritzaren esparru horretan, eta AMTko gainerako estatuak ezin diote zehapenik ezarri, ezta kargurik hartu ere, testu arauemailean ez delako horretarako mekanismorik zehaztu. Barneko kontrol-sistemaren gardentasuna edo eraginkortasuna handiagoa edo txikiagoa izatea, beraz, hura diseinatu behar duen estatuaren esku dago, berak nahi duena egin baitezake sistema hobetzeko edota goragoko estandarrei egokitzeko. Logikoa denez, Europako zuzenbideak osatu egin ditu AMTren hutsune edota gabezia horiek EBrako eta hango estatu kideetarako, eta hori aurrerapen handia da AMTko beste kideek beren herrialdeetan eratu eta ezarri dituzten gainerako sistemen aldean.

Zalantzarik gabe, arma-esportazioak kontrolatzeko sistema eraginkor eta efizientearen ezarpenean oinarritzat hartu behar da lege-esparru juridiko zehatz eta argi bat, armak inportatzeko eta esportatzeko lizentzia eskuratu ahal izateko bete behar diren baldintzak eta prozesu objektiboak finkatzen dituenak. Horrekin batera beharrezkoak dira, jakina, lizentziak edota baimenak emateaz arduratzen diren erakundeen jardura gardena eta publikoa, kontrol-zerrenda nazional publikoa, eta ez-betetzeei erantzunez aplikatu ahal izango den zehapen-sistema atzera-eragilea.

Goian azaldutakoaz gain, ezinbestekoa da erabaki politikoak hartzeko mekanismoak ezartzea, sistema garatzeko aukera juridiko eta instituzional askotarikoei buruz erabaki egokiak har daitezen. Alabaina, lizentzien sistema objektibo, eraginkor eta garden bat gehitu behar zaio aurrekoari, arriskuen ebaluazioak egiteko eta armen esportazio, inportazio edota transferentzietan buruzko erabakiak hartzeko, arloko erakundeekin eta ministerio eskudunarekin koordinaturik. Garrantzitsua da gardentasunean oinarrituta eta beharrezkoak diren berme juridiko eta arauzkoen pean diseinatzea sistema hori, horrela arma-enpresen sektoreak hobeto ezagutuko baititu lege ezartzen zaizkion betebeharrak. Dударik gabe, sistema horrek berak nazioarteko informazio-trukerako eta lankidetzarako mekanismo argiak ezarri behar ditu, eta, horrekin batera, betearazpen-sistema aurreikusgarria eta aginduzkoa diseinatu behar du.

AMTren bitartez funtsean hauxe lortu nahi da: nazioarteko tratatu horretako kide diren estatuak arma konbentzionalen, horien munizioaren, osagaien eta piezen inportazio, esportazio, artekaritza, joan-etorri, garraio-aldaketa edo transferentzia oro debekatzeko, baldin eta transferentzia horiek Nazio Batuen Arma-enbargorekin bat urratzen badute, edo nazioarteko zuzenbideak xedatutakoaren eta estatu parte-hartzaileen betebeharren kontrakoak badira, edota esportatutako armak nahiz haien osagaiak erabiltzekoak badira gizateriaren aurkako krimenak egiteko, genozidiorako, azpiegitura eta pertsona zibilei eraso egiteko, Genevako 1949ko Hitzarmenetan ezarritakoa urratzeko edo nazioarteko zuzenbidean tipifikatutako gerra-krimenak egiteko.

Horrelaxe xedatzen du 6. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan, honako hau esanez:

“1. Estatu parte-hartzaile batek ez du inola ere baimenduko ez 2. artikuluko 1. apartatuan aipatutako arma konbentzionalen ez 3. artikuluan edo 4. artikuluan aipatutako elementuen transferentziarik, baldin eta transferentzia horrek estatu parte-hartzaileari dagozkion betebeharrak urratzen baditu, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluaren arabera jokatzeko hartutako neurriak, batez ere arma-enbargoak, direla-eta.

2. Estatu parte-hartzaile batek ez du inola ere baimenduko ez 2. artikuluko 1. apartatuan aipatutako arma konbentzionalen, ez 3. artikuluan edo 4. artikuluan aipatutako elementuen transferentziarik, baldin eta transferentzia horrek estatu parte-hartzaileari dagozkion nazioarteko betebeharrak urratzen baditu, hura kide den nazioarteko akordioak, batez ere arma konbentzionalen nazioarteko transferentziari edo lege kontrako trafikoari buruzkoak, direla-eta.

3. Estatu parte-hartzaile batek ez du inola ere baimenduko ez 2. artikuluko 1. apartatuan aipatutako arma konbentzionalen ez 3. artikuluan edo 4. artikuluan aipatutako elementuen transferentziarik, baldin eta baimena emateko unean jakitun bada arma edo elementu horiek erabil litezkeela genozidioa egiteko, gizateriaren aurkako krimenetarako, Genevako 1949ko Hitzarmenaren kontrako arau-hauste larrietarako, ondasun zibilei edo zibiltzat babestuta dauden pertsonen eraso egiteko, edo bestelako gerra-krimenak egiteko, estatu parte-hartzaile hori kide den nazioarteko akordioetan tipifikatuak.”

Bestalde, jada 7.1 artikuluan (esportazioari eta esportazioen ebaluazioari buruzkoa) ari garela, eta 6. artikuluan (debekuei buruzkoa) aplikazio-eremuan dauden kasuetatik kanpo, azpimarratu behar da nazioarteko tratatuan parte hartzen duten estatuaren betebeharra dela beren jurisdikzioaren pean baimentzen dituzten arma konbentzional, munizio, pieza eta osagaien esportazioek sor ditzaketen arriskuak ebaluatzea, baimena eman aurretik, betiere. Espainiako armen esportazioan Estatuaren aurrean baliatu beharreko argudioa da hori, esportaziorako baimena emateko eskumena duen organo nazionalak gardentasunez eta modu eraginkorrean balora dezan baimena eman daitekeen ala ez, esportazio horren arriskuak ikertzeko eta ebaluatzeko egin beharreko jarduketak egin ostean.

Hitez hitz hau dio 7.1 artikuluko horrek:

“Esportazioa ez badago 6. artikuluan indarrez debekatuta, tratatuan parte hartzen duen estatu esportatzaile bakoitzak, bere jurisdikzioaren pean arma konbentzionalen [...] edo elementuen esportazioa baimendu baino lehen, [...] eta bere kontrol-sistema nazionalari jarraituz, ebaluatu egingo du, objektibotasunez eta diskriminaziorik gabe, eta faktore egokiak kontuan izanik –besteak beste, 8. artikuluko 1. apartatuarekin bat etorritik estatu inportatzaileak emandako informazioa–, ea: a) Arma konbentzionalak edo elementuek bakea eta segurtasuna honda ditzaketen, edo hondatzen lagundu; b) Helburu hauek erabiltzeko; ii) Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen urratze larriren bat egiteko edo ahalbidetzeko; iii) Estatu esportatzailea partaide duten terrorismoari buruzko nazioarteko konbentzio edo protokoloen indarrez delitu den ekintzaren bat egiteko edo ahalbidetzeko; edo iv) Estatu esportatzailea

partaide duten nazioz haraindiko delinkuentzia antolatuaen aurkako nazioarteko konbentzio edo protokoloen indarrez delitu den ekintzaren bat egiteko edo ahalbidetzeko.

Izan ere, manu hori artikuluko bereko 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoarekin loturik aztertuta, suma daiteke ezin dela armen esportaziorik baimendu goian aipatutako ebaluazioak erakusten badu badagoela arriskurik arma horiek erabil daitezkeen bakea eta segurtasuna hondatu edo makaltzeko edo/eta zuzenbide humanitarioaren urratzeak, giza eskubideenak, genero-indarkeriazko egintza larriak nahiz emakume edo/eta haurren aurkako indarkeriazko egintza larriak edo krimen antolatuari edo/eta terrorismoari buruzko nazioarteko tratatuetan jaso eta araututako delituak egiteko. Zalantzarik gabe, Armen Merkataritzari buruzko Tratatuaren 6. eta 7. artikuluek prebentzioa dute helburu eta ez zigorra, zehapena edo kaltearen ordaina; hau da, etorkizunean giza eskubideen edo/eta zuzenbide humanitarioaren urratzeak gutxitzea dute helburu. Hala ere, berriro esan behar dugu EBk mekanismo bermezaleagoak arautu dituela, esportazioari buruz jarraitu beharreko irizpideak jasotzen dituztenak. Jakina, Armen Esportazioari buruzko EBren Jarrera Bateriaz ari gara, bai eta EBren jarrera bateratu horretan ezarritako 8 irizpideen interpretazioa argitu duten zuzentarau osagarriez ere.

Hain zuzen, Europako erakundeek amaierako erabileraren edo erabiltzailearen gaineko kontrolen inplementazio eraginkorrari buruzko zuzentarau batzuk egin dituzte, eta horien xede edo helburua da transferitu, bidali eta entregatutako ondasun eta salgaien helmugako lekua eta hartzaileak murriztea, arma-esportazioen desbideratzea eragozteko. Hala ere, egia esan, AMTk ez ditu zehazki aipatzen amaierako erabileraren eta erabiltzailearen gaineko balizko kontrolak, nahiz eta espresuki aipatzen duen amaierako erabilerei eta erabiltzaileei buruzko dokumentazioa, 8.1 artikuluan, non honako hau xedatzen baita:

“Tratatuko estatu inportatzaile bakoitzak tratatuko estatu esportatzaileari informazio egokia eta bidezkoa eman dakion bermatzeko neurriak hartuko ditu, bere lege nazionalerik jarraituz, betiere estatu esportatzaileak hala eskatuz gero, 7. artikuluararekin bat etorritik bere esportazioaren ebaluazio nazionala egiten laguntzeko. Neurri horiek barruan hartu ahalko dute amaierako erabilerei edo erabiltzaileei buruzko dokumentazioa ematea.”

AMTren manu horrek armak esportatzen dituen estatuaren eta estatu inportatzailearen arteko lankidetzara jotzen du, eta nahitaezko lankidetzara hori 8. artikuluararen beraren 2. eta 3. apartatuetan azaltzen da, hau xedatzen baitute:

“2. Tratatuko estatu inportatzaile bakoitzak neurriak hartuko ditu, bere jurisdikziopean 2. artikuluararen 1. apartatuko arma konbentzionalen inportazioak arautu ahal izateko, bidezkoa denean. Neurri horiek barruan hartu ahalko dituzte inportazio-sistemak.

3. Tratatuko estatu inportatzaile bakoitzak informazioa eskatu ahalko dio tratatuko estatu esportatzaileari, eskatuta edo emanda dauden esportazio-baimenei buruz, tratatuko estatu inportatzaile hori azken xede-herrialdea denean.”

Manu horietan hitzez hitz xedatutakoa ikusita, funtsean ondoriozta daiteke nazioarteko tratatuko kide diren estatuak, arma konbentzionalak inportatzerakoan, informazioa eska diezaioketela tratatuko kide den estatu esportatzaileari, eskatuta edo emanda dauden esportazio-baimenen inguruan. Beste alde batetik, ordea, kontuan hartu behar da, AMTren 15.1 artikuluan (“Nazioarteko lankidetzara”) xedatutakoaren arabera, estatuak elkarlanean jardun behar dutela tratatuaren aplikazio eraginkorra lortzeko, baldin eta lankidetzara hori ez bada bateraezina estatu bakoitzak segurtasunaren arloan dituen interesekin eta bakoitzaren barne-arauetan ezarritakoarekin. Nolako lankidetzara garatu behar den zehazten du 15. artikuluko 2., 3., 4., 6. eta 7. apartatuetan, baina betebeharrak eman gabe bertan xedatutakoari, behin eta berriz erabiltzen baitu “adoretu” terminoa. Beraz, nazioarteko arauak beste behin ere albora uzten du horrelako nazioarteko testu batek behar lukeen aginduzko izaera, eta testua asmoen adierazpen huts bihurtzen da ia-ia, gai zehatz honi dagokionez.

15.2 artikulua: Estatu parte-hartzaileak adoretzen dira nazioarteko lankidetzara [...] informazio trukea [...] ahalbidetu ditzaten.

15.4 artikulua: Estatu parte-hartzaileak adoretzen dira elkarlanean jardun dezaten, beren lege nazionalerik bat etorritik, tratatu honetako xedapenak eremu nazionalerik aplikatzen laguntzeko [...]

15.7 artikulua: Estatu parte-hartzaileak adoretzen dira elkarrekin esperientziak eta informazioa trukea ditzaten tratatu honetako edozein gairen inguruan lortutako eskarmentuari buruz.

Zalantzarik gabe, manuak idazteko modu horrek agerian uzten du ez dela egon estatuaren arteko lankidetzari buruzko orientazio zehatzik eta, argi eta garbi, tratatuko estatu batetik bestera diferentzia nabarmenak daudela inportazioak kontrolatzeko jardunbidean. Hala eta guztiz ere, AMT saiatzen da, herrialde bakoitzeko estatuaren barne-interesek eskaintzen duten tarte zurrun horren barruan, esportazio-prozesuaren gardenetasuna sustatzen. Horrela hauteman daiteke 7. artikulua 6. eta 7. apartatuetan arma-esportazioei buruz estatu esportatzailearen, estatu inportatzailearen eta iraganbide edo garraio-aldaketako estatu kideen artean informazioa hedatzeari buruz xedatutakoaren irakurketa konbinatua eginda. Neurri horrek nazioarteko testuaren 11. artikuluan arautzen diren desbideratze-kasuak gutxitzen laguntzen du.

AMTk, lehenago ohartarazi dugun bezala, transferitutako eta esportatutako armen, horien munizioaren eta osagarrien desbideratzea eragozteko beharrezkoak diren neurriak hartzea behartzen ditu estatu parte-hartzaileak. Desbideratze terminoak, izan ere, berariazko aipamena egiten die transferitutako armek desiragarri ez den azken erabiltzaile edo erabilera baterantz desbideratuta amaitzen duten kasuei. Jabetu beharra daukagu, gainera, desbideratze gehienak helmugako emate-egintzan bertan edo hura gauzatu eta berehala gertatu ohi direla edo gerta litezkeela, legez kontrako jardueren ondorioz (lapurretak, dokumentuen faltsifikazioa, edota esportatutako armen hartzaileak nahiz amaierako erabiltzaileak berriz transferitzea arma horiek).

Hau dio 11.1 artikulua:

“Tratatuko estatu bakoitzak, 2. artikulua 1. apartatua azaltzen diren arma konbentzionalen transferentzia batean parte hartzen duenean, haien desbideratzea eragozteko neurriak hartuko ditu.”

Beste alde batetik, AMTren 11. artikulua 2. apartatua, desbideratzea saihesteko edo behintzat mugatzeko eta, hala behar denean, desbideratze horren kontrako erantzuna antolatzeke har daitezkeen neurrien zerrenda dakar. Horien artean, azpimarratzeko neurria da, dudarik gabe, egin beharreko esportazio zehatza desbideratzeko arriskuak ebaluatzea eta transakzioan/esportazioan parte hartuko duten alderdiak kontrolatu edo aztertzea, dokumentu, ziurtagiri eta berme gehigarriak aurkez ditzatela eskatzea, eta, araua betetzeko beharrezkoa balitz, esportaziorako baimena ukatzea. Horrenbestez, ondoriozta daiteke nazioarteko tratatuko kide diren estatuak ebaluatu egin behar dutela egitekoak diren esportazioetan armak desbideratzeko arriskua.

Horrela xedatzen du aipatutako 11.2 artikulua, honako hau dioenean:

“Estatu esportatzailea arma konbentzionalen transferentziak desbideratzeko arriskua saihesten ahaleginduko da, [...] esportazioa desbideratzeko arriskua ebaluatuz eta arintze-neurriak ezartzeko aukera aztertuz. Esaterako, konfiantza sustatzeko neurriak ezar daitezke, edo estatu esportatzaileak eta inportatzaileak batera prestatu eta adostutako programak. Beste prebentzio-neurri batzuk har litezke hala behar denean: esportazioan parte hartzen duten alderdiak aztertzea, dokumentazio gehigarria, ziurtagiriak edo bermeak eskatzea, esportaziorako baimenik ez ematea edo beste neurri egoki batzuk ezartzea.”

Arlo honetan, dudarik gabe, gardentasuna eta estatu inportatzaileen, esportatzaileen eta garraio-aldaketako zein iraganbideko estatuaren arteko informazio-trukea lagungarriak izan daitezke aipatutako transferentzietan desbideratze-arriskua gutxitzeko, 11. artikulua 3. apartatua ohartarazten duen moduan. AMTko kide den estatu batek arma-transferentziaren baten desbideratzea detektatuz gero honelako neurriak har ditzake, besteak beste, eta betiere bere lege nazionalen eta nazioarteko zuzenbideari jarraituz: desbideratze horrek eragin diezaiekeen estatu tratatukideak jakinaren gainean jartzea, arma konbentzional horien bidalketa desbideratuak aztertzea, edo/eta jarraipen-neurriak ezartzea ikerketaren eta legearen aplikazioaren arloan, 11.4 artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik.

AMTko kide diren estatuak desbideratzea mugatzeko edo are hari aurrea hartzeko elkarrekin trukatu behar duten informazioan hainbat datu sar litezke, AMTren 15.5 artikulutik ondorioztatzen denez: legez kontrako jarduerak, ustelkeria barne; nazioarteko trafikoaren ibilbideak, legez kanpoko bitartekariak, legez kontrako hornidura-iturriak, ezkutatzeko metodoak, edo armak desbideratzen jarduten duten talde antolatuek erabiltzen dituzten bidalketa-gune nahiz helmuga komunak.

Halaber aipatu beharra dago AMTk baduela manu bat nazioarteko testu horretan jasotako xedapenak betearazteko mekanismoaren ezarpenari buruzkoa. Hain zuzen, AMTren 14. artikulua tratatuko kide diren estatuak agintzen die neurri egokiak ezar ditzatela testuan jasotako xedapenen exekuziorako lege eta erregelamendu nazionalak betearazteko. Helburua da, azken batean, detektatu eta eragozteko baimenik ga-

beko transferentziak, AMTk ezarritako arauak betetzen ez dituztenak; gerta litezkeen urratzeak ikertu eta epaitzea, eta AMTko kide diren gainerako estatuekin elkarlanean aritzea arauaren betearazpen ahalik eta bateratuena lortzeko.

Amaitzeko, AMTko kide diren estatuen artean tratatuaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen gatazkak ebazteko mekanismoa azpimarratu behar da. Gatazkak ebazteko mekanismo hori tratatuaren 19. artikuluan dago ezarrita, eta, nahiz eta mekanismo benetan iradokigarria izan nazioarteko merkataritzaren eta nazioarteko merkataritza-zuzenbidearen arloetan nazioen artean sor daitezkeen gatazkak ebazteko, ez dirudi auziak konpontzeko modurik egokiena denik nazioarteko bakearekin eta segurtasunarekin zuzeneko zerikusia duen arlo batean. Egia da, era berean, tratatuak proposatzen duen aukeraren ordezkia Nazio Batuen Segurtasun Kontseilura jotzea dela, zeren eta, aldebiko diplomaziak porrot egiten badu 19.1 artikuluan aipatzen diren neurriekin (negoziazioak, bitartekotza, adiskidetzea, konponbide judiziala –zein jurisdikziotan, baina?– edo bakezko beste bide batzuk), agian ez bailitzateke konponbiderik egokiena izango horrelako ezaugarriak dituen gatazka bat alderdien arteko adostasunez arbitrajepean jartzea.

Hau ezartzen du 19.2 artikulua:

“Tratatuko estatuek, elkarren arteko adostasunez, arbitrajepean jarri ahal izango dute tratatu honen interpretazioaren edo aplikazioaren inguruan haien artean sortutako edozein gatazka.”

3.3. Europako arau multzoa

3.3.1. 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua eta 2018/101 (ASPE) Erabakia

Europar Batasunak teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko taxutu duen sistemaren oinarria Kontseiluaren 2008ko abenduaren 8ko 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua da. Armen Esportazioari buruzko Jokabide Kodea, Kontseiluak 1998ko ekainaren 8an onartua, du iturburua, eta eguneratu eta ordeztu egiten du.

Jarrera bateratu horrek bere xedea eta helburua zein diren argi eta garbi adierazten du 4. eta 5. kontuan hartuzkoetan. Lortu nahi den helburu nagusia da, lehenik, barneko errepresiorako edo nazioarteko erasoetarako erabil daitezkeen edo/eta eskualde bateko ezegonkortasuna areagotu dezaketen teknologia eta tresneria militarren esportazioa galaraztea. Bigarrenik, lankidetzaren sendotu egin nahi da eta konbergentzia bultzatu eta sustatu teknologia eta tresneria militarren esportazioaren sektorean, atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen esparruan. EBko erakundeak jabeturik daude beharrezkoa dela estatuek elkarrekin koordinaturik ekitea teknologia eta tresneria militarren esportazioen kontrolari. Hori esanda, ez da ahaztu behar estatuek autodefentsarako eskubidea dutela, gorago aztertutako Nazio Batuen Gutunaren arabera, eta, horrenbestez, nazioarteko testu horrekin bateragarriak eta beharrezkoak diren autodefentsarako baliabideak transferitzeko eskubidea ere badutela. Hala, bada, jarrera bateratu horretan aitortzen da orobat estatuen asmoa dela defentsarako industria-sektorea mantentzea, azken batean Europako sektore horretako teknologia eta industria sendotzen eta, horrekin batera, Europako segurtasun- eta defentsa-politika erkidea gauzatzen lagundu behar baitu.

Jarrera bateratu horren aurrekaria armen merkataritzari buruz nazioartean ezarritako lehenengo jokabide-kodea izan zen, bere arloan osoenetarikoa. Ezer baino lehen azpimarratu behar da teknologia eta tresneria militarren esportazioei buruz indarrean dagoen Europako testua testu juridiko lotesletzat jotzen dela. Testu arauemaile horrek bere egin ditu aurrekoak ezarritako irizpide guztiak, eta zenbait berrikuntza erantsi ditu, estatu esportatzaileak armen azken helburua egiaztatu beharra eta estatu hartzaileak nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatu beharra direla-eta.

Jarrera bateratuak irizpide sail bat arauten eta egituratzen du. EBko estatu kideek aintzat hartu behar dituzte irizpideok, EBren Zerrenda Militar Bateratuan jasotako gaiak esportatzeko aurkez daitezkeen lizentzia-eskaeretak bakoitza ebaluatzeko garaian. Zerrenda hori estatu kideetako teknologia eta tresneria militarren zerrenda nazionalerako erreferentziatzat hartzen da.

Jarrera bateratuaren aplikazioa erraztearren, erabilizailearen gida ezarri zen, hura aplikatzeko eta haren irizpideak interpretatzeko adostutako orientabideak biltzen dituen. 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuak horrelaxe ezartzen du 13. artikuluan, honako hau adierazten baitu:

“Tresneria militarren esportazioari buruzko Europar Batasuneko Jokabide Kodearen gida, zeina aldian behin berrikusten baita, jarrera bateratu hau aplikatzeko orientabidetzat hartuko da.”

Jarrera bateratuak teknologia eta tresneria militarren esportazioetarako diseinatu duen sisteman, ohartarazi dugun bezala, zortzi irizpide baloratu behar ditu esportazioetarako baimena edo/eta esportazio-lizentzia emateko edo ukatzeko eskumena daukan organoak. Hala ere, oraintxe bertatik esan behar dugu ez zaie la zortzi irizpideei aginduzkotasan gradu bera esleitzen, horrek izugarri zailtzen duela irizpideen aplikazio harmonizatua eta eraginkorra, eta estatu kideei gai askotan nahierara jokatzeko aukera ez batere makala eskaintzen diela. Horrek nola edo hala eragin negatiboa du emaitzaren aurreikusgarritasunean eta segurtasun juridikoan.

Testu juridikoan jasotako lehenengo irizpideek kontuan hartzen du ea estatu kideek nazioarteko konpromiso eta betebeharrak betetzen dituzten, batez ere Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak edo Europar Batasunak ezarritako zehapenak, ez ugaritzeari buruzko akordioak eta nazioarteko beste betebeharrak batzuk. Eta bigarren paragrafoan adierazten digu esportazioetarako lizentzia edo baimena ukatu egin behar dela baldin eta eskaera onartzea ez bada bateragarria estatu kideen nazioarteko betebeharrekin eta haiek Nazio Batuen, Europar Batasunaren eta Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundearen arma-enbargoak errespetatzeko hartu dituzten konpromisoekin, edo Arma nuklearrak ez ugaritzeari buruzko Tratatuaren, Bakterio eta toxinen bidezko armeei buruzko Konbentzioaren eta Arma kimikoei buruzko Konbentzioaren arabera estatu kideek dituzten nazioarteko betebeharrekin, edo pertsonen kontrako inolako minarik ez esportatzeko estatu kideek hartutako konpromisoarekin, edo Australiako Taldearen, Minen teknologia kontrolatzeko Araubidearen, Zangger Batzordearen, Hornitzaile Nuklearren Taldearen, Wassenaarko Konponketaren eta Misil balistikoak ugaritzearen aurkako Hagako Jokabide Kodearen esparruan estatu kideek hartutako konpromisoekin. Irizpide horren testutik ondoriozta daiteke estatu kide guztietan agintari eskudunek nahitaez eta ezinbestez ukatu behar dutela esportazio-lizentzia, nazioarteko konpromiso horiekin bateraezina izanez gero.

Bestalde, 2. irizpidea –ea amaierako xede-herrialdeak giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzen dituen– testu guztiz konplexu eta iluna da, nolabait adierazten duena kalifikazio desberdina dagokiela kasu edo egoera batzuei eta besteei. Horrela indarra kentzen dio tresna arauemaileak hasiera batean itxuraz ardaztat hartzen zuen sistema bermezale eta babesleari. Hala, estatu kideei eskatzen zaizkien trataera juridikoa eta zorrotasuna ez dira berdinak a) letrako kasuan eta b) letrako kasuan.

Izan ere, 2.a) irizpideak adierazten digu herrialde hartzaileak giza eskubideen babeserako nazioarteko bitartekoei buruz duen jarrera ebaluatu ondoren estatu kideek nahitaez ukatu behar dutela esportazio-baimena baldin eta ageriko arriskua badago esportatu beharreko teknologia edo tresneria militarra hark barne-errepresiorako erabil dezan (hau da, barne-segurtasuneko helburuekin, torturatzeko, tratu edo zigor ankerra, gizagabea eta laidogarria emateko, exekuzio sumario edo arbitrarioetarako, desagerrarazteetarako, atxilotze arbitrarioetarako, eta nazioarteko testuetan aitortutako oinarrizko askatasunen eta giza eskubideen urratze larrietarako), eta 2.b) irizpideak adierazten digu, aldiz, estatu kideek zehaztasun eta arreta bereziz aztertuko dutela –kasuz kasu, eta teknologia edo tresneria militarren motaren arabera– ea lizentzia eman behar zaien ala ez giza eskubideen urratze larriak, Nazio Batuetako, EBko edo Europako Kontseiluko erakunde eskudunek egiaztatutako, egin dituzten herrialdeei. Beraz, zalantzarik gabe, eraginkortasuna murrizten ari zaio jatorrian jarduketa-mekanismo harmonizatua eskaintzea xedetzat zuen sistemari.

Funtsean, 2. irizpideko a) eta b) letrak irakurri eta alderatu ondoren, zera suma daiteke, nazioarteko edo/eta eskualdeko erakunde horiek egiaztatutako dituzten giza eskubideen urratze larriek barne-errepresioarekin zerikusirik ez duten kasuetan ez dagoela debekatuta armak esportatzea giza eskubideak urratzen ari den herrialdera edo estatua eta egin ere egin daitekeela, baldin eta estatu esportatzaileak egokitzen jotzen badu. Horrek ez du esan nahi, ordea, kontu horrek eraginik ez duenik EBko atzerri- eta segurtasun-politika erkidean eta kasua bada Europako Kontseiluak jarrera hartzea beharrezkoa ez denik.

Aurrekoa azaldu eta gero, gogora ekarri behar da, halaber, Europako Kontseilua estatu kideetako estaturu edo gobernuburuak osatzen dutela, besteak beste (Europar Batasunaren Tratatuaren 15.2 artikulua), berari dagokiola Batasunaren interes estrategikoak erabakitzea eta atzerri-, segurtasun- eta defentsa-politika erkidearen helburuak eta ildo nagusiak ezarri eta zehaztea (EBTren 26.1 artikulua), defentsa-politika erkidea atzerri- eta segurtasun-politika erkidean txertatuta dagoela eta Europako Kontseiluak aho batez hartu behar dituela hari buruzko erabakiak (EBTren 42.1 eta 42.2 artikulua). Gehitu beharra dago segurtasun- eta defentsa-politika erkideari buruzko erabakiak ere aho batez hartu behar dituela Kontseiluak (EBTren 42.4 artikulua).

Azkenik, 2. irizpideak berak, c) letran, berriro ematen dio agindu-indarra bertan jasotakoari. Izan ere, letra horrek dioenez, estatuak, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren gaineko nazioarteko tresnei dagokienez herrialde hartzaileak duen jarrera ebaluatu ondoren, ukatu egin behar dute esportazio-lizentzia baldin eta

ageriko arriskua badago esportatu beharreko teknologia edo tresneria militarra nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urratze larriak burutzeko erabil dadin. Hala ere, letra horren hasierako zatiaren agindu-indarra gorabehera, egia da, era berean, letraren bigarren zatian arauzko kontzeptu zehaztugabe edo, gutxienez ere, erabat subjektibo bat jasotzen dela, kasuan kasuko estatu kide esportatzailearen esku uzten baita ageriko arriskuaren kontzeptuaren balorazioa edo haztapena.

Hirugarren irizpideak, berriz, aginduzkotasuna berreskuratzen du argi eta garbi xede-herrialdearen barneko egoera baloratzerakoan, tirabira edo gatazka armatuak izateari dagokionez. Gatazkarik egonez gero, estatu kideek ukatu egin behar dituzte teknologia edo tresneria militarra esportatzeko lizentziak, gatazka armatuak eragiten edo luzatzen badituzte edota lehendik dauden tirabirak eta gatazkek larriagotzen badituzte amaierako xede-herrialdean.

Laugarren irizpideak zerikusia du eskualdeko bakeari, segurtasunari eta egonkortasunari eustearekin, eta azpimarratu behar da hibridoa dela, 2. irizpidearen antzera, baina badituela zenbait berezitasun, eta bertan nahasi egiten direla aginduzko hitzak eta halako leuntze edo haztatze bat adierazten dutenak. Hala, egia da arauak adierazten duela estatu kideek esportazio-lizentzia ukatu egin behar dutela baldin eta ageriko arriskua badago aurreikusitako hartzaileak beste herrialde bati eraso egiteko edo lurralde-aldarrikapen bat indarrez inposatzeko erabil ditzan esportatu nahi diren teknologia edo tresneria militarrek, baina egia da, era berean, bigarren paragrafoan leuntze- edo haztatze-elementu batzuk jasotzen dituela, are arauzko kontzeptu guztiz lausoren bat edo beste, agindu-indarra murrizten dietenak testu juridikoari eta irizpideari berari. Hain zuzen, honako hau adierazten du: *[..] arrisku horiek aztertzean, estatu kideek kontuan hartuko dituzte honako inguruabar hauek, besteak beste: a) herrialde hartzailearen eta beste baten artean gatazka armaturik baden edo gerta litekeen; b) auzo-herrialderen baten lurraldea beretzat eskatzen duen [..]; c) teknologia edo tresna militarrek hartzailearen segurtasun nazional eta defentsa legitimoaz bestelako xedeetarako erabil litezkeen; d) eskualdeko egonkortasunari kalte handirik ez egiteko beharra.*

Funtsean, leuntze/haztatze irizpide horrek eta “*eskualdeko egonkortasunari kalte handirik ez egiteko beharra*” bezalako kontzeptu juridiko zehaztugabeek estatuei aukera ematen diete jokoan dauden interesak aurrez aurre jartzeko eta lehentasun handiena haletako zeini eman erabakitzeko.

Hortik aurrera, jarrera bateratuan bildutako gainerako irizpideek, garbiro eta aginduzkotasun arrastorik gabe, tratatuko estatu esportatzaileen esku uzten dute esportazio-lizentzia ematerakoan aurrez aurre egon litezkeen interesak haztatzea, baimen edo lizentzia hori ematea edo ez ematea erabakitzeko. Alegia, esportatzaileen interesen, merkataritzako interesen, harreman diplomatikoen eta aliantza estrategikoen ondoan edo horiekin batera hazta daitezke giza eskubideak edo horien urratzeak –betiere urratzeok ezin badira barne-errepresiotzat jo– edo are tratatuko beste estatu batzuek segurtasunaren eta defentsaren arloan dituzten interesak, beste gauza batzuen artean.

Illo horretatik egituratu zen arau erkideko 5. irizpidea, aintzat hartzen dituena estatu kideen segurtasun nazionala, kanpo-harremanak estatu kideren baten ardurapean dituzten lurraldeena eta adiskide edo aliatu diren herrialdeena. Irizpide horrek bigarren paragrafoan honako hau jasotzen du berariaz: “*Estatu kideek kontuan hartuko dute: a) esportatzeakoak diren teknologia edo tresneria militarrek nolako eragina izan dezaketen beren segurtasunean eta defentsan eta beste estatu kideen edo herrialde adiskide nahiz aliatuen interesetan, aldi berean aitortuz faktore horrek ezin duela eragin giza eskubideen eta eskualdeko bakearen, segurtasunaren eta egonkortasunaren errespetuari buruzko irizpideen aintzatespenean; eta b) kasuan kasuko teknologia edo tresneria militarrek beren indarren aurka edo beste estatu kide eta herrialde adiskide edo aliatu batzuen indarren aurka erabiltzeko arriskurik ba ote dagoen*”.

Nabari daitekeenez, irizpide hori ihes-klausula edo salbueste-klausulatzat ere jo liteke, zeren eta, a) letratik ondorioztatzen denez, estatuak kontuan hartu eta haztatu egin behar baitute esportatu beharreko arma eta teknologiek beren segurtasunean eta defentsan izan dezaketen eragina. Izan ere, irizpide bikoitza da, hots, arau murriztailetzat interpreta daiteke baldin eta EBko estatu kide batek nahiz estatu esportatzailearen adiskide edo aliatu den estatu batek aliatu ez duen edo/eta arerio duen bati zuzentzen bazaio esportazioa; eta aldi berean izaera hedakorra du, edo, behintzat, sensu contrario irakurketa batean arma-esportazioa zuzentzeko bidea emango luke estatu esportatzailearen edo/eta EBko kide den beste estatu baten aliatu edo/eta adiskide baten segurtasunari eta defentsari lotutako arrazoiengatik, nahiz eta hark giza eskubideak urratu, betiere urratzea barne-errepresioa deituaren ondorio ez bada.

Seigarren irizpideari dagokionez (estatu eroslearen portaera nazioarteko erkidegoarekiko, eta, batez ere, terrorismoari buruz duen jarrera, dituen aliantzen izaera eta nazioarteko zuzenbidearen errespetua), testuak

estatu kideei adierazten die kontuan hartu beharko dutela inguruabar hori esportaziorako baimena edo lizentzia eman aurretik, baina ez ditu behartzen lizentzia edo baimen hori ukatzera; beraz, haztapen-irizpide subjektiboa ezartzen da berriz ere. Zehazki, kontuan hartu behar da herrialde erosleak zer aurrekari dituen terrorismoaren eta nazioarteko delinkuentzia antolatua babes edo sustapenari dagokionez; errespetatzen ote dituen bortxa ez erabiltzeari buruz bere egin dituen nazioarteko konpromisoak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa edo/eta armak ez ugaritzeari eta armagabetzeari buruz dituen konpromisoak.

Aurreko irizpidearen pareko ildoari eusten dio 7. zenbakiak, teknologia edo tresneria militarra herrialde eroslearen barruan desbideratzeko edota behar ez bezalako baldintzetan beste batera esportatzeko arriskua aipatzean. Deigarria da berriz ere, desbideratzearekin eta esportazioarekin zerikusia duen gai zehatz honetan, zeina AMTren arabera armen esportazioaren kontrolean funtsezkoa baita, estatu kideak jarraitu beharreko irizpidea izatea balorazio subjektibo bat, ea herrialde hartzailean zer nolako eragina izango ote duen esportatutako teknologia eta tresneria militar horrek eta zenbaterainoko arriskua dagoen teknologia edo tresneria militar hori okerreko azken hartzaile baten eskuetara eta okerreko erabilera batera desbideratzeko.

Kontuan izanda, batez ere, ebaluazioa egin eta esportaziorako lizentzia edo baimena eman edo ukatzeko ardurua duen estatu-agintaritzak aintzat hartu beharreko haztapen-irizpide batzuk ezartzen direla, eta hauek direla irizpide horien ardatzak: herrialde hartzailearen defentsaren eta segurtasunaren arloko interes legítimoak (Nazio Batuak bezalako nazioarteko edo/eta eskualdeko erakundeen baitan bakeari eusteko kanpainetan edo jardueretan parte hartzea barne); herrialde hartzaileak teknologia edo/eta tresneria militarra erabiltzeko duen gaitasun teknikoa; herrialde hartzaileak esportazioa eraginkortasunez kontrolatzeko duen gaitasuna; eta esportatutako materiala behar ez diren lekuetara edo/eta erakunde terroristengana berriz esportatua izateko arriskua (horretarako kontuan hartuko da estatu inportatzailearen historia).

Amaitzeko, zortzigarren eta azken irizpideari dagokionez (teknologia edo tresneria militarren esportazioak herrialde hartzailearen ahalmen ekonomiko eta teknikoarekin bateragarriak izatea, kontuan izanik komeni dela estatuak beren segurtasun- eta defentsa-beharrizan legítimoak ase ahal izatea armamentuetara giza baliabide eta baliabide ekonomiko ahalik eta gutxien desbideratuta), beste behin ere irizpidea ez da aginduzkoa, berariaz jasotzen duelako estatu kideek berek haztatu beharko dutela, eskualdeko eta nazioarteko erakundeengandik –Munduko Bankua, NDF edota Nazio Batuak, besteak beste– datorren informazioaren arabera, ea eskatutako baimen edo lizentziaren xede den esportazioak kontuan hartzeko oztipoa izan litekeen herrialde hartzailearen garapen jasangarriarako. Irizpidearen lehenengo paragrafo horrek esaldi hau du osagarri: “[...] Testuinguru horretan bereziki kontuan hartuko dituzte gastu militarren eta sozialaren mailak, eta kontuan hartuko dute EBren aldeko edozein laguntza ere”. Horrek adierazten du estatu kide esportatzaileak subjektibotasun handiz egin dezakeela aipatutako haztapena.

Jakina, goian azaldutako horretatik ondoriozta daiteke jarrera bateratuak aginduzkotasuna eta haztapena/subjektibotasuna konbinatzen dituela bere irizpide gehienetan. Salbuespen bakarra 1. irizpidea da agian, bertan nabarmena baita nahitaezkotasuna. Gainerako irizpideetan beti hautematen da tartean diren interesak haztatu egin daitezkeela, inguruabar edo/eta gertakizun jakin batzuen balorazioaren bitartez, eta horrek erakusten du subjektibotasun-maila handia onartzen dela esportaziorako baimena edo lizentzia emateari buruzko erabakia hartzean. Horren harira esanguratsua da jarrera bateratuaren beraren 10. artikulua. Honako hau dio,

“Nahiz eta estatu kideek, bidezkoa denean, kontuan hartu ahal izango duten, halaber, nola eragingo dieten proposatutako esportazioek beren interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrialei, faktore horiek ez dute eraginik izango aurrean azaldutako irizpideen aplikazioan.”

Izan ere, manu horretan xedatutakoa ikusirik ondoriozta daiteke interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrialak haztapen-irizpideak direla eta aintzat hartu behar dituela kasuan kasuko estatu kidean esportaziorako lizentzia emateko eskumena duen agintariak, hura eman behar duen ala ez baloratzeko garaian. Hori zuzenean lotuta dago gorago aipatutako 13. kontuan hartuzkoarekin. Baina egia da, era berean, aipatutako 10. artikulua bigarren zatian berariaz jasota dagoela honako hau: “Faktore horiek ez dute eraginik izango aurrean azaldutako irizpideen aplikazioan”. Beraz, ondorioztatu behar da, gure iritziz, interes horiek ez direla kontuan hartu behar aginduzkotasun agerikoa islatzen duten irizpideetan edo irizpide zatietan. Funtsean hauxe ohartarazten du arauak: irizpidea edo irizpidearen zati bat aginduzkoa eta nahitaez bete beharrekoa denean, estatu kideko agintaria behartuta egongo da esportaziorako baimena edo lizentzia ukatzera balio-judizio subjektiborik gabe eta inolako haztapenik aplikatu gabe. Haztapenerako aukera ematen duten irizpideetan edo irizpide zatietan jasotako kasuetan, aldiz, interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrialak aintzat hartuko dira esportaziorako baimena edo lizentzia emateko edo ez emateko erabakia baloratzean, eta hain zuzen ere horixe gertatzen da 2.b, 4., 5., 6. eta 7. irizpideetan eta, azkenik, 8. irizpidean.

Laburbilduta, Europako testuak estatu kideei aukera ematen die, kasua denean, interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrial deitutakoak lehenesteko, bigarren mailan utzita honako hauek: giza eskubideen errespetua, barne-errepresioaren ideiaz kanpo; eskualdeko bakeari, segurtasunari eta egonkortasunari eustea; estatu kideen segurtasun nazionala, kanpo-harremanak estatu kideren baten ardurapean dituzten lurraldeena eta adiskide edo aliatuena; herrialde erosleak nazioarteko erkidegoarekiko duen jarrera edo jokabidea; behar ez den desbideratze edo/eta berresportazioen bat gertatzeko arriskua; eta teknologia edo tresneria militarren esportazioen eta herrialde hartzaileak duen ahalmen ekonomiko eta teknikoaren arteko bateragarritasuna.

Beste alde batetik, egia da, era berean, estatu kideek arau nazional zorrotzago eta bermezaleagoak taxutu eta aplikatu ditzaketela beren esportazioetarako, bi material motei dagokienez (armak edo/eta defentsarako materiala, eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia) . Europako sisteman, ordea, irizpen edo interpretaziorako halako tarte bat ageri da, eta horrek aplikazio aldakorra ahalbidetzen die estatuei, nolabaiteko zorrotzasun falta duena.

Hori esanda, jabetu beharra dago, halaber, EBko estatu kideen atzerri- eta segurtasun-politika erkidea gobernuen arteko kontua dela nabarmenki, eta izaera horren ondorioz itzuri egiten diola Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren kontrol judizialari. Izan ere, arau orokor gisa, atzerri- eta -segurtasun politika erkidearen (ASPE) esparruan onartzen diren legegintza eta araugintzako egintzak ez dira EBko jurisdikzio-organo gorenaren kontrol judizialaren pean jartzen. Hori ez da oztopo aipatutako arau-esparru hori nazioarteko zuzenbide publikoko arauen pean egoteko eta nazioarteko jurisdikzio-organo baten kontrol juridikoaren xede izateko.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 275.1 artikulua hau adierazten du berariaz,

“Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du edukiko eskumenik atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen inguruko xedapenez erabakitzeko, ez horretan oinarrituta onartutako egintzei buruz erabakitzeko ere.”

3.3.2. 428/2009 Erregelamendua

Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamendua erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen du (EBAO, L 134, 2009ko maiatzaren 29koa); aldatuta dago Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 1232/2011 (EB) Erregelamendua bidez (EBAO, L 326, 2011ko abenduaren 8koa), Batzordearen 2016ko irailaren 12ko 2016/1969 (EB) Erregelamendu Delegatuaren bidez (EBAO, L 307, 2016ko azaroaren 15koa) eta Batzordearen 2018ko urriaren 10eko 2018/1922 (EB) Erregelamendu Delegatuaren bidez. Azken horrek ordeztu egiten ditu 428/2009 Erregelamendua I. eranskina (Europar Batasunean kontrolen pean dauden erabilera bikoitzeko produktuen zerrenda erkidea), II. eranskina (esportaziorako baimen orokorre buruzkoa da, eta esportaziorako baimen orokor nazionalak eta Europar Batasunaren aplikatzeko eremutik kanpo utzi behar diren erabilera bikoitzeko produktuen zerrenda dakar) eta IV. eranskina (Erkidegoaren barruko zenbait transferentzia baimentzeko betekizunak).

Zuzenean aplikatzeko araua da, eta helburutzat du araubide erkide eraginkorra aplikatzea erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko, EBko estatuen nazioarteko erantzukizunak eta konpromisoak betetze aldera (1. artikulua). Zentzuzkoa denez, EBn horrelako sistema erkide bat antolatzeak erabilera bikoitzeko produktuen zirkulazio librerako aukera ematen du EBren barruan.

Egia da, hala ere, arau horrek Teknologia eta tresneria militarren esportaziorako Jarrera Bateratuaren ildoari jarraitzen diola eta estatu kideei egozten dizkiela erabilera bikoitzeko produktuak esportatzeko eskaerari buruz erabakia hartzeko eta ondorioz baimena edo lizentzia eman edo ukatzeko eskumena eta erantzukizuna. Hori bai, Europako arauak erabilera bikoitzeko produktuen eta horien xedeen zerrenda erkideak egotearen mende jarri nahi du sistemaren eraginkortasuna. Testu arauemaile horrek ohartarazten du, bestalde, arreta berezia jarri behar zaiela produktuaren berresportazioari, desbideratzeari eta azken erabilerari, AMTk (9. kontuan hartuzkoa) desbideratzeari buruz arma konbentzionaletarako araututakoaren ildoan.

Gogora bedi erregelamendua 2. artikulua xedatutakoaren arabera erabilera bikoitzeko produktuak direla bai erabilera zibilak eta bai militarrik izan ditzaketen produktuak –euskarri logikoa (softwarea) barne– eta teknologiak; tartean, bai lehergaiz bestelako erabileretarako eta bai arma nuklearrak edo bestela-

ko lehergailu nuklearrak fabrikatzen laguntzeko erabil daitezkeen produktu guztiak. Aurrekoarekin lotuta, horrelako produktuak erregelamenduaren I. eranskineko zerrendan egonez gero, baimena beharko da haiek esportatzeko (3. artikulua).

Testu arauemaileak erregelamenduaren I. eranskineko zerrendan ez dauden erabilera bikoitzeko produktuetara hedatzen du aplikazio-eremua, alegia, produktu horiek esportatu ahal izateko baimena eskatu behar da baldin eta herrialde eroslea edo/eta xede-herrialdea arma-enbargo baten pean badago EBk zein ESLEk hala erabakita edo Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen lotesle baten ondorioz, betiere esportatu beharreko produktuek erabilera militarra izan badezakete (4.2 artikulua).

Erregelamenduaren 8. artikulua berak berariaz aipatzen du estatu kideek eskumena dutela I. eranskineko zerrendan ez dauden erabilera bikoitzeko produktuen esportazioa debekatzeko eta horien esportaziorako betekizunak ezartzeko, segurtasun publikoaren inguruko arazoak edo/eta giza eskubideen urratzeak direla-eta.

Aurrekoa esanda, 9. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aipatzen du EB osoan direla baliozkoak estatuko agintari eskudunak emandako esportazio-baimenak. Hortaz, beste behin ere nabarmentzen da estatu-agintariak erabateko protagonismoa dutela erabilera bikoitzeko produktuen esportaziorako lizentzia edo baimena emateko. Hain zuzen ere, 9. artikulua EBko estatu kide guztietarako modu homogeen eza ez duen kontrol-mekanismo bakarra 6. apartatuan jasotakoa da; bertan ezarritakoaren arabera, estatu guztiek erabilera bikoitzeko produktuetarako esportazio-baimenak emateko eta erabilera bikoitzeko produktu ez europarren joan-etorriak debekatzeko eskumena duten estatu-agintarien zerrenda eman behar diote Batzordeari.

Aurrekoaren antzeko hitzekin, erregelamenduaren 10.1 artikulua argi eta garbi adierazten du baimenak emateko eskumenen erabateko lagapena egiten zaiela EBko estatu kideetako agintari edo organo eskudunei, artekaritza-zerbitzuen prestazioaren arloan.

Azken batean, berriro ikusten dugu Europako arau ez dagoela aginduzkotasun edo nahitaezkotasunez jantzirik, bere zatirik handiengan, eta gaiaren gaineko eskumen osoa egozten zaiela estatu kideei; are gehiago, haztapan-faktore eta araugintzako kontzeptu juridiko zehaztugabeak eranstean dira, zenbaitetan arau zehatz baten aginduzkotasuna itxuraz eztitu edo leundu egiten dutenak. Horixe pentsa liteke erregelamenduaren 12. artikulua irakurrita, honako hau adierazten baitu:

“Esportaziorako baimen orokor edo banakako bat edo artekaritza-zerbitzuak egiteko baimen bat eman behar den ala ez erabakitzean, erregelamendu honi jarraituz, estatu kideek kontuan hartuko dituzte **egoki diren inguruabar guztiak**, eta batik bat honako hauek: a) armak ez ugaritzeko [...] eta esportazioak kontrolatzeko nazioarteko erregimenei atxikita [...] edo nazioarteko tratatuak berretsita bakoitzak bere gain hartu dituen betebeharrak eta konpromisoak [...]; b) Kontseiluak, [...] ESLEK [...] edo Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak ezarritako zehapenen ondorioz bakoitzak dituen betebeharrak [...]; c) atzerri- eta segurtasun-politika nazionalaren ingurukoak . [...]”

Azpimarratu behar da, azkenik, Europako arau horren 13. artikulua EBko estatu kideei eta estatu-agintari eskudunei eskatzen diela EBko erakundeen eta gainerako estatu kideen esku jar dezatela baimenak ukatzeari buruzko informazio egokia. Horrela, lehenengo estatu kide batean erabilera bikoitzeko produktu bat esportatzeko baimena ukatu eta bigarren estatu kide batean berriro eskatzen bada baimen hori, bigarren estatu kide horrek aurretiazko ukatze horren berri izango du eta baimena zergatik ukatu den jakingo du.

3.3.3. Europar Batasunean arma-esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzeari buruzko gogoetak

EBn armen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzea estu lotuta dago Europako segurtasun- eta defentsa-estrategia esaten zaion horrekin. Dударik gabe EBk askotariko erronkak ditu parean: suntsipen handiko armen ugaritzea; nazioarteko terrorismoa; eskualde-gatazkak; estatuen zatiketa; delinkuentzia antolatua; gizakien salerosketa (bereziki emakumeek eta haurrek pairatzen dutena); brexit-arekin piztutako Europar Batasunik Eza; Europar Batasuneko estatu kideetan azaldu diren eskuin-muturreko alderdi euroeszeptikoen gorakada, eta, horrekin guztiarekin batera, arma kontentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen kontrol gabeko zirkulazioak nazioarteko segurtasun eta egonkortasunari, bakeari, giza eskubideei eta zuzenbide humanitarioari egiten dien kaltea. Arazo horiek ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna sortzen ari dira, eta egoera horrek atzerri- eta segurtasun-politika eraginkorra eta behin betikoa eskatzen du EB osorako.

EBk eta haren erakundeek gaur egun nazio elkarte aurreratuena osatzen dute, armagabetzeko, armak ez ugaritzeko eta armamentua kontrolatzeko alde anitzeko tratatuak eta sistemak orokortzearen, osorik aplikatzearen eta betetzearen aldeko konpromiso sendoena daukana. Horren isla garbia izan zen EBk 1998ko ekainaren 5ean onartutako Jokabide Kodea. Testu horrek armen esportaziorako nazioarteko sistemarik zorrotzena ezarri zuen, arma konbentzionalen legezko merkataritzari buruzko irizpide erkideak zehaztuta. Gorago esan dugunez, haren adierazle nagusia gaur egun 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua da, zeinak Erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko 428/2009 Erregelamendua baitu osagarri.

Hain zuzen ere EBk hirugarren herrialdeei laguntzeko programak sustatu izan ditu gaiari buruzko legeria nazionalaren sorrera edo gardentasunerako neurrien sustapena bezalako esparruetan. Jarrera bateratuaren beraren 11. artikulua estatu kideei adere ematen die hirugarren estatu esportatzaileak bultzatzen dituzten jarrera bateratu horretan jasotako zortzi irizpideak beren esportazioetan ezarri eta aplikatzera.

AMTren eta jarrera bateratuaren aplikazio konbinatuak nazioarteko esparru juridiko funtsezkoa sortzen du, egin beharreko esportazioen arriskuen ebaluaziorako aintzat hartzekoa, eta EBk berariaz babestu du AMTn dauden xedapenen aplikazio orokorra, haren unibertsalizazioa sustatuz eta gardentasun handiagoa eta erantzukizunaren areagotzea bilatuz armen zein erabilera bikoitzeko produktuen esportazioetan. Horretarako baliatu izan ditu, adierazi dugun bezala, Kontseiluaren 2013/768/ASPE eta 2017/915 erabakietan (hurrenez hurren AO, L 341, 2013ko abenduaren 18koa, eta AO, L 139, 2017ko maiatzaren 30ekoa) jasotako programak, besteak beste.

Kontseiluak oraintsu hartutako 2018ko urtarrilaren 22ko 2018/101 (ASPE) Erabakiak, kontrol eraginkorrak sustatzeari buruzkoak, 1. artikuluan islatzen du Europako erakundearen nahia dela gero eta eskumen gehiago erreklamatzeko arlo horretan. Izan ere, honako hau xedatzen du:

“1. Bakea eta segurtasuna sustatzearren, eta Segurtasunerako Europako Estrategiarekin bat etorritik, Europar Batasunak helburu hauek izango ditu: a) hirugarren herrialdeek egiten dituzten arma-esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzea, 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua eta Armen Merkataritzari buruzko Tratatuan ezarritako printzipioei jarraituz [...] b) nazio- eta eskualde-mailan hirugarren herrialdeen ahaleginak babestea arma konbentzionalen merkataritza arduratsua eta gardenagoa lortzeko eta baimendu gabeko erabiltzaileen eskuetan armek duten arriskua arintzeko. 2. Europar Batasunak helburu horietara begira jardungo du [...] honako jardura hauek bilduko dituen proiektu baten bidez: [...] b) hirugarren herrialdeei laguntza ematea arma konbentzionalen esportazioen kontrolen sistema eraginkor bat bermatzea xede izango duten legegintza- eta administrazio-neurri egokiak prestatzeko; [...] d) herrialdeei laguntza ematea bakoitzak bere arma-industria nazionala susta dezan eta esportazioen kontrolei buruzko araudia bete dezan; e) armen nazioarteko merkataritzan gardentasuna eta erantzukizuna sustatzea, arma konbentzionalen esportazioen gardentasuna eta azterketa sustatzeko nazio- eta eskualde-mailako neurriak babestuz, bereziki; [...] g) armek sortzen duten arriskua gerora aztertu eta arindu dadin sustatzea, hala inportazioaren ikuspuntutik nola esportazioarenetik.”

Zalantzarik gabe, EBk nazioartean arlo honetan azaltzen duen planteamenduak multilateralismo eraginkorra du ardatz, eta estrategia horretan bermatzen ditu bere segurtasun- eta defentsa-politikaren koherentzia eta eraginkortasuna. Jakina da behar adinako adostasunik gabe nazioarteko ekintza juridiko-politiko batek modu esponentzian murrizten duela bere helburua lortzeko ahalmena (kasu honetan arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen kontrol gabeko ugaritzea eta haiek erabiliz giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren kontra egiten diren urratzeak gutxitzea da helburua).

Hala eta guztiz ere, bistan denez, arma konbentzionalak eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuak salduz diru-sarrerara itzelak lortzen dira, eta armamentuaren nahiz erabilera bikoitzeko teknologiaren ikerketa eta garapenak etekin ederrak dakartza. Zalantzarik gabe, faktore horien eraginak barne-gatazkak zein nazioartekoak desorekatu ditzake, eta hori guztia oztupo izan daiteke herrialdeetako, Europako eta nazioarteko araudi zorrotzagoa sustatzeko garaian. Baina, egia esan, armamentuaren beste sektore batzuetarako (arma kimikoak, biologikoak eta nuklearrak) nazioarteko kontrol-esparru juridikoa askoz zorrotzagoa eta sakonagoa da, suntsipen handiko armen esportazioak kontrolatzeko indarrean dauden nazioarteko tresnek halakoak eskualdatzea, edukitzea eta salerostea debekatzen baitiete estatu gehienei. Edo, are arma konbentzionalen arloan, pertsonen aurkako minen salerosketari, fabrikazioari eta biltegiatzeari aplikatu beharreko nazioarteko araubide juridikoa askoz murriztaileagoa eta bermezaleagoa da.

Laburbilduz, ondorioztatu behar da, azaldutakoa gorabehera, eta aurreko guztia azterturik, Europako 1998ko Jokabide Kodea birmoldatuz 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua sortzea funtsezko urratsa izan zela Europar Batasunean armen esportazioak kontrolatzeko esparru juridikoaren garapenean. Inondik ere kontrol-sistema aurreratua da, segurtasun juridiko handiagoa errazten duena.

Hala ere, egia esan, Europako erakundeek berek aitortzen dute hura etorkizunean hobetuz joateko beharra. Hala adierazi dute Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuak (teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko arau erkideak definitzen dituena) 8. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoari jarraituz hogeigarren urtez egindako txostenean. Urteko txosten hori EBAOn argitaratu da (C 453/1, 2018ko abenduaren 14koa) eta bertan jaso da Europar Batasuneko erakunde eta organoetatik etorritako informazioa.

Armen esportazioa dela-eta, txostenak berariaz ezartzen ditu lehentasunezko orientabide batzuk, "Arma konbentzionalen esportazioa" izeneko taldeari emanak etorkizun hurbilerako. Orientabide horiek azpimarratu egiten dute beharrezkoa dela, besteak beste, lankidetzaz indartzea eta konbergentzia sustatzea teknologia eta tresneria militarren esportazioen esparruan, 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuarekin bat etorritik, EBko esportazioen kontrolaren arloko politika sendotzeko, barnean hartuta estatu kideen arteko informazio-trukea, eta AMTren aplikazio eraginkorra eta orokortasuna babesteko; eta jarrera bateratuan ezarritako irizpideak aplikatzera bultzatzen ditu armak esportatzen dituzten estatuak.

3.4. Estatuako arau multzoa

3.4.1. Abenduaren 28ko 53/2007 Legea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa, eta abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua, defentsa-materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko erregelamendua onartzen duena

3.4.1.1. Administrazio-baimenen tipologia

Armen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo/eta produktuen kanpo-merkataritzari buruz indarrean dauden estatu-arauak honako hauek dira: 53/2007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa (2007ko abenduaren 29ko BOE, 312. zk.), eta hura garatzen duen erregelamendua, hots, 679/2014 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, defentsa-materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko erregelamendua onartzen duena (2014ko abuztuaren 26ko BOE, 207. zk.).

Barne-arau horrek oinarrizko hiru kategoriatan sailkatzen ditu arautzen dituen produktuak edo materialak. Hala, 1. artikulua, legearen xedeari eta helburuari buruzkoak, adierazten duenaren arabera, legeak aztergai ditu defentsarako materialak, beste material batzuk (polizialak eta segurtasunekoak, horiek defentsarako materialaren kontzeptutik kanpo geratzen baitira, 3. artikulua xedatzen duenez), eta erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak.

Baimenak emateko araubideari dagokionez, ohartarazi behar da ez dagoela transferentziarako administrazio-baimenik lortu beharrik Espainiako Estatuako Indar Armatuak edo Segurtasun Indar eta Kidegoek atzerrian egiten dituzten maniobra edo misioetan erabiltzekoak diren materialen esportazioetarako, aipatutako legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldiz, aurretiazko administrazio-baimena eskatuko da defentsarako materialaren aldi baterako edo/eta behin betiko esportazioak eta bidalketak egiteko, erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien esportazioak eta bidalketak egiteko, erabilera bikoitzeko produktuen erabilerari buruzko laguntza teknikorako eta armen artekaritzako zerbitzu edo eragiketarako. Horrela ematen du aditzera 57/2007 Legearen 4. artikulua eta 679/2014 Errege Dekretuaren 2. eta 20. artikuluen irakurketa konbinatuak.

Aipatutako produktuen transferentziak egiteko administrazio-baimenen modalitateak arautzen ditu 679/2014 Errege Dekretuak. Hala, bada, mota hauetako baimenak eman daitezke: a) defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko banakako lizentzia (22. artikulua); b) defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko lizentzia orokorra (23. artikulua); c) defentsarako materialaren transferentzia-proiekturako lizentzia orokorra (24. artikulua); d) erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak Europar Batasunetik

esportatzeko baimen orokorrak (25. artikulua); e) artekaritzarako baimena (26. artikulua); f) defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko aurretiazko erabakia (27. artikulua); g) defentsarako materiala Erkidegoaren barruan transferitzeko lizentzia orokorra (28. artikulua); eta h) defentsarako materialaren osagaiak transferitzeko lizentzia orokorra (29. artikulua).

Defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko banakako lizentziak, 22. artikulukoak, lizentziadunari ahalmena ematen dio lizentziapeko material, produktu eta teknologien bidalketa bat edo batzuk egiteko, baimenean finkatutako gehieneko kopurua gainditu gabe, hartzaile jakin bati, edo herrialde jakin batetik abiatuta, 12 hilabeteko epean. Hala ere, esportatzaileak eskaera arrazoitua aurkeztuz gero, bi luzapen onartu ahalko dira gehienez ere, hasierako lizentziak izan duen baliozkotasun-epe bererako, aurrekoaren iraungitze-datatik aurrera zenbatuta.

Defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko lizentzia orokorrari dagokionez, esan behar da titularrari ahalmena ematen diola baimendutako materialen nahi adina bidalketa egiteko hartzaile bati edo batzuei, edo/eta zehaztutako xede-herrialde batetik edo batzuetatik, kasua bada, baimendutako gehieneko balioa gainditu gabe eta 3 urteko epean. Mota horretako lizentzia orokorra, ordea, honelako eragiketarako bakarrik eman daiteke: a) enpresa nagusiaren eta bere filialetako baten artekoa, edo enpresa beraren filial batzuen artekoa; b) fabrikatzailearen eta banatzaile esklusiboaren artekoa; eta c) kontratu baten barrukoa, baldin eta kontratu horrek esportatu edo bidali nahi den materialaren jario komertzial erregularra eragiten badu esportatzailearen eta azken erabiltzailearen artean.

Beste alde batetik, defentsarako materialaren transferentzia-proiekturako lizentzia orokorra dela-eta, ohartarazi behar da defentsarako materialarekin zerikusia duten esportazioei baino ezin zaiela aplikatu. Baimendutako materialaren nahi adina bidalketa egin ditzake lizentzia horren titularrak, hartzaile bati edo batzuei edo xede-herrialde batera edo gehiagotara, horiek zehaztuta, baimendutako gehieneko balioa gainditu gabe eta 3 urteko indarraldiaren barruan. Hala ere, esportatzaileak eskaera arrazoitua aurkeztuz gero, bi luzapen onartu ahalko dira gehienez ere, hasierako lizentziak izan duen baliozkotasun-epe bererako, aurrekoaren iraungitze-datatik aurrera zenbatuta.

Defentsarako materialaren transferentzia-proiekturako lizentzia orokor hori honako esportazio-eragiketeta hauek egiteko eman daiteke:

- a) Armamentuaren arloko lankidetzaprograma batetik eratortzen direnak, 2000ko uztailaren 27ko Esparru Akordioaren ildotik, zeinak garatu egiten baitu Europako defentsa-industria berregituratzeko eta integratzeko Asmoen Gutuna, 1998ko uztailaren 8koa; edo armamentuaren arloko nazioarteko beste lankidetzaprogramaren batetik eratortzen direnak, Espainiako Gobernuak programa hori bermatzen badu eta Espainian kokatutako enpresaren batek bertan parte hartzen badu. Hauek joko dira armamentuaren arloko lankidetzaprogramatzat: nazioarteko akordio edo hitzarmenen bat dela bide estatu bik edo gehiagok, defentsarako materiala edo lotutako defentsazerbitzuak eskuratzeko xedez, batera egiten dituzten jarduerak; besteak beste, azterketa, ebaluazioa, balorazioa, ikerketa, diseinua, garapena, prototipogintza, ekoizpena, hobekuntza, eraldaketa, mantentze-lanak, konponketa eta diseinuaren osteko beste zerbitzu batzuk.
- b) Defentsarako materiala garatzeko edo ekoizteko gobernuz kanpoko programaren baten ondoriozko eragiketak, programa horretan parte hartzen badute Espainian kokatutako «defentsaren arloko nazioz haraindiko enpresa» batek edo gehiagok, aipatutako esparru-akordioaren 2.o) artikuluko definizioaren arabera, eta, betiere, enpresa horiek Defentsa Ministerioaren baimen-egiaztagiria badute, programa horrek esparru-akordioan ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazten duena.
- c) Industria-lankidetzaren garapenaren lehenengo fase batean, ekipamendu eta osagaien esportazioak, bidalketak eta inportazioak, fase horretan parte hartzen duten enpresen artekoak.
- d) Defentsarako materialaren transferentzia-proiekturako lizentzia orokorrean hasiera batean deskribatu diren materialei konponketak, probak eta homologazioak egiteko aldi baterako egiten diren itzulketak, esportazio eta bidalketak eta inportazioak.

Erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak Europar Batasunetik esportatzeko baimen orokorreari dagokienez, esan beharra dago halakoak 428/2009 (EE) Erregelamenduan eta horren aldaketetan ezarritakoaren bidez arautuko direla. Europako araudian xedatutakoa betetzeaz gain, esportatzaileak idazkia bidali beharko dio Merkataritzako Estatu Idazkaritzari, lehenengo transferentzia baino hamar egun lehenago, gutxienez. Bertan adierazi beharko du baimen orokorren prozedura horri atxikitzen zaiola eta berariaz konpro-

misoa hartzen duela 679/2014 Errege Dekretuaren 25.2 artikuluan ezarritako betebeharrak betetzeko; besteak beste, soil-soilik baimendutako produktuak baimendutako xedeetara esportatzeko, eta prozedura horren bitartez egiten dituen esportazioetan beharrezkoa den dokumentazioaren banakako kudeaketa egiteko.

Artekaritzarako, berriz, idatzizko baimena eman beharko du Merkataritzako Estatu Idazkaritzak, eta aurretik txostena emango du Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritza Arautzeko Ministerioarteko Batzordeak (JIMDDU). Operadoreak informazioa eman behar du eskualdatu beharreko materialen, produktuen edo teknologiez, tartean diren pertsona fisiko edo juridikoez, jatorri- eta xede-herrialdeez, iraganbideko herrialdeez, garraio-metodoz eta erabiliko den finantzaketaz.

Defentsarako materiala, beste material batzuk eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologiak transferitzeko aurretiazko erabakia ez da berez baimen bat, transferentziarako lizentziaren beharra egongo delako aurretiazko erabaki horren ondoriozko eragiketak gauzatu ahal izateko. Transferitzeko aurretiazko erabakiak esan nahi du Administrazioa hasiera batean ados dagoela erabakiaren ondoriozko eragiketekin. Hura eska daiteke, herrialde jakin batera edo herrialde jakin batetik transferentzia egiteko proiekturen bat dagoenean, sinatu den edo negoziatzen ari den akordio edo kontratu baten ildotik, baldin eta exekuzio-epea oso luzea bada. Aurretiazko erabakiak 3 urteko indarraldia izango du gehienez, baina, salbuespenez, indarraldi luzeagoa baimendu ahal da. Programa zehatzei buruzko eragiketarako baliatu ohi dira luzapenak.

Beste alde batetik, defentsarako materiala Erkidegoaren barruan transferitzeko lizentzia orokorrak hornitzaileari ahalmena ematen dio defentsarekin zerikusia duten produktuen nahi beste bidalketa egiteko, epe mugarik gabe, hartzaile bati edo gehiagori eta honako herrialde hauetako batera edo gehiagotara: EBko herrialdeak, Islandia, Liechtenstein eta Norvegia. Zentzuzkoa denez, horrelako lizentzien ezaugarria da EBren barruan defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitzeko terminoak eta baldintzak sinplifikatzea.

Azkenik, defentsarako materialaren osagaiak transferitzeko lizentzia orokorrak titularrari ahalmena ematen dio defentsarako materialen osagai, azpisistema eta ordeko piezen kopuru mugagabea esportatzeko, bai eta horiei lotutako zerbitzuak ere, zehaztuta dauden hartzaile edo/eta herrialdeetako batera edo gehiagotara, baimendutako gehieneko balioa gainditu gabe eta hiru urteko indarraldiaren barruan.

3.4.1.2. Baimena ematea eta kontuan hartu beharreko irizpideak

Eskaerak ezesteari eta emandako esportazio-baimenak eten edo indargabetzeari dagokionez, 53/2007 Legearen 8. artikulua horretarako zehaztuta dauden kasu batzuk azaltzen ditu; hona:

- a) Arrazoizko zantzuak daudenean uste izateko defentsarako materiala, beste material batzuk edo erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak munduan nahiz eskualde batean bakea, egonkortasuna edo segurtasuna asaldatuko duten ekintzetan erabil daitezkeela, ezkutuan dauden tentsio eta gatazkak biziagotu ditzaketela, gizakiari zor zaion begirunearen eta dagokion duintasunaren aurka, barne-errepresiorako edo giza eskubideak urratzen dituzten egoeretan erabil daitezkeela, transferitutako materialak desbideratu izan dituztela egiaztatuta dagoen herrialdeetara joango direla edota Espainiak bere gain hartutako nazioarteko konpromisoak urra ditzaketela. Arrazoizko zantzurik badagoen erabakitze-ko, kontuan hartuko dira Espainiak parte hartzen duen nazioarteko erakundeek defentsarako materialaren transferentziei eta eragiketa horien azken xedeari buruz egiten dituzten txostenak, Nazio Batuetako giza eskubideen arloko organoen eta beste erakunde batzuen txostenak, garapenaren, armagabetzearen eta giza eskubideen arloetan itzal handia duten erakunde eta ikerketa-zentroek emandako informazioa, eta armen esportazioari buruz Europar Batasunaren Jokabide Kodearen Erabiltzailearen Gidak deskribatzen dituen jardunbide egoki eguneratuena.
- b) Defentsa nazionalaren eta Estatuko atzerri-politikaren interes orokorrak urratzen direnean.
- c) Europar Batasunaren baitan adostutako gidaleroak urratzen direnean; batik bat, 1998ko ekainaren 8ko Jokabide Kodean armen esportazioari buruz jasotako irizpideak, ESLEk arma txiki eta arinei buruzko 2000ko azaroaren 24ko agirian ezarritako irizpideak, eta Espainiak sinatu dituen nazioarteko beste xedapen garrantzitsu batzuk. Jokabide Kodean dauden irizpideak aplikatzeko, Erabiltzailearen Gidan deskribatutako jardunbide egoki eguneratuenei jarraituko zaie.
- d) Nazioarteko zuzenbidetik eratortzen diren mugak –hala nola Nazio Batuek eta Europar Batasunak agindutako enbargoak errespetatzeko betebeharra, beste batzuen artean– urratzen direnean.

Antzeman daitekeenez, legearen 8.1 artikulua horrek zenbait arau-kontzeptu zehaztugabe jasotzen ditu eta ondorioz sistemak zenbait hutsune ditu, ziurtasun eta aurreikusgarritasun falta eragiten dutenak. Egia esan,

hori ez da harrizkekoa, zeren eta 8.1 artikulua errepikatu egiten baitu EBren Jokabide Kodeak –hau da, gaur egun, arestian iruzkindutako jarrera bateratuak– gaiari buruz dioena. Hala, manuak ez ditu argi zehazten edo mugatzen zenbait kasu, esportazio-eragiketatarako baimena ukatzeko, eteteko edo/eta indargabetzeko kontuan hartu behar direnak.

Ohar bedi baimena ukatu, eten edo/eta indargabetu ahal izateko “arrazoizko zantzuak” izan behar omen direla honako hauen inguruan: munduan edo eskualde batean bakea, egonkortasuna edo segurtasuna asaldatuko duten ekintzak; ezkutuan dauden tentsio edo gatazkak biziagotzeko bidea ematen duten esportazioak; defentsa-materialak barne-errepresiorako edo giza eskubideak urratzen dituzten egoeretan erabiltzea; transferitutako materialak desbideratu izan dituztela egiaztatuta dagoen herrialdeak izatea esportazioaren xede; eta, azkenik, esportazioak defentsa nazionalaren eta Estatu atzerri-politikaren interes orokorrak urratzea. Zalantzarik gabe, irizpide hori guztiz lausoa da, ziurtasun juridikorik eza eragiten du eta baimenak nork bere iritzia araberak emateko aukera handia sortzen du.

Hala ere, aurrekoa azalduta, esan beharra dago lege horrek eta bera garatzen duen erregelamenduak kontrol- eta gardentasun-neurriei buruzko kapitulu bana eta atal bana dituztela. Argi eta garbi hitz egiten da esportazioen gaineko kontrol parlamentarioaz legearen 16.1 artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduaren 19. artikuluan. Ildo horretan, Gobernuak sei hilean behin Diputatuen Kongresuari informazio egokia bidali behar dio defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren azken erreferentzia-aldiko esportazioei buruz, honako hauek adierazita, gutxienez ere: esportazioen balioa xede-herrialdearen eta produktuaren ezaugarrien arabera, laguntza teknikoak, produktuaren azken erabilera, azken erabiltzailearen izaera (publikoa edo pribatua), eta ezetsitako eskaerak. Gainera, urtean behin Turismo eta Merkataritzako estatu-idazkariak Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordearen aurrean agertu behar du defentsa-materialaren eta erabilera bikoitzeko produktuen azken erreferentzia-aldiko esportazioari buruzko estatistiken berri emateko (legearen 16.2 artikulua eta garapen-erregelamenduaren 19.2 artikulua). Horren ostean, Defentsa Batzordeak irizpena emango du jasotako informazioari buruz, eta hurrengo urtean aintzat hartzeko gomendioak erantsiko ditu (legearen 16.3 artikulua eta garapen-erregelamenduaren 19.3 artikulua).

Antzeman daitekeenez, horrelako esportazio-eragiketen kontrol parlamentarioarako mekanismo bat ezartzen da eta Defentsa Batzordeak gauzatzen du mekanismo hori. Azpimarratu behar dugu, hala ere, kontrol-mekanismo hori urtean behin abiarazten dela, baimenak jada emanda daudelarik. Beraz, haren eraginkortasuna eta efikazia oso mugatuak dira: kontrol testimonial hutsa da, zurruna, aurrez erabakitako esportazio-baimena berbideratzeko, indargabetzeko edo eteteko ekintza-tarterik ematen ez duena.

3.4.2. Apirilaren 5eko 9/1968 Legea, sekretu ofizialei buruzkoa

Sekretu Ofizialei buruzko Legea dela-eta, armen eta erabilera bikoitzeko produktuen esportazioari dagokionez, ohar laburra egin beharra dago: haren 2. artikuluan ezartzen denez, “sailkatutako gai izendatu ahalko dira baimendu gabeko pertsonen eskuetan Estatuaren segurtasunari edo defentsari kalte egin diezaizketen edo hura arriskuan jar dezaketen aferak, egintzak, agiriak, informazioak, datuak eta objektuak”.

Lege beraren 4. artikulua ezartzen du, bestalde, Ministro Kontseiluak eta Estatu Nagusiko Buruen Batzordeak eskumena izango dutela gai jakin bat sekretutzat, isilpekotzat edo sailkatutako gaitzat kalifikatzeko. Horrela, bada, ohartarazi beharra dago jada Ministro Kontseiluaren 1986ko azaroaren 28ko Erabakiak “isilpeko”tzat sailkatu zituela, bigarren puntuan, armamentuaren, munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpena, erosketa, hornidura eta garraioa. Hori dela-eta, aipatu behar da Ministro Kontseiluaren 1987ko martxoaren 12ko Erabakiak sekretutzat sailkatu zituela Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritza Arautzeko Ministerioarteko Batzordearen aktak.

Lege beraren 10.2 artikulua salbuespen bat jasotzen du, ordea, eta benetan interesgarria da, honako hau xedatzen baitu: “[...] Sailkatutako gaien izendapenak ez die eragingo Diputatuen Kongresuari eta Senatuari; horiek beti eskuratu ahal izango dute eskatzen duten informazio guztia, bakoitzak bere erregelamenduan zehazten den moduan, eta, hala behar denean, bilkura sekretuetan”. Beraz, Diputatuen Kongresuaren edota Senatuaren jarrera aktibo bat “sailkatutako gaien” kontrolerako mekanismo baliagarria izan daiteke. Baina ganbera horietan erabakitzen denaren mende egongo da, eta babes parlamentario nahikoa edo gutxienekoa beharko du.

Ministro Kontseiluaren 1986ko azaroaren 28ko Erabakia aztertuta, ezin da hortik atera inolako argudio edota interpretaziorik ulertu ahal izateko zergatik irizten zaion Estatuaren defentsa eta segurtasunerako arriskutsua munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpenaren, erosketaren, horniduren eta garraioen berri jakiteari. Hori

horrela, argi dago armen eta teknologiaren edo/eta erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak sustatzea negozio etekintsua dela, Estatuan diru-sarrera handiak lortzea ahalbidetzen duena. Ez da ahaztu behar Estatuko armamentu-industriaren arlo militarreko garapen eta berrikuntzak sektoreko enpresen lehiakortasuna eta, horrenbestez, ekoizpen hobia eta errentagarriagoa errazten dituela. Ondorioz esan behar dugu halakoak isilpean jartzea edo sailkatutako gaitzat kalifikatzea, praktikan, esportazioa sustatzeko politikako beste tresna bat balitz bezala planteatzen dela.

Amaitzeko, aztergai izan dugun legeak armen transferentzia eta esportazioen publizitateaz ohartarazten duenaren aipamen laburra egin daiteke. Sekretu Ofizialei buruzko Lege horren 9. artikuluko bigarren apartatuak honako hau dio: “[...] Sailkatutako gai batek bide ematen duenean uste izateko gerta litekeela hedabideek haren berri jakitea, gai sekretu edo isilpekotzat sailkatuta dagoela jakinaraziko zaie hedabideei”. Artikulu hori testu arauemaile beraren 13. artikuluari lotuta interpretatu behar da, eta azken horrek, argi eta garbi adierazi arren debekatuta dagoela sailkatutako gaiak jakinaraztea, hedatzea edo argitaratzea eta hala eginez gero zigor arloko ondorioak edo zehapenak sortuko direla, ez du eragozpen handiagorik planteatzen hedabideetan gai horien zabalkundea modu ohikoan egiteko.

3.5. Giza eskubideak Europar Batasunean. Arauketa eta mekanismoak

Aurrekoa azaldurik, eta jakinik arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen esportazioa nazioarteko bakearen eta segurtasunaren zaintzaren esparruan kokatu behar dela –hau da, segurtasun-arloko politiken eremuaren barruan–, egia da, era berean, irizpen honetan nahitaz egin behar zaiola aipamen laburra Europar Batasunean indarra duen giza eskubideen babeserako sistemari, zehazte aldera pertsonak edo/eta herritarrek lege eta arauetan eta jurisdikzioan zer mekanismo dituzten eskura beren giza eskubideen defentsa antolatzeke, eskubideok urratzen diren kasuetan.

Giza eskubideak sustatu eta babestea nazioarteko komunitatearen lehentasunetako bat izan da azken urte hauetan, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1994ko 48/141 Ebazpenetik ondorioztatzen denez. Gaur egun gai hori arautzen duen nazioarteko arau multzoak dioenez, giza eskubideak sustatzeko eta errespetatzeko betebeharrak erga omnes izaera du. Izan ere, nazioarteko komunitateko estatu guztiei eragiten die, eta, ondorioz, edozein estatuk du ahalmena beste bati errespetu hori eskatzeko, giza eskubideen urratze larri baten aurrean, urratze hori nonahi egiten dela eta ukitutako pertsonen nazionalitatea edozein dela ere.

Arestian aztertu dugun Nazio Batuen Gutuneko hitzaurrea benetako abiapuntua da nazioarteko ekintza erabakigarriak aktibatzeke eta giza eskubideak nazioartean aintzatesteko, berrespenaren erreferentzia berriazkoa jasotzen baitu hitz hauetan: “gizakiaren oinarritzko eskubideetan, pertsonaren duintasunean eta balioan, gizonen eta emakumeen eskubideen berdintasunean sinestea”. Logikoa denez, berrespen horretarako, ohartarazi dugun bezala, beharrezkoa izan da aintzatespen- eta babes-ekintza juridiko arauemaileak egitea, nazioarteko hitzarmenak eta adierazpenak onartuz. Lan horrek, dudarik gabe, lehenengo oihartzuna izan zuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta, geroago, Nazio Batuen 1966ko Nazioarteko Itunetan. Hemen ohartarazi behar da, ordea, adierazpen unibertsal hori, nahiz eta alor horren geroko garapenean ez bairik gabeko garrantzia izan duen testua izan, ez dela berez estatuak zuzenean bete beharreko testu arauemailea. Ondorioz, saihestu egin behar da zabaldua dagoen praxi ezegokia, nazioarteko testu hori zuzenean aldarrika daitekeen eta nahitaz aplikatu behar den arautzat hartzen duena.

Europako lurraldean giza eskubideak babesteko hainbat sistema daude, eta bakoitzak bere eremu geografikoan dihardu. Hona: Europako Kontseiluak diseinatutako sistema; Europar Batasunak giza eskubideak babesteko diseinatutako sistema; eta azkenik, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeak (ESLE) diseinatutako sistema.

Dudarik gabe, aurreko horietatik ondoriozta dezakegu Europako Kontseiluak diseinatutako sistema dela inongo zalantzarik gabe garrantzi handienekoa, eta bera islatzen du Giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenak, Erroman 1950eko azaroaren 4an eginak. Europako Kontseiluko kide diren estatu guztiak daude nazioarteko testu horren mendean, eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia (GEEA) babes horren bermatzailea da. Izan ere 1950eko hitzarmena funtsezko tresna da gizaki guztiak babesteko (GEEAren 1995eko martxoaren 23ko Epaia, Loizidou v. Turkia auzia).

1950eko Erromako Hitzarmenak GEEAren jatzeko diseinatu zuen sistema giza eskubideak babesteko sistema jurisdikzional bat da, estatuak gai horren inguruan planteatzen dituzten auziez eta auzitegirako zu-

zeneko sarbidea duten partikularrek planteatzen dituzten auziez arduratzen dena. Hain zuzen ere, GEEA-rengana jotzeko sisteman bi sarbide bereizten dira: a) estatuen arteko demandak planteatzea, eta b) banakako demandak planteatzea, zeinak pertsona fisikoek, gobernuz kanpoko erakundeek edo partikularren taldeek aurkez baititzakete, Erromako Hitzarmeneko eta haren protokoloetako alderdi den estaturen batek bertan bermatzen diren eskubideak urratzearen biktimatzat jotzen badute beren burua.

Beraz, horixe litzateke bidea, kasua hala balitz, giza eskubideak urratzeagatik akzio bat bideratzeko ustez eskubide horiek urratzen ari den estatu baten kontra, betiere estatu hori Erromako Hitzarmeneko eta haren protokoloetako alderdi bada. Gainera, ez da ahaztu behar barneko errekurtsio-bideak baliatu behar direla lehenik (Espainiako Estatuan, babes-errekurtsioa Konstituzio Auzitegian).

Kontuan hartu behar da, halaber, hitzarmeneko alderdi diren estatuak behartuta daudela GEEAk emandako epaiei men egitera haiek alderdi diren auzietan. Eta Ministroen Batzardea izango da epaiak betearaziko dituen organo eskuduna; ondorioz, barne-jatorriko arauetan erregulatutako prozeduren bitartez gauzatuko dira. Barne-arau horiek dena delako eskubide-urratzeak sortutako ondorioak guztiz konpontzeko aukerarik ematen ez duten kasuetan, GEEAk urratutako eskubideen araberako kalte-ordaina finkatu beharko du.

Beste alde batetik, Europar Batasunean giza eskubideak babesteko mekanismoei dagokienez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisdikzio-jardun koherente eta bermezaleari esker, oinarrizko eskubideak zuzenbidearen printzipio orokorrak direla finkatu da, eta EBJAk berak bermatzen du haiek betetzea edo/eta haiei men egitea.

EBJAren interpretazio eta jarrera horrek badu bere isla Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean. Hala, azpimarratu behar da honako hau dagoela jasota EBTko manu horietan:

EBTren 6.1 artikulua: Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu, 2007ko abenduaren 12an Estrasburgon onartu zen bezala, Tratatuaren balio juridiko berbera izango duelarik. Gutuneko xedapenek ez dituzte inola ere zabalduko Tratatuaren Batasunari aitortzen zaizkion eskumenak. Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak Tratatuaren interpretazioa eta aplikazioa arautzen duen Gutuneko VII. tituluko xedapen orokorrekin bat ulertuko dira. Behar bezala eduki behar dira kontuan Gutunean adierazten diren azalpenak, xedapen horien iturriak adierazten dituzte eta.

EBTren 6.3 artikulua: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak eta estatu kideen konstituzio-tradizio erkideetatik datozenak Batasunaren Zuzenbidearen osagai izango dira, printzipio orokor direnez.

Kontua da Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna aplikazio orokorrekoa dela Batasunean, eta Europako erakundeek zein EBko kide diren estatuak bermatu egin behar dituztela eskubide horiek, EBJAren kontrolpean. Gutunean jasotako arauen ezaugarri da 1950eko Erromako Hitzarmenaren bitartez bermatzen diren eskubideetako batzuekin bat etortzea, eta, beraz, oinarrizko giza eskubide horiek babesteko eta bermatzeko akzioa zilegi da bai GEEAren aurrean bai EBJAren aurrean. Gogoan eduki behar da, ordea, EBJAk eskubide horiez egin dezakeen interpretazioa inoiz ezingo dela izan GEEAk haietaz emandako interpretazioa baino murriztaileagoa. Aldiz, ez dago eragozpenik EBJAk oinarrizko giza eskubide horiez ematen duen interpretazioa GEEAk eskubide berberaz emandako interpretazioa baino bermezaleagoa, zabalagoa edo hedatuagoa izateko.

Azken batean, nazioartean Europar Batasuna da zalantzarik gabe giza eskubideak gehien bermatzen eta babesten dituen nazio elkarte. Ez du parekorik, indarrean baitauka giza eskubideak bermatzeko mekanismo edo sistema bikoitza: batetik 1950eko Erromako Hitzarmena eta GEEAren kontrola, eta bestetik Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta EBJAren kontrola. Gorago aipatutako subjektuek sistema horretara jo dezakete balizko urratzeen aurrean.

IV. Arazo zehatz bat: Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara esportatzea

4.1. Nazioarteko zehapenak. Alderdi orokorrak

Esan dezakegu nazioarteko zehapenak legezko neurriak direla, Nazio Batuek edo integrazio ekonomikora-ko prozesuetako erakundeek edo beren kabuz zenbait herrialdek erabakitzen dituztenak, atzerriko estatu, talde sozial eta politiko edo pertsona fisiko zein juridikoen aurka, eta bai partikularrekiko bai erakunde publikoekiko harreman ekonomikoetan eragiten dutenak, funtsean. Mota askotakoak izan daitezke, eta kasu bakoitzean zehapena ezartzen duenak erabili behar dituen legezko tresnen bitartez bideratzen dira. Zehapen horien bidez helburu jakin batzuk lortu nahi dira, helburu politikoak funtsean, baina ez dira baztertzekoak helburu ekonomikoak ere, zenbait kasutan.

Nazio Batuen Erakundeak ezar ditzake zehapenak, edo integrazio ekonomiko eta politikorako prozesuetako nazioz haraindiko erakundeek, esaterako Europar Batasunak, eta baita zenbait estatuk beren kabuz ere; ildo horretan garrantzi berezia du Amerikako Estatu Batuen portaerak, baina ez dira ahaztu behar beste hainbat herrialde: Japonia, Australia etab.

Nazio Batuek ezarritako zehapenak direnean, sarritan gertatzen da haiek errepikatu eta berregitea Europar Batasunak edo, bakarka, Europaz kanpoko estatuak. Adibidez, batzuetan Nazio Batuen Erakundeak erabakitako zehapen-neurrien transposizioa baino ez du egiten Europar Batasunak, eta beste batzuetan osatu eta handitu egiten ditu neurri horiek (zehapen-erregimen mistoa). Halaber, zenbait kasutan Europar Batasunak bere kabuz eta Nazio Batuetatik erabat bereiz erabakitzen du murrizketak ezartzea.

Kasuistika zabaleko gaia da, zeren nazioarteko zehapenak asko alda baitaitezke kasu zehatz batetik bestera, norik ezartzen dituen, zein den zehatutako herrialdea edo taldea, zer helburu lortu nahi diren, zein diren zehatutako herrialdearen ezaugarri bereziak, eta abar.

4.2. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) zehapenak

Nazio Batuen Gutunaren 39. artikulua ezartzen duenez, Segurtasun Kontseiluak zehaztuko du bakearen kontrako mehatxu, bakearen urratze edo eraso-egintza ororen existentzia. Hain termino orokor horietan oinarrituta, Segurtasun Kontseiluak zehapenak erabaki izan ditu bakezko trantsizio politikoak babesteko, aldaketa ez-konstituzionalen ezarpenaren aurrean erregimen demokratikoei laguntzeko, terrorismoaren aurka borrokatzeko, giza eskubideak babesteko, gatazken bakezko ebazpena sustatzeko eta arma nuklearren ez ugaritzea sustatzeko.

NBEk honako prozedura honi jarraituz erabakitzen ditu bere zehapenak: Segurtasun Kontseiluak ebazpen bat eman behar du, bere kideetatik bederatzik gutxienez baiezko botoa emanda eta bere kide iraunkorretatik batek ere ezezko botoa eman gabe.

Zehapen-erregimen bakoitza zehapen-batzorde batek administratzen du, eta batzorde horietako buruak Segurtasun Kontseiluko kide ez-iraunkorrak dira. Gehienetan, jarraipen-talde batzuek lagundu egiten dute batzorde horien lanetan.

Gaur egun (2018ko azaroa) badira NBEren 14 zehapen-erregimen, eta honako hauek dira zehatuak: Somalia eta Eritrea, Irakeko eta Sortaldeko Estatu Islamikoa (Daesh), Al-Qaida eta harekin elkartutako pertsona, talde, enpresa eta erakundeak, Irak, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Sudan, Libano, Koreako Herri Errepublika Demokratikoa, Libia, talibanak, Ginea Bissau, Afrika Erdiko Errepublika, Yemen, Hego Sudan eta Iran.

NBEren zehapenen edukiari dagokionez, esan beharra daukagu, Nazio Batuen Gutunaren 41. artikulua ezartzen duenez, Segurtasun Kontseiluak indarraren erabilerarik eragiten ez duten neurriak erabaki ahalko dituela. Neurri horiek barruan hartu ahalko dute erabat edo zati batean etetea harreman ekonomikoak eta komunikazioak (trenbidez, itsasoz, airez, postaz, telegrafoz, irratiz eta beste komunikazio-bide batzuek), bai eta harreman

diplomatikoak haustea ere. Formulazio horretan oinarrituta eta kasu bakoitzaren arabera, Segurtasun Kontseiluak hainbat zehapen ekonomiko eta komertzial erabaki ditu, batzuetan oso zabalak, baita armen enbargoak ere, produktu eta salgai jakinak esportatzeko edo/eta inportatzeko debekuak, bidaiatzeko debekuak, murrizketa finantzarioak eta abar.

NBEren eta dituen gaitasun eta ahalmen juridiko eta faktikoen ezaugarriak direla-eta, NBEko kide diren herrialdeei dagokie Segurtasun Kontseiluak onartutako nahitaezko neurriak bete-betean aplikatzea. Ondorioz, NBEren zehapenak egiaz estatuaren eta Europar Batasuna bezalako beste erakunde batzuen legegintzako, administrazioeko eta arlo judizialeko ekintzaren bitartez inplementatzen dira. Arrakasta izan dezakete baldin eta estatu askok beren legerian txertatzen badituzte eta aplikatzeari ekiten badiote; adibidez, Europar Batasunak zehapen baten transposizioa egiteak edo hura handitzeak garrantzi handia du zehapen hori benetan eraginkorra izateko.

Lan honen xedeak kontuan izanda, guri NBEren zehapenak interesatzen zaizkigu baldin eta armamentu-sektorearen ingurukoak badira eta Europar Batasunak errepikatu egiten baditu edo beraren legegintza orientatzen badute.

4.3. Europar Batasunaren zehapenak

4.3.1. Alderdi orokorrak

EBren zehapen bat Kontseiluaren atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloko erabaki baten bitartez ezartzen da, hau da, Kontseiluaren ASPE erabaki baten bitartez (Europar Batasunaren Tratatuaren 29. eta 31. artikulua). Prozesu hau bete behar da zehapena erabakitzeko: EBren Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkariek proposamena egiten du, eta prestatze-organo hauek hura aztertzen eta eztabaidatzen dute: Zehapena jarri nahi zaion herrialdea zein eremu geografikotan dagoen, hango talde arduraduna; Kanpo Harremanetako Kontseilarien Taldea (RELEX); beharrezkoa bada, Politika eta Segurtasun Komitea (PSL); eta Ordezkaritza Iraunkorren Lantaldea (Coreper II). Azkenik, Kontseiluak ASPE erabakia onartzen du aho batez.

Badira ASPE erabakian bakarrik ezartzen diren murrizketak, hala nola arma-enbargoak edo lurraldean sartzeko murrizketak, baina zehapen-neurri gehienak, eta zehazki aktiboen ibilgetzea berekin dakartzatenak edo bestelako zehapen ekonomiko edo finantzarioak, Kontseiluaren erregelamendu baten bidez aplikatu behar dira (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 215. artikulua), eta honako prozedura honen bitartez onartzen da erregelamendu hori: ASPE erabakian oinarrituta, goi-ordezkariek eta Batzordeak erregelamendu-proposamena aurkezten dute batera, RELEX aztertu egiten du, gero Coreperi eta Kontseiluari igortzen zaie, eta azken horrek txostena egiten dio Europako Parlamentuari. Erregelamendua gehiago kalifikatuz onartzen da. Haren xedea neurriak zehaztu eta xehetasunez azaltzea da. Erregelamendua aplikazio orokorreko egintza juridikoa da eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko eta erakunde oro lotesten du EBn.

ASPE erabakia eta erregelamendua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira eta indarrean jartzen dira.

Bere zehapenen bitartez EBk askotariko helburuak lortu nahi ditu, eta ez dira kasu guztietan berak. Helburu horien artean, hauek aipatzen dira, besteak beste: bakeari eustea, gatazkak bakez ebaztea, terrorismoaren aurka borrokatzea, arma nuklearrak ugaritu daitezkeen eragozteak, giza eskubideak babestea, erregimen diktatorialen aurka egitea, gobernu demokratikoei laguntzea eta herrialderen baten lurralde-osotasuna defendatzea.

Gaur egun (2018ko azaroa), EBk zehapenak ezarriak ditu honako hauek direla-eta: Afganistan, Bielorrusia, Bosnia-Herzegovina, Burundi, Afrika Erdiko Errepublika, Txina, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Egipto, Eritrea, Ginea, Ginea Bissau, Haiti, Iran, Irak, Libano, Libia, Maldivak, Mali, Moldavia, Montenegro, Myanmar (Birmania), Iparr Korea, Errusia, Serbia, Somalia, Hego Sudan, Siria, Tunisia, Ukraina, Amerikako Estatu Batuak, Venezuela, Yemen, Zimbabwe eta terrorismoaren aurkako borroka.

Oso kontuan izan behar da herrialde edo taldeei ezarritako zehapenak nabarmenki desberdinak izan daitezkeela. Aurreko paragrafoko zerrendan ageri direnetatik batzuk baino ez dira (gero aipatuko ditugunak) armen edo herritarrak zapaltzeko tresnen edo kontrolatzeko baliabideen salerosketarekin zerikusia duten murrizketak ezarriak dauzkatenak. Horrek ez du kentzen herrialde horiek ekonomiaren edo ekoizpenaren beste sektore batzuekin lotutako zehapenen pean ere egotea.

Horren harira gogorarazi beharra dago EBren murrizketek, defentsaren sektorea bere zentzurik zabalenean ez ezik, honako hauek ere uki ditzaketela: a) hainbat motatako ondasunen esportazioa, eta zenbaitetan bai-

ta inportazioa ere; b) baliabide informatikoen eta softwarearen esportazioa; c) pertsona jakin batzuei EBra sartzea debekatzea; d) funtsak eta baliabideak ibilgetzea EBn; e) finantzabideak ematea debekatzea; f) demandak eta bestelako erreklamazioak atzera botatzea, eta g) zenbait ontziri Europako portuetara sartzea debekatzea, hegazkinen erregai-horniduraren murrizketak, kargaren ikuskapenak etab.

Oso kontuan eduki behar da estatu kideetako agintariak –kasu bakoitzean eskumena duen agintariak– aplikatzen dituztela EBren zehapenak, neurri nazional egokien bidez. Beraz, estatu kideetako agintariak murrizketak betetzen ote diren zaindu behar dute, zehapenak urratzen badira barne-zehapenak ezarri behar dituzte, badute eskumena baimenak eta salbuespenak emateko ere, horiek posible direnean, Batzordeari informazioa eman behar diote Europako araudiaren aplikazioari buruz, eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren aurrean bitartekari jardun behar dute.

4.3.2. Defentsa edo errepresioa dela-eta EBren zehapenak dituzten herrialdeak eta taldeak

Esparru horretan EBk murrizketak ezarri dizkien herrialde edo taldeen zerrenda emango dugu, eta horietako bakoitzak zehazki zer-nolako murrizketak jasaten dituen azalduko dugu:

1. **Afganistan** (Debekatuta dago armez eta lotutako materialez hornitzea zenbait subjektu, ebazpen zehatzaileei erantsitako zerrendan ageri direnak –funtsean, talibanak–, eta, halaber, arma eta material horiekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).
2. **Bielorrusia** (Debekatuta dago Bielorrusia armez eta lotutako materialez hornitzea, hari barne-errepresiorako tresneria ematea, eta, halaber, arma eta tresneria horiekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).
3. **Afrika Erdiko Errepublika** (Debekatuta dago Afrika Erdiko Errepublika armez hornitzea eta, halaber, herrialde horri armekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).
4. **Txina** (Lankidetzat militarren etena eta arma-merkataritzaren enbargoa).
5. **Kongoko Errepublika Demokratikoa** (Debekatuta dago haren lurraldean diharduten gobernuen kanpoko entitate guztiak armez hornitzea eta, halaber, halakoei arma horiekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).
6. **Eritrea** (Debekatuta dago Eritrea armez hornitzea eta, halaber, herrialde horri armekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea. Debekatuta dago Eritreatik datozen armak erostea).
7. **Iran** (Debekatuta dago herrialde hori barne-errepresiorako erabil daitekeen tresneriaz hornitzea eta, halaber, tresneria horrekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea. Debekatuta dago komunikazioak eta Internet atzemateko tresna elektronikoak esportatzea, eta, halaber, tresna horiekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea. Debekatuta dago armez eta lotutako materialez hornitzea, eta hor sartzen dira Europar Batasuneko Zerrenda Militar Bateratua ageri diren arma eta tresneria guztiak. Debekatuta dago Iranetik datozen armak inportatzea. Arma nuklearrak ugaritzeari dago-kionez sentikorak diren ondasunak –267/2012 (EB) Erregelamenduaren II. eranskina– Iranera esportatu ahal izateko, kasuan kasuko estatu kidearen aurretiazko baimena behar da. Debekatuta dago 267/2012 (EB) Erregelamenduaren III. eranskineko ondasunak esportatzea, bai eta estatu kide bateko agintarien iritziak arma nuklearrak jaurtitzeko sistemak garatzeko erabil daitekeen beste edozein ondasun ere. Estatu kideko agintari eskudunen aurretiazko baimena behar da 267/2012 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko ondasunak Iranera esportatzeko. Estatu kideko agintari eskudunen aurretiazko baimena behar da industria militarrean edo nuklearrean erabiltzekoak diren softwarea eta industria-prozesuak, 267/2012 Erregelamenduaren VIIA eranskinekoak, Iranera esportatzeko. Estatu kideko agintari eskudunen aurretiazko baimena behar da grafito eta metal erdi-bukatuak, VIIB eranskinekoak, Iranera esportatzeko).
8. **Irak** (Debekatuta dago Irakera armak esportatzea).
9. **Libano** (Debekatuta dago Libanora armak eta lotutako materialak esportatzea eta, halaber, herrialde horri armekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).
10. **Libia** (Debekatuta dago Libiara armak esportatzea eta, halaber, herrialde horri armekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa eta entrenamendua ematea. Debekatuta dago Libiatik datozen armak eta barne-errepresioan erabil daitekeen tresneria inportatzea. Debekatuta dago barne-errepresioan erabil daitekeen tresneria Libiara esportatzea).

11. **Myanmar** (Birmania) (Debekatuta dago Myanmarrera armak esportatzea. Debekatuta dago helburu militarretarako erabil daitezkeen erabilera bikoitzeko teknologiak eta ondasunak esportatzea. Debekatuta dago barne-errepresioan erabil daitezkeen tresneria esportatzea. Debekatuta dago komunikazioak kontrolatzeko edo atzemateko erabil daitezkeen teknologia –Kontseiluaren 401/2013 (EB) Erregelamenduaren III. eranskinean aipatzen direnak– esportatzea, estatu kideko agintariek aurretiazko baime-na eman ezean. Debekatuta dago Myanmarreko indar armatuei prestakuntza militarra edo lankidetzatza militarra ematea).

12. **Ipar Korea** (Debekatuta dago Koreako Herri Errepublikora esportatzea armak eta horiekin lotutako materialak, haren programa nuklearrean, misil balistikoen programan edota suntsipen handiko armen edozein programatan erabil daitezkeen materialak, tresnak, ondasunak eta teknologiak, misil balistikoen sektoreko funtsezko osagaiak, haren indar armatuen ahalmen operatiboak garatzen lagun dezakeen beste edozein elementu eta 2016/849 (EB) ASPE Erabakian zerrendatutako beste elementu batzuk, eta, halaber, aipatutako ondasun eta teknologia horiekin zerikusia duen edozein laguntza ematea. Debekatuta dago goian aipatutako ondasunak eta teknologiak Koreatik inportatzea. Debekatuta dago Koreara esportatzea erabilera bikoitzeko ondasunak eta teknologiak eta Segurtasun Kontseiluaren 2321(2016) Ebazpenaren 7. paragrafoarekin bat etorritik NBEko Zehapen Batzordeak onartu zuen arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko produktuen zerrendan ageri diren beste ondasun guztiak, bai eta horiekin lotutako laguntza ere. Debekatuta dago 2017/1509 (EB) Erregelamenduaren XI. eranskinean zerrendatutako ontziak eta helikopteroak esportatzea. Arma nuklearrak ugaritzen edo arma nuklearrak jaurtitzeko sistemak garatzen lagun dezaketen jakintza-arloetan Koreako herritarrek jaso lezaketen prestakuntza eta entrenamendua kontrolatu eta zaindu egingo dute EBko estatu kideek).

13. **Errusia** (Debekatuta dago Errusiara armak eta lotutako materialak esportatzea eta, halaber, herrialde horri armekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea. Debekatuta dago Errusiatik datozen armak inportatzea. Debekatuta dago Errusian erabilera militarra izatekoak diren erabilera bikoitzeko ondasunak eta teknologiak hornitzea. Debekatuta dago erabilera bikoitzeko ondasun eta teknologiez hornitzea Kontseiluaren 833/2014 (EB) Erregelamenduaren IV. eranskineko zerrendan dauden erakundeak, eta, halaber, haiekin zerikusia duen laguntza tekniko edo bestelakoa ematea).

14. **Somalia** (Debekatuta dago armak esportatzea Somaliara eta arau zehatzaileetan zerrendatutako zenbait subjektuengana, bai eta armekin zerikusia duen edozein zerbitzu ematea ere).

15. **Hego Sudan** (Debekatuta dago Hego Sudanera armak esportatzea, bai eta armekin zerikusia duen edozein zerbitzu ematea ere).

16. **Sudan** (Debekatuta dago Sudanera armak esportatzea, bai eta armekin zerikusia duen edozein zerbitzu ematea ere).

17. **Siria** (Debekatuta dago Siriatik datozen armak inportatzea, bai eta inportazio horietarako laguntza finantzarioa ematea ere. Debekatuta dago Siriara esportatzea barne-errepresioan erabil daitezkeen tresnak, ondasunak eta teknologiak, Kontseiluaren 36/2012 (EB) Erregelamenduaren IA eta IX. eranskinetako zerrendetan daudenak, bai eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak ematea ere. Debekatuta dago telekomunikazioak kontrolatzeko edo atzemateko tresnak esportatzea, 36/2012 (EB) Erregelamenduaren V. eranskineko zerrendan ageri direnak, eta, halaber, horrelako tresnak edo softwarea instalatzeko, erabiltzeko eta eguneratzeko laguntza ematea).

18. **Terrorismoarekin lotutako taldeak eta pertsonak. ISIL (Daesh) eta Al-Qaida (ISIL/Daesh & Al-Qaida) taldeen aurkako murrizketa-neurriak** (Debekatuta dago armez edo armekin lotutako materialez hornitzea arau zehatzaileetan aipatutako subjektuak eta erakundeak, eta, halaber, haiei laguntza tekniko edo finantzarioa eta lotutako bestelako zerbitzuak ematea).

19. **Venezuela** (Debekatuta dago mota guztietako armak eta horiekin lotutako materialak Venezuelara esportatzea; debekua ez zaio aplikatzen 2017ko azaroaren 13a baino lehen egindako kontratuen ekuzioari. Debekatuta dago, halaber, hari armekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo tekniko edo bestelako zerbitzuak ematea. Debekatuta dago barne-errepresioan erabil daitezkeen tresnak esportatzea, bai eta halakoekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo tekniko edo bestelako zerbitzuak ematea ere. Debekatuta dago Venezuelako erregimenak Internet edo telefono bidezko komunikazioak kontrolatzeko edo atzemateko nagusiki erabiliko dituen tresnak, teknologiak edo softwarea esportatzea –produktu horien zerrenda dago 2017/2063 (EB) Erregelamenduaren II. eranskinean–, bai eta halako tresnekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo tekniko edo bestelako zerbitzuak ematea ere).

20. **Yemen** (Debekatuta dago armak eta lotutako materialak esportatzea xedapen zehatzaileetan zerrendatutako pertsona eta erakundeei, bai eta halakoekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo teknikoa edo bestelako zerbitzuak ematea ere).

21. **Zimbabwe** (Debekatuta dago armak eta lotutako materialak Zimbabwera esportatzea, bai eta halakoekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo teknikoa edo bestelako zerbitzuak ematea ere. Debekatuta dago barne-errepresioan erabil daitezkeen tresnak esportatzea, bai eta halakoekin zerikusia duten laguntza finantzarioa edo teknikoa eta bestelako zerbitzuak ematea ere).

4.3.3. *Europar Batasunaren arlo honetako zehapenen ezaugarriak*

EBren arlo honetako zehapenek badituzte ezaugarri batzuk, beste arlo batzuetan ezartzen diren zehapenekin neurri handian partekatuarik, eta horien artean honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Nazioarteko zehapenei buruzko araudia nabarmenki dinamikoa da, alegia, sarritan eta oso azkar aldatzen da, murrizketak ezartzea eragin duten gertaerek eboluzionatu ahala edo datu eta inguruabar berriak azaldu ahala.

- Armen edo errepresio-tresnen edo herritarrak kontrolatzeko bitartekoen merkataritzarekin zerikusia duten murrizketei dagokienez EBk ezartzen dituen zehapenak gutxieneko parametroak dira, estatu kide guztiek errespetatu eta aplikatu behar dituztenak, baina horrek ez du esan nahi estatu kide batek ezin dituenik bere kabuz ezarri murrizketa berriak edo EBk berak dagoeneko erabakitakoak baino zabalagoak, betiere Batasunaren nazioarteko konpromisoak errespetatzen baditu eta neurriak bat badatoz haren atzerri-politikaren helburu orokorrekin. Horren adibide dugu Alemaniako Errepublika Federalak Saudi Arabiari duela gutxi ezarritako arma-enbargoa. Baina Europak ezarritako murrizketek, funtsean, Batasuneko estatu kideek aplikatzen duten erregimen berezi bat osatzen dute. Bistan denez, zehatutako herrialdeak gainerako murrizketen pean ere badaude, ez bakarrik kasu bakoitzean eragiten dieten zehapen espezifikoen pean. Azken horiek, oro har, armak eta erabilera bikoitzeko ondasunak edozein herrialdetara esportatzea eragozten dute.

- EBk alor honetan ezartzen dituen zehapenekin batera, ia beti beste alor batzuetako murrizketak egoten dira araudi berean (funtzak izoztea, zenbait pertsonari Europaren lurraldean sartzea debekatzea etab.).

Lehen aurreratu dugun moduan, EBren zehapenak, denak argi eta garbi hari berekoak izan arren, badituzte aldeak, nabarmenak batzuetan, egoera desberdinen arabera: kasurik gehienetan estatu oso bati dagozkio, baina badira subjektu edo talde jakinei bakarrik eragiten dietenak; esaterako, gerrillari talde bati. Haiek ezartzea eragin duten arrazoen larritasunaren arabera ere desberdinak izan daitezke. EBk murrizketa jakin batzuk erabakitzen dituenean lortu nahi dituen helburuetan ere egon daiteke elementu bereizgarria. Hala, helburua arma nuklearren edo misil balistikoen ugaritzeari amaiera ematea denean, zehapenek azpimarra jartzen dute eremu horiekin zerikusia duen guztian (uranioa, zenbait mineral eta zenbait osagai esportatzeko debekua, eta abar). Beraz, praktikan ezinbestekoa da kasu eta egoera guztiei banan heltzea.

4.3.4. *EBk ezarritako nazioarteko zehapenen eremu pertsonala eta lurralde-eremua*

EBren nazioarteko zehapenak bideratzen dituzten xedapenak honela aplikatu ohi dira:

- Batasunaren lurraldean, haren aireko espazioa barne dela.
- Estatu kide baten jurisdikzioaren pean dagoen aireontzi edo itsasontzi ororen barruan.
- Estatu kide bateko nazionalitatea duen pertsona orori, Batasunaren lurraldearen barruan zein kanpoan egon.
- Estatu kide bateko zuzenbidearen arabera erregistratu edo eraturako pertsona juridiko, entitate edo erakunde orori, Batasunaren lurraldearen barruan zein kanpoan egon.
- Pertsona juridiko, entitate edo erakunde orori, osorik nahiz zati batean Batasunean egindako edozein negozio dela-eta.

Hortaz, aurreko bost aurreikuspenetan azaldutako egoera pertsonaletan eta lurralde-egoeretan dauden pertsona fisiko eta juridikoek errespetatu egin behar dituzte Europar Batasunaren zehapenak, eta horiekin bat etorritik jardun behar dute EBk zehatutako atzerriko estatu edo taldeekin eragiketarako egiten dituztenean. Parte-hartzea kontzientea eta berariazkoa denean du indarra debekuak.

4.3.5. Defentsari edo errepresioari dagokionez Europak herrialde edo talde zehatuei ezarritako murrizketen eremu materialaren mugaketa

4.3.5.1. Armak

Zehatutako herrialde edo talde bati armak esportatzeko debekua honen antzeko arau baten bitartez formulatu ohi da, ezinbesteko berezitasunak salbu: “*Debekaturik dago: a) EBren Zerrenda Militar Bateratuan ageri diren ondasun eta teknologiek lotutako laguntza teknikoak, bitartekaritza-zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak eta Zerrenda Militar Bateratuan ageri diren ondasun eta teknologien hornidura, fabrikazioa, mantentzea eta erabilera eskura jartzea, zuzenean nahiz zeharbidez, [herrialdearen izena]-(e)ko edozein pertsona fisiko edo juridiko, entitate edo erakunderi edo herrialde horretan erabiltzeko; b) Zerrenda Militar Bateratuan ageri diren ondasun eta teknologiek lotutako finantzaketa edo finantza-laguntza ematea zuzenean nahiz zeharbidez –tartean direla, bereziki, esportaziorako kreditu-aseguruak, maileguak eta dirulaguntzak, bai eta aseguru eta berraseguruak ere– aipatutako gaien edozein salmenta, hornidura, transferentzia edo esportaziotarako, edo laguntza teknikoak, bitartekaritza-zerbitzuak eta lotutako beste zerbitzu batzuk ematea, zuzenean nahiz zeharbidez, [herrialdearen izena]-(e)ko edozein pertsona, entitate edo erakunderi edo herrialde horretan erabiltzeko”.*

Horrelako arauak oso interesgarri batzuk nabarmetzen dituzte. Lehenengoa da debekuaren mugaketa materiala egiteko erreferentziatzen Batasunaren Zerrenda Militar Bateratua erabiltzen dela, alegia, bera dela erreferentzia jakiteko zein ondasun eta teknologia ezin diren herrialde zehatz horretara esportatu. Jakinaenez, 2000ko ekainaren 13an Kontseiluak Europar Batasunaren Zerrenda Militar Bateratua onartu zuen. Zerrenda hori aldi berean behin berrikusten da, kontuan hartuta, beste faktore batzuen artean, antzeko zerrenda nazionalak eta nazioartekoak; azkenaldian urtero egiten ari dira berrikuspenak. Tresneria militarren zerrenda luzea da, tresneria terminoa bere zentzurik zabalenean ulertuta. Kontseiluak 2018ko otsailaren 26an onartutakoa da Europar Batasunaren Zerrenda Militar Bateratuaren bertsio berriena (EBAO, C 98, 2018ko martxoaren 15ekoa). Bertan biltzen dira Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuan aurreikusitako tresnak; jarrera bateratu horren bidez teknologia eta tresneria militarrek kontrolatzeko arau erkideak definitzen dira.

Nabarmendu beharreko bigarren datua da debekuaren formulazioa oso zabala dela eta ez dela armen hornidura hutsera mugatzen. Izan ere, debekatu egiten da halako armekin lotutako laguntza teknikoak¹, bitartekaritza-zerbitzuak² eta bestelako zerbitzuak eskura jartzea, zeharbidez bada ere. Halaber, debekatu egiten da finantzaketa edo laguntza finantzarioa, dirulaguntzak, maileguak, aseguruak eta berraseguruak ematea debekatutako arma edo zerbitzuen edozein salmenta, hornidura, transferentzia edo esportaziotarako. Horrenbestez, esan daiteke zehatutako estatuak armez hornitzeko debekua haiekin zerikusia duen edozein zerbitzu edo eragiketa komertzialekara hedatzen dela.

Hirugarrenik, azpimarratu beharra dago zehapenaren xede den herrialdean entregatu edo erabiltzekoak diren armen gainekoa dela debekua. Baita, zenbaitetan, zehatutako herrialdeko nazionalitatea dutenentzako horniduraren gainekoa ere.

4.3.5.2. Barne-errepresiorako tresnak

Zenbait kasutan, hedaturari eta norainokoari dagokienez baldintza berak ezarrita, debekatu egiten da zehatutako herrialdeak barne-errepresiorako erabil daitekeen tresneriaz hornitzea.

Arazoa da tresna horiek ez daudela jasota Zerrenda Militar Bateratuaren antzeko inongo zerrendatan. Ondorioz, Europako xedapen zehatzaile bakoitzak bere eranskinetako batean ekarri ohi du kasu horretan barne-errepresiorako tresneriatzat hartuko diren materialen zerrenda³.

1 Honela definitu ohi da laguntza teknikoak: “*Konponketarekin, garapenarekin, fabrikazioarekin, muntaketarekin, saiakuntzarekin, mantentze-lanekin nahiz beste edozein zerbitzu teknikoekin zerikusia duen laguntza tekniko oro, zeina jarraibide, aholkularitza, prestakuntza, ezagueren nahiz gaitasun praktikoen transmisio edo kontsulta-zerbitzu gisa gauza baitaiteke; laguntza teknikoak barruan hartzen ditu ahozko laguntza guztiak”.*

2 Honela definitu ohi dira bitartekaritza-zerbitzuak: “*i) hirugarren herrialde batetik datozen ondasunak eta teknologia edo zerbitzu teknikoak eta finantzarioak beste hirugarren herrialderen bati erostea, saltzea edo hornitzea helburu duten transakzioak negoziatzea edo antolatzea, edo ii) hirugarren herrialde batean dauden ondasunak eta teknologia edo zerbitzu teknikoak eta finantzarioak saltzea edo erostea, beste hirugarren herrialde batera eramateko helburuarekin”.*

3 Ikus, adibide gisa, Kontseiluaren 2017ko azaroaren 13ko 2017/2036 (EB) Erregelamenduaren I. eranskina. Erregelamendu hori Venezuelako egoera kontuan izanik hartutako murrizketa-neurriei buruzkoa da (EBAO, L 295, 2017ko azaroaren 14koa, 30.-31. or.).

Material gehienetarako erreferentzia gisa hartu ohi da Zerrenda Militar Bateratua, baina horretatik kanpo dauden tresnak aipatuta, betiere (Zerrenda Militar Bateratuko ML 1 eta ML 2 artikuluek kontrolatu gabeko su-armak, Zerrenda Militar Bateratuak kontrolatu gabeko mirak, Zerrenda Militar Bateratuak kontrolatu gabeko bonbak eta granadak, Zerrenda Militar Bateratuak kontrolatu gabeko ebaketa linealeko lehergai kargak, Zerrenda Militar Bateratuko ML 13 artikulua kontrolatu gabeko babes-ekipamenduak, Zerrenda Militar Bateratuko ML 14 artikuluan kontrolatutakoez bestelako simulagailuak, etab.).

Hala ere, badira barne-errepresiorako ekipamenduak Zerrenda Militar Bateratutik erabat kanpo definitzen direnak (istiluen kontrolerako berariaz sortu edo eraldatutako ibilgailuak, ur-kanoiak dituztenean edota atxilotuak eramateko, hesi mugigarriak zabaltzeko edo barrikadak kentzeko erabiltzen direnean, baita alanbre arantzaduna, aizto jakin batzuk eta baionetak ere, besteak beste).

Aurrean aipatutako ekipamenduak garatzeko, ekoizteko eta erabiltzeko osagaien, ekoizpen bereziko makineriaren eta teknologia bereziaren hornidura ere debekatu ohi da.

4.3.5.3. Erabilera bikoitzeko produktuak

428/2009 (EE) Erregelamenduaren 2.1 artikulua arabera, erabilera bikoitzeko produktuak dira *“bai erabilera zibilak eta bai militarrik izan ditzaketen produktuak –euskarri logikoa (softwarea) barne– eta teknologiak; tartean, bai lehergaiz bestelako erabileretarako eta bai arma nuklearrak edo bestelako lehergailu nuklearrak fabrikatzen laguntzeko erabil daitezkeen produktu guztiak”*.

Europako ordenamenduan, haien araubide juridikoa Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduan dago (EBAO, L 134, 2009ko maiatzaren 29koa). Erregelamendu horrek erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen du, eta beste erregelamendu hauen bidez aldatuta dago: Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 1232/2011 (EB) Erregelamendua (EBAO, L 326, 2011ko abenduaren 8koa) eta Batzordearen 2016ko irailaren 12ko 2016/1969 (EB) Erregelamendu Delegatua (EBAO, L 307, 2016ko azaroaren 15koa).

Araudi horrek, bere I. eranskinean, erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien zerrenda luzea dakar, askotariko sektoreak barruan hartzen dituena.

EBk debekatuta dauka I. eranskineko zerrendan dauden produktuak esportatzea zehatutako herrialde jakin batzuetara (Iran, Ipar Korea eta Errusiako Federazioa); beraz, kontua ez da esportaziorako baimena lortu behar dela, kasu gehienetan gertatzen den bezala, baizik eta esportazioa debekatuta dagoela (428/2009 EE Erregelamenduaren 3.1 artikulua).

Gainera, zehatutako herrialdeen kasuan mugak I. eranskineko zerrendan ez dauden erabilera bikoitzeko produktuetaraino iristen dira, zeren 428/2009 (EB) Erregelamenduaren 4.2 artikulua hauxe baitio: *“Hala-ber, I. eranskineko zerrendan ez dauden erabilera bikoitzeko produktuak esportatu ahal izateko baimena eskatu beharko da baldin eta herrialde eroslea edo xede-herrialdea arma-enbargo baten pean bada-goa Kontseiluak onartutako erabaki edo jarrera bateratu baten indarrez, ESLEren erabaki baten indarrez nahiz Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen lotesle baten ondorioz, eta, betiere, 1. apartatuan aipatutako agintariek esportatzaileari jakinarazi badiote produktuak osorik edo zati batean azken xede militar baterako erabiliko direla edo erabil litezkeela. Apartatu honen ondoreetarako, ‘azken erabilera militarra’ hauxe dela ulertuko da: a) estatu kideen defentsa-materialen zerrendan jasotako material militarra sartzeko; b) haren ekoizpenerako, probetarako edo analisirako ekipamendua edo haren osagaiak erabiltzea aipatutako zerrendan jasotako defentsa-materialak garatzeko, ekoizteko edo mantentzeko; c) bukatu gabeko edozein motatako produktuak erabiltzea, aipatutako zerrendan jasorik dauden defentsa-materialak ekoiztea xede duen instalazio batean”*. Beraz, zehapenak dituzten herrialdeen kasuan badago murrizketa garrantzitsu bat, alegia, baimena behar dela erregelamenduaren I. eranskinean jasorik ez dauden erabilera bikoitzeko produktuak esportatu ahal izateko. Gainera, herrialde horiei eta produktu horiei dagokienez, baimena behar da baita artekaritza-zerbitzuak emateko (5.2 artikulua) eta Erkidegokoak ez diren produktuen joan-etorrietarako (6.3 artikulua) ere.

4.3.5.4. Interneten edo telefono bidezko komunikazioen jarraipena egiteko edo haiek atzemateko nagusiki erabiliko diren tresnak, teknologiak edo programa informatikoak

Zenbaitetan, EBk mugak ezartzen ditu Internet edo telefonozko komunikazioak kontrolatzeko eta atzemateko nagusiki erabiliko diren tresnak eta baliabideak zehatutako herrialdeetara esportatzeko. Horretarako,

xedapen zehatzaileek, beren eranskinetako batean, muga horren eraginpeko tresna eta baliabideen zerrenda edukitzen dute⁴.

Murrizketa horrek eta aurreko bi ataletan deskribatutakoek badituzte osagai komun batzuk. Izan ere, horrelako neurriak ezarriz, tresnak eta baliabide horiek barne-errepresiorako erabil daitezten saihestu nahi da, eta 428/2009 (EE) Erregelamendua hartu ohi da erreferentzia tresna eta baliabide horien zerrenda egiteko.

Normalean, zehapena egonez gero, tresna eta baliabide horien salmenta, transferentzia, hornidura edo esportazioa, zuzenekoa nahiz zeharkakoa, zehatutako herrialdean kokatutako edozein pertsona edo entitate bada hartzailea edo bertan erabiltzekoak badira, kasuan kasuko estatu kideko agintaritza eskudunak baimendu behar du aurretiaz⁵. Hala, bada, baimenik lortu ezean hornidura debekaturik egongo da.

Lege-arabide bera, hau da, aurretiazko baimenaren beharra edo baimenik ezean debekua, ezartzen zaie orain hizpide ditugun tresna eta baliabideekin lotutako laguntza teknikoari eta artekaritza-zerbitzuei, edo zehatutako herrialdean haiek instalatu, hornitu, fabrikatu, mantendu, eguneratu eta erabiltzearekin zerikusia duten zerbitzuei. Beste horrenbeste gertatzen da tresna eta baliabide horien inguruko finantzaketari edo finantza-laguntzari dagokionez.

Horrez gain, debekatu ohi da komunikazioak edo Internet kontrolatu edo atzemateko edozein motatako zerbitzuak ematea⁶ zehatutako herrialdeko gobernuari, erakunde publikoei, konpainiei eta agentziei, bai eta haien izenean edo haien zuzendaritzapean diharduen edozein pertsona edo entitateri ere.

4.3.5.5. Defentsarekin edo errepresioarekin zerikusia duten beste murrizketa batzuk

Nazioarteko zehapenen kasuistika konplexuaren barruan, EBk inoizka bestelako murrizketak erabaki izan ditu, defentsarekin edo errepresioarekin lotura dutenak, urruneko lotura zenbaitetan: besteak beste, zehatutako herrialdeetik armak inportatzeko debekua, uranioa, grafitoa edo bestelako materialak bertara esportatzeko debekua, entrenamendu eta lankidetzeta militarra eskaintzeko debekua, etab.

4.3.5.6. Salbuespeneko kasuak eta baimenak, aurreko paragrafoetan azaldutako debekuei dagokienez

Nazioarteko zehapenak ezartzen dituzten Europako arauak normalean ezartzen dute haietan jasotako debekuak ez zaizkiola aplikatuko Kontseiluak zehapenak onartu zituen egunaren aurretik egindako kontratuen exekuzioari. Xedapen zehatzaileen atzeraeraginik ezaren printzipioaren adierazpen zentzuzkoa da hori, eta zehapenen aurretik adostutako kontratuen exekuziorako beharrezkoak diren kontratu osagarrien mesederako ere bada. Hala ere, salbuespen horren aplikaziorako baldintzak ezarri ohi dira; esaterako, bete dadila Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuan⁷, xedatutakoa, batik bat haren 2. artikuluan ezarritako irizpideak, eta kontratu horiek gauzatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek behar den jakinarazpena egin diezaietela kokatuta dauden EBko estatu kideko agintari eskudunei, epe jakin batean, zeina oso laburra izan baitaiteke.

Babes-jantziei ere (balen aurkako txalekoak, kaskoak etab.) normalean ez zaizkie aplikatzen debekuak, zehatutako herrialdera horrelakoak aldi baterako esportatzen dituztenean NBEko, EBko edo herrialde kideetako langileek, hedabideetako enplegatuek, langile humanitarioek, kooperanteek eta lotutako langileek, betiere norberak erabiltzeko baino ez badira.

Era berean, Europako arau zehatzaileek normalean ezartzen dute estatu kideetako agintari eskudunek baimena eman ahal izango dutela, alde aurretik eta egokituz jotzen dituzten baldintzetan, funtsean debekatura dauden eragiketa hauek egiteko: a) hilgarria ez den ekipamendu militarrekin lotutako finantzaketa eta laguntza teknikoa, ekipamendu hori xede humanitarioetarako bakarrik erabiltzekoa bada, edo babeserako, edo NBEren, EBren, estatu kideen nahiz eskualdeko edo eskualdez azpiko erakundeen garapen instituzionaleko programetarako, eta baita NBEk, EBk edo eskualdeko nahiz eskualdez azpiko erakundeek krisiak

4 Ikus, adibidez, aurreko oharrean aipatutako 2017/2063 (EB) Erregelamenduaren II. eranskina, 32.-33. or.

5 Europako xedapen zehatzaileek beren eranskinetako batean webguneen zerrenda bat edukitzen dute, Batasuneko herrialde bakoitzean aurretiazko baimenak emateko eskumena eta, oro har, nazioarteko zehapenen arloan –sarritan, beste agintari nazional batzuekin elkarlanean edo batera– jarduteko eskumena duten agintariei buruzko informazioa bilatzeko. Ikus, adibidez, 3. oharrean aipatutako 2017/2063 (EB) Erregelamenduaren III. eranskina, 34.-35. or.

6 Pertsona batek jasotzen edo igortzen dituen deien eta telekomunikazioen datuetarako irispidea ematea eta datuok eskura jartzea, helburua izanik haien erazketa, deskodetzea, grabazioa, tratamendua, analisia edo biltegiatzea nahiz lotutako beste edozein jardura.

7 Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua, 2008ko abenduaren 8koa, teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko arau erkideak definitzen dituena (EEAO, L 335, 2008ko abenduaren 13koa, 99. or. eta hurrengoak).

kudeatzeko antolatzen dituzten eragiketetarako diren materialekin lotutakoa ere; b) barne-errepresiorako erabil daitekeen tresneriaren salmenta, hornidura, transferentzia edo esportazioa, bai eta lotutako finantza-laguntza eta laguntza teknikoa ere, aurreko letran aipatutako inguruabarrak daudenean; c) minak kentzeko eragiketetarako tresna eta materialen salmenta, hornidura, transferentzia edo esportazioa, bai eta lotutako finantza-laguntza eta laguntza teknikoa ere; d) hilgarriak ez diren tresnen salmenta, hornidura, transferentzia edo esportazioa, horien helburu bakarra bada mugak babestea, eskualdeko egonkortasunari eustea edo narkotrafikoa atzematea; e) arau zehatzaile bakoitzean zehazten diren bestelako kasuak.

V. JIMDDU, haren arauketa eta jardun administratiboa

5.1. Kanpo merkataritzako operadoreen erregistro berezia eta bertako inskripzioa. Kontrol-agiriak, eta baimenak emateko eskumena

Irizpenaren atal honetan lehenengo eta behin azpimarratu behar da Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezian (REOCE) aldez aurretik inskribatu beharra dagoela armen, defentsarako materialen, polizia-erabilerako edo/eta segurtasuneko materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen transferentziarako nahitaezko baimenak eskuratu ahal izateko, 53/2007 Legearen 12.1 artikulutik eta 679/2014 Errege Dekretuaren 13.1 artikulutik ondorioztatzen denez.

Hain zuzen ere, artikuluko horiek hau xedatzen dute berariaz:

12.1 artikulua: Lege honen 4. artikuluan aipatzen diren transferentzietarako administrazio-baimena eman dadin, aurretiazko betekizuna izango da Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezian inskribatzea [...].

13.1 artikulua: REOCEn inskribaturik dauden operadoreek bakarrik eskatu ahal izango dute baimena erregelamendu honetan aipatzen diren material, produktu eta teknologien esportazio eta bidalketarako, inportazio eta sarrerarako edo artekaritzarako [...].

REOCEk xedetzat edo/eta helburutzat du defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen kanpo-merkataritzako operadoreei dagozkien datuak inskribatu eta erregistratzea, operadoreek legeria indardunaren kontrolpean dauden jarduerak egiten badituzte (679/2014 Errege Dekretuaren 12.1 artikulua). Egoitza Estatuan duten pertsona fisiko edo/eta juridikoak bakarrik inskriba daitezke erregistro horretan; kasu berezi gisa, ez da onartzen egoitza zerga-paradisuan duten sozietateak inskribatzerik, 53/2007 Legearen 12.1 artikulutik eta 679/2014 Errege Dekretuaren 13.2 artikulutik ondorioztatzen denez. Erregistro horren ardura duen Administrazioako organoa Merkataritzako Estatu Idazkaritza da (679/2014 Errege Dekretuaren 12.5 artikulua).

Hala ere, bi salbuespen garrantzitsu azpimarratu behar dira, inskribatzeko betebeharrari dagokionez. Lehenengo salbuespena 53/2007 Legearen 12.2 artikuluan eta 679/2014 Errege Dekretuaren 13.5 artikuluan jasorik dago; inskribatzeko betebeharratik salbuesten ditu Indar Armatuak, Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoetako, autonomia-erkidegoen mendeko polizia-kidegoetako eta toki-korporazioen mendeko polizia-kidegoetako administrazio-organismoak. Bigarren salbuespena 53/2007 Legearen 12.3 artikuluan eta 679/2014 Errege Dekretuaren 13.6 artikuluan jasorik dago, eta inskribatu beharretik salbuesten ditu pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko edo komertzial baten ondorio ez den arma-transferentziaren bat egiten dutenean.

Kontrol-agiriei dagokienez, esan beharra dago transferentziak baimentzeko eskaerei kontrol-agiriak erantsi behar zaizkiela, eta beharrezkoa dela berresportazioaren kontrako klausulak sartzea (53/2007 Legearen 4.2 artikulua). Kontrol-agiri horien helburu edo xedea da bermatzea erabilera bikoitzeko material, teknologia eta produktuen helmugak eta, kasua bada, horien azken erabilerak errespetatu egingo dituztela dagokien baimenean ezarritako mugak (53/2007 Legearen 4.2 artikulua eta 679/2014 Errege Dekretuaren 4.1 artikulua). Ez da alboratu behar, gainera, iraganbideko herrialdeei eta erabili beharreko garraiobideei buruzko

informazioa ere jaso behar dela baimen-eskaeretan (53/2007 Legearen 4.2 artikulua eta 679/2014 Errege Dekretuaren 4.2 artikulua).

Esportazioei dagokienez, berriaz aipatu behar da 679/2014 Errege Dekretuaren 30. artikulua edukia. Hor hiru motatako kontrol-agiriak ezartzen dira: a) nazioarteko inportazio-ziurtagiria; b) azken helmugaren ziurtagiria; eta c) azken helmugaren adierazpena. Esportatutako materiala inportatzen edo sartzen duen herrialdeko agintari eskudunek eman beharko dituzte kontrol-agiri horiek.

Argibide modura, aipatzekoa da nazioarteko inportazio-ziurtagiria beharrezkoa dela EBko kide diren herrialdeetara, Australiara, Kanadara, Amerikako Estatu Batuetara, Japoniara, Norvegiara, Zeelanda Berrira eta Suitzara esportazioak eta bidalketak egiteko. Kontuan izan behar da, ordea, ziurtagiri hori dokumentu baliokide batekin ordeztu daitekeela eta aplikagarri zaiela bai defentsa-materialen esportazioei bai bidalketei. Salbuespen dira azken helmugaren ziurtagiria deritzona behar duten gerrako armen esportazioak eta bidalketak.

Azken helmugaren ziurtagiri hori, beraz, Gerrako Armen Zerrendan dauden defentsa-materialen esportazio eta bidalketei bakarrik aplikatu behar zaie. Material horiek berriaz aipatzen dira 679/2014 Errege Dekretuaren 30.1.b artikuluan.

Azken helmugaren adierazpenari dagokionez, azpimarratu behar da helmuga EBko kide ez den estatu batean duten bidalketetarako eta esportazioetarako eskatzen dela agiri hori, helmuga-herrialde hauek salbu: Australia, Kanada, Amerikako Estatu Batuak, Japonia, Norvegia, Zeelanda Berria eta Suitza. Azken helmugaren adierazpen hori aplikatu behar da defentsarako materialak bidaltzen eta esportatzen direnean, hauek izan ezik: azken helmugaren ziurtagiria behar duten gerra-armak, segurtasunerako edo polizia-erabilerarako materialak, eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuak (679/2014 Errege Dekretuaren 30.1.c artikulua).

Ez da ahaztu behar bai azken helmugaren ziurtagirian eta bai azken helmugaren adierazpenean jasorik utzi behar dela honako konpromiso hau, gutxienez ere: teknologia edo produktua helmuga-herrialdean inportatuko dela, eta ez dela ez berriz esportatuko, ez adierazitako azken erabilerarako baliatuko, aldeaz aurretik Espainiako agintari eskudunen nahitaezko baimena eskuratu gabe.

Azkenik, jakin beharra dago azken helmugaren adierazpena produktuen hartzailen estatuak ontzat emanda egotea eska daitekeela, Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritza Arautzeko Ministerioarteko Batzordeak (JIMDDU) hala erabakitzen duen kasuetan.

Esportazio-baimenak emateko edo ukatzeko eskumena, 53/2007 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari dagokio, eta Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren bitartez baliatu behar du (679/2014 Errege Dekretuaren 31.3 artikulua). Ohartarazi behar da, hala ere, eskumen hori formala dela, zeren eta JIMDDUK izango baitu eskumena defentsa-materialei, segurtasuneko edo polizia-erabilerako materialei eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuei buruzko nahitaezko txosten loteslea emateko.

Horrela xedatzen dute bai 53/2007 Legearen 14.1 artikulua bai 679/2014 Errege Dekretuaren 18.1 artikulua, hau diotenean:

14.1 artikulua: Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritza Arautzeko Ministerioarteko Batzordeari dagokio nahitaezko txosten lotesleak egitea administrazio-baimenei buruz [...]

18.1 artikulua: JIMDDUari dagokio nahitaezko txosten lotesleak egitea 2. artikuluan aipatutako administrazio-baimenez eta aurretiazko erabakiez, baita haien zuzenketaz, eteteaz edo indargabetzeaz eta REOCEn inskribatzeko eskaeraz ere.

Argi dago JIMDDUK duela eskumena, de facto, bere nahitaezko txosten lotesleen bitartez, zein esportazio-eragiketa baimendu eta zeini baimena ukatu erabakitzeko.

Hala ere, behin aurrekoa esanda, adierazi behar dugu Ekonomia eta Ogasun Ministerioari (gaur egun, Ekonomia Ministerioa eta Ogasun Ministerioa) dagokiola eremu eta gordetegi frankoetan sartutako material, teknologia edota produktuatarako baimenak ematea, eta, halaber, material, produktu edo teknologia horiek lotzea aduanako araubide hauekin: gordailua, hobekuntza pasiboa, aldi baterako inportazioa, Europar Batasunaren barruko aldi baterako eraldaketa eta transferentzia. Azkenik, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak du eskumena defentsa-materialen joan-etorriak baimentzeko lurralde nazionalen, 679/2014 Errege Dekretuaren 10.2 artikulutik ondorioztatzen denez. Hori bai, aldian behin jakinarazpenak egin behar dizkio JIMDDUari.

5.2. JIMDDU (Erabilera bikoitzeko materialen kanpo merkataritza arautzeko ministerioarteko batzordea)

5.2.1. Egitura eta osaera

JIMDDU kide anitzeko administrazio-organo bat da, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioi, Defentsa Ministerioi, Kanpo Arazoetako Ministerioi, Ekonomia eta Ogasun Ministerioi eta Barne Ministerioi ordezkariak osatzen dute –zuzendari nagusiaren kategoria dute gutxienez–, eta funtzionalki Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari atxikita dago, 53/2007 Legearen 13. artikulutik ondorioztatzen denez.

Hamaika pertsonak osatzen eta egituratzen dute JIMDDU, 679/2014 Errege Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenez. Batzordeko lehendakaria Merkataritzako estatu-idazkaria da, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioi; eta lehendakariordea Kanpo Arazoetako estatu-idazkaria da, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioi. Batzordekideak zortzi dira: 1) Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioi zuzendari nagusi bat, batzordean egotea egokitzen zaiona; 2) Inteligentzia Zentro Nazionaleko Inteligentziako zuzendaria, Defentsa Ministerioi; 3) Armamentu eta Materialaren zuzendari nagusia, Defentsa Ministerioi; 4) Zerga Administrazioi Estatu Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Saileko zuzendaria, Ekonomia eta Ogasun ministerioetako; 5) Guardia Zibilaren Kidegoko zuzendari operatibo laguntzailea, Barne Ministerioi; 6) Polizia Kidego Nazionaleko zuzendari operatibo laguntzailea, Barne Ministerioi; 7) Kanpo Merkataritzako idazkari nagusia, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioi, eta 8) Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioi idazkari nagusi teknikoa. Azkenik, idazkaria, zeinak hizpidearekin baina botorik gabe jarduten baitu, Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Kanpo Merkataritzako zuzendariorde nagusia da, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioi Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusikoa.

JIMDDUko kideek beharrezkotzat jotzen dutenean Administrazioaren beste ordezkari batzuei edota aztergaia ondo ezagutzen duten adituei batzordearen bileretara deitzea, hala egingo dute, eta pertsona horiei hizpidearekin baina botorik gabe jarduten utziko diete.

Hain zuzen ere, JIMDDU nortzuek osatzen duten ikusita, ematen du interes komertzialek dutela lehentasuna baimenak emateko edo ukatzeko garaian, Estatuaren segurtasuna edo defentsa bezalako beste interes batzuen gainetik. Ikus daiteke, era berean, diseinatutako sistemak ez diela ordezkariarik ematen armagabetezarekin, giza eskubideekin edo nazioarteko lankidetzarekin zerikusia duten gaietan espezializatutako administrazio-organoei.

5.2.2. JIMDDUren eskumenak

JIMDDUren eskumenei edo/eta betetzen dituen eginkizunei dagokienez, garrantzitsuenen artean nabarmendu behar da nahitaezko txosten lotesleak egiten dituela defentsarako materialen, bestelako materialen (polizia-erabilera edota segurtasuneko materialak) eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen transferentziarako administrazio-baimenez, bai eta horien zuzenketaz, eteteaz edo/eta indargabetzeaz ere (53/2007 Legearen 14.1 artikulua eta 679/2014 Errege Dekretuaren 18.1 artikulua).

Aurreko eginkizun edo/eta eskumen horiez gainera, JIMDDUk bestelako eskumenak ere baditu; tartean, 53/2007 Legearen 14.1 artikuluan bertan, 679/2014 Errege Dekretuaren 18.1 artikuluan eta 679/2014 Errege Dekretuaren beraren 18.2 artikuluan jasotakoak. Hauexek dira: nahitaezko txosten lotesleak egitea gorago aipatutako Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezian (REOCE) inskribatzeko eskaerei buruz; eta nahitaezko txostenak, baina ez lotesleak, egitea defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen kanpo-merkataritzaren arloko araudian egin beharreko aldaketei buruz.

Jabetu beharra dago, beste alde batetik, materialen transferentziarako eman beharreko administrazio-baimenei buruz nahitaezko txostenak egiterakoan JIMDDUk men egin behar diela Europako arauan (jarrera bateratuan) ezarritako irizpideei, 53/2007 Legearen 14.2 artikulua eta 679/2014 Errege Dekretuaren 18.3 artikulua xedatutakoaren arabera. Irizpide horiek 53/2007 Legearen 8. artikuluan txertaturik daude. Hala ere, zenbait administrazio-baimen aurretiazko txostena eman beharretik eta kontrol-agiriak aurkeztu beharretik salbuespenak daitezke, JIMDDUk egokitzen jotzen badu, baldin eta 53/2007 Legearen 8. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen badira eta erregelamenduz zehazten bada zer baimen salbuespenak diren (53/2007 Legearen 14.3 artikulua). Salbuespen horretarako baldintza izango da batere ondorioz ez izatea esportazio-eragiketa zehazten kontrolean eta eragiketean eskatu beharrezkotzat jotzen diren bermeetan. Hori guztia, hasiera batean, Diputatuen Kongresuari igorri behar zaion txostenean jasoko da.

679/2014 Errege Dekretuaren 18.6 artikuluan adierazten da JIMDDUK zer kasutan egin dezakeen salbuespena aurretzako txostena egin beharri eta kontrol-agiri egokia aurkeztu beharri dagokienez. Zehazki, bederatzi kasu dira:

- a) Defentsaren arloko lankidetzaren programen ondorio diren esportazio eta bidalketak eta inportazioak, programa horiek halakotzat kalifikatuak baditu Defentsa Ministerioak, 24.2.a) artikularekin bat etorritik.
- b) Defentsa Ministerioako erakundeek eta sektoreko enpresek Indar Armatuakiko mantentze- edo konponketa-kontratuak betetzeko eskatzen dituzten esportazio eta bidalketak eta inportazioak, baldin eta Defentsa Ministerioako Armamentu eta Materialaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena egin badie.
- c) Konponketa, berrikuspen, proba, homologazio, azoka eta erakustaldiak direla-eta aldi baterako egiten diren esportazioak eta bidalketak, bai eta material akastunak kobratu gabe ordeztzeko eta itzulketak egiteko esportazio, bidalketa eta inportazio behin betikoak ere. Su-armei dagozkien eragiketetan, aurrekoen gainera, ehizaldiak edo tiroko kirol-jarduerak xede dituzten aldi baterako eragiketak.
- d) Espezifikazio militarrik dituzten erregaien esportazioak eta bidalketak, helmugako herrialdea Europar Batasuneko edo Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundekoa (aurrerantzean, NATO) baldin bada.
- e) Erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien esportazioak eta bidalketak, baldin eta armak ez ugaritzeko eta esportazioak kontrolatzeko nazioarteko araubideren batek esportatu nahi den produktua kontrolatzen badu eta helmugako herrialdea araubide horretako kidea bada, salbu eta Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduaren II. eranskinean eta geroko aldaketetan sartutako produktuak.
- f) Erregelamendu honetako Defentsarako Materialen eta Bestelako Materialen zerrendetan eta Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 5eko 428/2009 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean jasota dauden produktu, tresna eta teknologien esportazioak eta bidalketak, baldin eta produktu, tresna eta teknologia horiek dagozkien nazioarteko zerrendetatik ezabatu badira edo haietan jasorik ez badaude.
- g) Arma kimikoak garatzeko, ekoizteko, biltegiratzeko eta erabiltzeko debekuari eta haien suntsipenari buruzko 1993ko urtarrilaren 13ko Konbentzioko zerrendetan sartutako substantzia kimikoak Europar Batasuneko beste herrialde batetik ekartzea eta Australia Taldeko herrialdeetatik inportatzea, salbu eta errege dekretu honen I.1 eranskinean jasotako substantzia kimikoak eta errizina eta saxitoxina.
- h) Baliozkotasun-epea eta diru-balioa direla-eta baimenetan egiten diren zuzenketak.
- i) Defentsarako materialen osagaien, azpisistemen eta ordezkoko piezen bidalketak, eta haiei lotutako zerbitzuak, baldin eta defentsarako materialen osagaien transferentziarako lizentzia global bat edo defentsarako materialen Erkidego barruko transferentzietarako lizentzia orokor bat erabiltzearen ondorio badira, eta, betiere, osagai, azpisistema eta ordezkoko pieza horiek defentsarako ekipamendu eta sistemetan sartzekoak badira edo haiekin ordeztu behar badira lehenago bidalitako beste osagai edo azpisistema batzuk, edo bidalketak aldi baterakoak badira.

lido horretan aipatzekoa da ezen, aurretiazko txostena egin beharri eta Merkataritzako Estatu Idazkaritzak kontrol-agiriak aurkeztu beharri buruzko salbuespena eman baino lehen, JIMDDUK esportazio-eragiketa jakin bati buruz beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eska diezaiokeela baimenaren eskatzaileari (679/2014 Errege Dekretuaren 18.5 artikulua).

Azken batean, aurrekoa azaldurik, beharrezkoa da ohartaraztea zentzu juridiko handirik gabekoa dela 53/2007 Legearen 14.3 artikulua bere lehen zatian aukera ematea zenbait baimen salbuespena daitezkeen aurretiazko txostena eman beharretik eta kontrol-agiria aurkeztu beharretik, eta jarraian, bigarren paragrafoan, eskatzea baimen horiek ez dezatela urratu Europako arau aplikagarrian eta 53/2007 Legearen beraren 8. artikuluan xedatutakoa. Aurretiazko txostena egiteko eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko eskakizun horren helburu bakarra da, noski, aztertu eta egiaztatzea ea eskatutako baimenak urratzen ote duen Europako jarrera bateratuan ezarri diren eta barne-legearen 8. artikuluan ere jasorik dauden irizpide juridiko lotesle horietakoren bat.

5.2.2. Kontrol-neurriei buruzko aipamen bat

Espainiako arauak (53/2007 Legea) eta hura garatzen duen erregelamenduak (679/2014 Errege Dekretua) zenbait kontrol-mekanismo taxutu dituzte, aipatutako kontrol-agiriez gain. Izan ere, aplikatu beharreko esparru juridikoak hainbat neurri biltzen ditu; besteak beste, ikuskapenak, zenbait agiri zaindu eta manten-

tzeari buruzko betebeharrak, agiriak igortzeko betebeharrak, eta informazio-trukeak EBko beste estatu kide batzuekin.

Hala, 53/2007 Legearen 15.1 artikuluan eta 679/2014 Errege Dekretuaren 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, bai Merkataritzako Estatu Idazkaritzak bai Aduanen eta Zerga Berezien Sailak badute eskumena egokitzen jotzen dituzten ikuskapenak egiteko baimenen titularrei.

Aurrekoaren haritik gogora ekarri behar da sektoreko operadoreen betebeharra dela egindako esportazio-eragiketekin zerikusia duten agiri guzti-guztiak –jada Administrazioaren eskuetan ez daudenak– hamar urtez gordetzea, emandako baimenaren baliozkotasun-epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta. Horrela xedatzen du 679/2014 Errege Dekretuaren 9.1 artikulua. Gainera, operadore horiek sei hilean behin Merkataritzako Estatu Idazkaritzari bidali behar dizkiote defentsarako materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen transferentziarako baimen guztiei dagozkien igorpen osoak edo partzialak. Europako zuzenbidean (jarrera bateratua edo/eta 428/2009 Erregelamendua) xedatutakoa gehitu behar zaie kontrol-neurri horiei.

Zehazki, erabilera bikoitzeko produktu edo/eta teknologiek egiten dituzten eragiketetan, operadoreek/esportatzaileek, Europako 428/2009 Erregelamenduaren 20.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, beren jardueren erregistro edo laburpen zehatzak egin behar dituzte, dagozkien estatu kideetan indarrean dauden arau eta jardunbideei jarraituz. Erregistro edo laburpen horietan, oso bereziki, zenbait merkataritza-agiri jaso behar dira, hala nola fakturak, karga-adierazpenak, garraio-agiriak eta bidalketari buruzko beste agiri batzuk. Dokumentu horietan beharrezkoak diren datuak jasoko dira, zalantzarik gabe identifikatu ahal izateko erabilera bikoitzeko produktuen deskribapena, erabilera bikoitzeko produktuen kopurua, esportatzailearen eta hartzailearen izenak eta helbideak, eta, ezagunak diren kasuetan, erabilera bikoitzeko produktu horien azken erabilera eta azken erabiltzailea.

Beste alde batetik, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako (AEAT) Aduanen eta Zerga Berezien Sailak sei hilean behin Merkataritzako Estatu Idazkaritzari bidali behar dio defentsa-materialen, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien transferentziarako baimenekin lotuta egin diren igorpen osoei edo partzialari buruzko informazio estatistikoa.

Armen artekaritzako eragiketak direla-eta, soilik esan behar da Merkataritzako Estatu Idazkaritzak, aplikatu beharreko Europako arauak betez, armen artekaritzako jardueri buruzko nahitaezko informazioa trukatu behar duela EBko estatu kideekin, bai eta hirugarren estatuarekin ere. Informazio horren helburua izango da, bereziki, gaiari aplikatu behar zaion legeria ezagutzea, erregistratutako artekariak identifikatzea eta erregistro-eskaerei nahiz baimen-eskaerei emandako ezezkoen berri jakitea. Neurri sail horren osagarri gisa, 53/2007 Legearen 4.3 artikulua xedatzen duenaren arabera, gobernuen arteko egiaztapen-, jarraipen- eta balorazio-mekanismoak ezar daitezke.

5.2.3. Azken gogoeta laburra

Aipatutako arau multzoetan, Europakoan eta Estatuak, diseinatu eta txertatu den sistemak Europa mailako nolabaiteko harmonizazioa falta du, esportazio-baimenak ematearen edo ukatzearen gaineko kontrolerako organoei dagokienez, eta hutsune horrek bide ematen du interpretazio dibergenteak edo/eta lasaiagoak egiteko kasuan kasuko ordenamendu juridikoaren arabera.

Dudarik gabe, EBko ordenamendu juridikoaren hutsune horrek aukera ematen du konfidentzial edo isilpekotzat kalifikatu ahal izateko JIMDDUren akta batzuk, zeinetan jasotzen baitira herrialde jakin batera esportatzeko lizentzia edo baimena eman edo ukatzerakoan administrazio-organoren baloratu beharreko datu zehatzak. Logikoki, horrek eragozten du jakitea ea giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren irizpideak benetan hartu diren aintzat baimen bat ematerakoan. Barneko ordenamendu juridikorako taxututako sistemak ahalbidetzen du hura iritzi librean oinarritu dadin, erantzunik eta kontrolrik gabe, JIMDDUren aldetik. Azken batean, egindako baimen-eskaeren balorazioaren gardentasunaren lausotze horrek asko zailtzen du JIMDDUren baitan armen, defentsarako materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo/eta produktuen esportazioari buruz hartu diren erabakien kontrol juridikozionala.

VI. Ohar bat Europar Batasuneko aduana-prozedurari buruz

6.1. Merkataritza askea eta aduana zuzenbidea. 952/2013 (EB) erregelamendua (batasunaren aduana kodea)

Azken urteotan mundu osoan gertatu den globalizazio-prozesuak, ondorio politiko, kultural edo/eta sozial nabarmenak ekarri baditu ere, bere alderdi ekonomikoa du giltzarri, eta horrek bere isla izan du nazioarteko merkataritza-harremanen hazkunde esponenzialean, zeina, nagusiki, salgai, ondasun, zerbitzu eta kapitalen trukean oinarritu baita.

Egoera horren aurrean, merkataritza-harreman horiek arautzea ahalbidetzen duten lege- eta arau-ikuspegi bi azaltzen dira, bat egiten dutenak eta elkarren osagarri direnak. Bata nazioarteko zuzenbide pribatua da, eta bestea nazioarteko zuzenbide publiko ekonomik-administratiboa. Gaur egun aduana-esparruak makina bat arau-eskakizun sortzen du, eta horien artean gaur egun konponbide uniformeak gailentzen dira, nazioarteko mailan salgaien zirkulazio askearen kontrako oztopo nazionalak ezabatzea helburu dutenak.

Aduanen oraingo lege- eta arau-esparruan bi helburu zehatz batzen dira: batetik, aduana-prozedurak deitutakoak, merkataritza erraztu behar dutenak, teoriarik behintzat, eta bestetik, jarduera horien kontrol administratiboa (fiskala, sanitarioa, segurtasuneko edo poliziala, ondarearen edo/eta ingurumenaren babesaren arlokoa).

Lehenago ere ohartarazi dugunez, Espainiako Konstituzioak Estatuari esleitzen dio kanpo-merkataritzaren gaineko eskumen osoa, eta horren isla da Estatuak monopolioa edukitzea arlo horretako legegintzan. Hala ere, gaur egun Europar Batasunak irudikatzen duen errealtatea ere nabari dugu.

Aduana-gaietan Europako aragintzaren adierazpen nagusia dugu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamendua, Batasunaren Aduana Kodea ezartzen duena (EBAO, L 269/1, 2013ko urriaren 10ekoa). Aduana-prozeduren erregimena argitzen duen arau multzoa daukagu erregelamendu horretan. Gainera, adierazgarriak dira haren aplikazio-eremuari eta aduana kontzeptuari buruzko aipamenak eta 5. artikuluan dauden definizioak, benetan garrantzitsuak. Aipatzeko modukoak dira honako kontzeptu hauei dagozkien definizioak ere: aduana-agintariak; erabakia (administrazio-egintza gisa ulertuta); aduana-estatutua; aduana-zaintza; aduana-kontrolak; aduana-araubidea; praktika askeko bidalketa; aldi baterako gordailua; aduanako adierazpena; adierazpen-egilea; salgaiak jasotzea; edo araubidearen titularra.

EBren Aduana Kode horrek baditu beste osagai batzuk aduana-prozeduren erregimena arautzeko gako direnak, hala nola aduanako ordezkarietarako eskubidea, edo 1. tituluko 2. kapituluko 3. atala, aduana-legeriaren aplikazioaren inguruko erabakiekin zerikusia duten gaiak arautzen dituena (erabakiok administrazio-egintzak dira eta zenbait formalitate bete behar dituzte, epeei eta arrazoitzeari dagokienez), edo are titulu eta kapitulu bereko 6. atala, errekurtsioak aipagai dituenak (43.-45. bitarteko artikulua).

Aduana-prozeduraren faseak ere arautzen ditu Europar Batasunaren Aduana Kodeak (952/2013 EB Erregelamendua). Hala, hainbat gai sartu dira Europako arauan; besteak beste, aduanan salgaiak aurkeztea (139. artikulua); adierazpen laburtua eta aduanan aurkeztutako salgaien deskarga (127. eta 140. artikulua); aldi baterako gordailua (237.-243. bitarteko artikulua) eta geroko aduana-helmuga (250.-254. bitarteko artikulua); eta aduana-araubideen adierazpena (271. artikulua eta hurrengoak).

Aduanako adierazpenaren arauketan baditugu prozedurari buruzko aurreikuspen batzuk. Besteak beste, hura gauzatzeko modua (170. artikulua eta hurrengoak), inprimakien erabilera eta agirien aurkezpena; adierazitakoaren egiaztapena (188.-193. bitarteko artikulua); prozedura erraztuak (177. artikulua eta hurrengoak); edo inportazio- nahiz esportazio-eskubideen kobrantza, ordainketa, itzulketa eta barkamena (101.-123. bitarteko artikulua).

Errekurtsioen araubideaz diharduen titulua adibidetzat hartuta, besterik gabe, batek berehala erreparatzen die prozedurazko izaera garbia duten aurreikuspenei: errekurtsioa jartzeko eskubidea eta isiltasun negatiboaren aurreikuspen implizitua (44. artikulua); nahitaezko errekurtsioa jartzeak erabakiaren bete-arazpena ez etetea (45.1 artikulua); edo aduana-agintariak erabakia eten ahal izatea, horren legezkotasu-

naz zalantzak dauden kasuetan edo interesdunari kalte konponezina eragin diezaiokeela pentsa daitekeenean (45.2 artikulua).

Hain zuzen ere, Europako arauak biltzen dituen eduki juridiko-administratiboek zerikusia dute bai aduana-prozeduraren araubidearekin eta administrazio-egintzarekin, baita agintari eskudunek aduana-arau aplikagarriak aplikatuz egikaritu ditzaketan ahalekin ere (kontrolatzeko, zaintzeko edo/eta era guztietako neurriak hartzeko ahalak.

6.2. Muga-zergen TARIC kodea eta muga-zergen nomenklatura. Armak, defentsarako materialak eta erabilera bikoitzeko teknologiak edo/eta produktuak. ezkutuko salmentak ote?

Muga-zergen TARIC Kodea muga-zergei buruzko arau multzo bat da, eta funtsean osagai hauek ditu: Salgaiak Izendatzeko eta Kodetzeko Sistema Harmonizatua (SH), Nomenklatura Konbinatua (NK), eta Europako Erkidegoetako (gaur egun Europar Batasuna) Muga-zerga Integratua.

Salgaiak Izendatzeko eta Kodetzeko Sistema Harmonizatua (SH) 1987an berretsi zuen EEEK. Progresiboki egituratu, ordenatu eta sailkatutako nomenklatura da, halako moduan non sekzioek lehengaietatik (animaliak, landareak eta mineralak) abiatuta egiten baitute aurrera. Kontuan hartu behar da, gainera, kapituluak salgaien lantze-egoeraren eta osagaien arabera egiten dutela aurrera; gero, lantze-graduaren arabera, eta hori guztia, betiere, haien erabilerari edo xedeari erreparatuta.

Nomenklatura hori erabiltzen duten herrialdeak 177 baino gehiago dira, eta konpromisoa hartu dute beren nomenklaturak Sistema Harmonizatuan oinarritu daitezen, sei zifrako kodea baino goragoko mailako azpizatiketak egin ahal izango badituzte ere; aduana-nomenklatura eta estatistikoa batuko dituen testu bakar bat onar daiteke. Sistema Harmonizatuaren bitartez nazioarteko merkataritza errazten da, kanpo-merkataritzaren estatistikak homogeneizatzen dira, merkataritzako negozioak errazten dira eta tresna informatiboak erabiltzeko aukera ematen da.

Nomenklatura Konbinatua (NK), EB mailan, Kontseiluaren 1987ko uztailaren 23ko 2658/87 Erregelamenduan dago araututa. Erregelamendu hori muga-zergazko eta estatistikako nomenklaturari eta aduana-tarifa erkideari buruzkoa da (1987ko irailaren 7ko EBAO).

Nomenklatura Konbinatua Europar Batasuneko muga-zergazko eta estatistikako nomenklatura da, eta Sistema Harmonizatuaren kodifikazioaren azpizatiketa da. Horretarako zazpigarren eta zortzigarren zifrak erabili eta 8 digituko kodea lortzen da. Nomenklatura Konbinatua gure egungo kodetze-sistemaren oinarria da.

Azkenik, Europako Erkidegoetako Muga-zerga Integratuan biltzen dira aduana-eskubideen motak eta EBren zenbait arau, bertako kanpo-merkataritzari aplikatu beharrekoak.

Batzordeak urtero erregelamendu bat onartzen du eta bertan jasotzen ditu nomenklatura konbinatuaren bertsio osoa eta aduana-tarifa erkidearen eskubideen tasak, Kontseiluak eta Batzordeak egindako aldaketan argitan.

Batzordea arduratzen da TARICen zabalkundeaz eta kudeaketa informatizatuaz. Kode-zenbakia esleitzen du, eguneratu egiten du, eta gertatzen diren aldaketak EBko herrialdeei jakinarazten dizkie.

Arma eta munizioen atalean TARICek korrelazio hau dakar:

93 00 000000 Armak eta munizioak; horien zatiak eta osagarriak.

93 01 000000 Arma militarak, salbu eta 9307 partidako armak, pistolak eta errebolberrak.

93011000 Artilleriako piezak (adibidez, kanoiak, obusak eta morteroak).

93012000 Suziri-jaurtigailuak; gar-jaurtigailuak; granada-jaurtigailuak; torpedo-jaurtigailuak eta antzeko jaurtigailuak.

93019000 Gainerakoak.

93 02 000000 Errebolberrak eta pistolak, 9303 eta 9304 partidakoak izan ezik.

93 03 000000 Beste su-arma batzuk eta antzeko gailuak, lehergai-karga bat jaurtiz funtzionatzen dutenak (esate baterako, kiroleko eskopeta eta errifleak, kargatzeko su-armak, seinale-bengalak bakarrik jaurtitze-

ko diseinatutako pistolak eta beste gailu batzuk, munizio zuriak jaurtitzeko pistolak eta errebolberrak, eta lineako tiroko armak).

93031000 Aurrekargako armak.

930320 Ehizarako edo kirol-tirorako gainerako arma luzeak, arima lauko kanoi bat dutenak gutxienez.

93032010 Arima lauko kanoi bat dutenak.

93032095 Gainerakoak.

93033000 Ehizarako edo kirol-tirorako gainerako arma luzeak.

93039000 Gainerakoak.

93 04 000000 Beste arma batzuk (adibidez, pistolak eta malgukizko pistolak, airezkoak edo gasezkoak, borrak), 9307 partidakoak izan ezik.

93 05 000000 9301etik 9304ra bitarteko partidetakoen gaien zatiak eta osagarriak.

93051000 Errebolberrenak edo pistolenak.

93052000 9303 partidako arma luzeenak.

93059100 9301 partidako gerra-armenak.

93059900 Gainerakoak.

93 06 000000 Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak eta gerrako antzeko munizioak eta haien zatiak; kartutxoak eta beste munizio eta jaurtigai batzuk eta haien zatiak, tiro- eta kartutxo-sortak barne.

93062100 Kartutxoak.

93062900 Gainerakoak.

930630 Gainerako kartutxoak eta haien zatiak.

93063010 9302 partidako errebolber eta pistoletarako eta 9301 partidako metrailadoreetarako direnak.

93063030 Gerrako armetarako direnak.

93063090 Gainerakoak

930690 Gainerakoak.

93069010 Gerrakoak.

93069090 Gainerakoak.

93 07 000000 Ezpatak, labanak, baionetak, lantzak eta antzeko besoak eta haien zatiak eta zorroak.

Azpiratu behar da, hala ere, armamentu- eta defentsa-materialen eta haien munizioen gaineko aduana-tarifaren kode horiek jasorik egon arren, kode horietako bakoitzari erantsitako informazioaren bilaketak agerian jartzen duela sistemaren gabezia bat, hain zuzen ere sistemaren gardentasun edo/eta publizitate falta nabarmena. Izan ere, Espainiatik munduko beste edozein herrialdetara egindako arma-esportazioen datuak egiaztatze edo/eta erkatze garaian, informazioa lerratua eta partziala da. Esportatu beharreko salgai edo/eta produktuak beste mota batekoak izaten direnean ez da horrelako arazorik egoten.

Aurrekoaren ildotik, eta adibide gisa, bilaketa egiten badugu Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren DATACOMEX zerbitzuan (<http://datacomex.comercio.es>) aduana-tarifaren 9300000000 kode generikoarekin, zeinak era guztietako munizioak eta armak biltzen baititu, datu orokorrak baino ez ditugu ikusiko, ez zaigulako utziko helmugako herrialdera jaistea.

Horrez gain, produktu hori (TARIC 930000) mundura (orokorrean) esportatzen ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak 2015ean 23 izatetik 2018an 27 izatera igaro direla ikus daiteke, eta horrek esan nahi du azken urteotan handitu egin dela armamentua fabrikatzen eta esportatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen kopurua.

Era berean, fakturazioa 2015ean 69.158,81 mila euro izatetik 2018an 80.595,00 mila euro izatera igaro dela ikus daiteke; beraz, horrelako eragiketaz hazi egin dira lau urteko epean.

ENPRESA ESPORTATZAILEEK 'Euskal Herritik' egindako esportazioak: '93 ARMA ETA MUNIZIO; OSAGARRIAK' aldian: 'Urte zehatua, honako hilabete hauek soilik kontuan hartuta: (01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 10)'. Neurriak: 'Enpresa kopurua, mila euro'.

Oharra: Sekretu estatistikoa betetze aldera, emaitzan gidoi batekin ezkutatu diren gelaxkak ager daitezkeela ohartarazten da. Ezkutuko balioak 5 enpresa edo gutxiagoren datuekin kalkulatu dira.

Mundua guztira

| Elementua | | 2017 (01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 10) | | 2018 (01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 10) | | 2016 (01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 10) | | 2015 (01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 10) | |
|-----------------------|---|---|-------------|---|-------------|---|-------------|---|-------------|
| | | Enpresak | Milaka Euro | Enpresak | Milaka Euro | Enpresak | Milaka Euro | Enpresak | Milaka Euro |
| Mundua guztira | 93 ARMAK ETA MUNIZIOAK; OSAGARRIAK | 26,00 | 76.831,10 | 27,00 | 80.595,28 | 25,00 | 71.485,75 | 23,00 | 69.158,81 |

Iturria: DATACOMEX, Ekonomia Ministerioarena

Beste alde batetik, eta adibide moduan bakarrik, Euskal Autonomia Erkidegotik Arabiar Emirerri Batuetara edo/eta Saudi Arabiara egindako arma-esportazioen gaineko informazio zehatza lortu nahi bada, informazioa hutsik agertuko da.

Izan ere, aztertutako sistema ikusita, itxuraz, ondorioztatu behar da armak ekoizten dituzten enpresen esportazioari buruzko datuak ez direla aduanetako erregistroetan jasorik geratzen Administrazioak onartu egiten duelako beti hutsik ager daitezen aduana-tarifetako zenbait partida, hala nola gerrako armak edo/eta lurreko ibilgailu militarrik.

Horrelako salgai edo/eta produktuekin behin eta berriz horrela jokatzeari, funtsean, ezkutuko salmentak egitea da edo kalifikazio hori dagokio. Alegia, armen industriarekin zerikusia duten produktuen transferentziak edo salmentak egiten ari dira, Administrazioak baimena emanda haiek estal daitezzen edo aduana-tarifetan dagokien kodea alda dadin, segurtasun-arrazoiengatik, produktuok detektatzeko edo/eta haien arrastoari jarraitzeko modurik izan ez dadin.

VII. EAEko erakundeen egitekoa: sektoreko EAEko enpresa-operadoreei kontrol-mekanismoak ezartzea, gardentasuna eta erantzukizuna arazotzeko

7.1. Egungo egoeraren testuingurua. gizarte-erantzukizun korporatiboa eta gardentasuna: eae-ko arma-sektorearen jokabide-, etika- edo/eta gardentasun-kodeei buruzko aipamena

7.1.1. Atariko gogoetak, eta gizarte-erantzukizun korporatiboa

Lehenik ohartarazi behar da irizpen honetan EAEko arma-sektorea aipatzen dugunean kontzeptu horretan sartzen ari garela zuzenean edo/eta zeharka defentsa-materialak, armak, munizioak edo/eta erabilera bi-koitzeko teknologia edo/eta produktuak fabrikatzen, transferitzen, esportatzen, ekoizten edo/eta halako hornidura ematen duten EAEko enpresa guztiak, eta baita EAEko, Espainiako, Europako edo/eta nazioarteko beste enpresa batzuek horrelako produktuak edo/eta salgaiak fabrikatzeko erabil ditzaketen materialak ekoizten, transferitzen, garraiatzen, esportatzen edo/eta halako hornidura ematen dutenak ere.

Europako Batzordeak honela definitzen du gizarte-erantzukizuna: “konpainia batzuek bat egitea gizarte- eta ingurumen-gaiei buruz dituzten kezkei heltzeko beren solaskideekiko harremana kontuan hartuta”. Gizarte-erantzukizun korporatiboaren Estatuko behatokiaren hitzetan, “enpresak zuzentzeko modu bat da, haien jarduerak bezero, langile eta akziodunengan, toki-komunitateetan, ingurumenean eta gizarte osoan duten eraginaren kudeaketan oinarritua”. Eusko Jaurlaritzaren hitzetan, gizarte-erantzukizuna deritzo “enpresek gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren alorrean egiten duten borondatezko ekarpen aktiboari, eta ekarpen horren helburua da enpresen lehiakortasun-egoera eta balio erantsia hobetzea”. Ez dago definizio bakarra, eta terminoa bera zehaztuz doa beharrianak sortu ahala.

NBEko kide diren estatu batzuek, *Milurtekoko Garapen Helburuak*⁸ ekimena oinarritzat hartuta, giza eskubideen eta ingurumenaren babesera bideratu zituzten beren ahaleginak, eta horrek eztabaida zabala eragin zuen nazioartean, enpresei eta multinazionalari beren jarduketengatik erantzukizuna eskatzeko mekanismoak ezartze aldera, neurri horiek borondate-adierazpen soilletara mugatuta geratu gabe.

Nazio Batuek, 2005. urtean, J.G. Ruggie-ri esleitu zioten gai horren inguruko kontu nagusiak argitzeko zeregina, eta halaxe sortu ziren “Enpresei eta giza eskubideei buruzko Printzipio Gidariak”, enpresa-jardunbide arduratsuagoak bermatzeko ibilbide-orria eskaintzen zutenak. *Enpresei eta giza eskubideei buruzko Printzipio Gidariak: “babesteko, errespetatzeko eta konpontzeko” Nazio Batuen esparrua praktikan jartzea* izeneko dokumentua osorik onartu zuen Giza Eskubideen Kontseiluak 2011ko ekainaren 16ko A/HRC/RES/17/4 Ebazpenaren bitartez.

Bide horretan, 2011ko maiatzaren 25ean, Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeko (ELGE) kide ziren estatuak eta kide ez zirenek argitara eman zituzten *ELGEk enpresa multinazionalentzat jarritako Gidalerroak*, eta han giza eskubideei buruzko kapitulu berri bat jaso zuten, *Ruggie Printzipioekin* bat zetorrena. Nazio Batuetan lortutako printzipio gidariak ez ziren lotesleak, ordea, eta ez ziren nahikoa gertatu, ez zutelako inolako mekanismorik ezarri kontuak emateko, gardentasunerako, arreta egokirako eta biktimei ordaina emateko. Borondatez betetzekoak dira, eta ez dute inol behartzeko indar loteslerik. Nolanahi ere, lehenik zegoenaren aldean aurrerapauso bat izan ziren.

Giza Eskubideen Kontseiluaren 37. bilkuran, 2014ko ekainaren 26an, A/HRC/RES/26/9 Ebazpena onartu zen. Bertan erabaki zen *Nazioarteko tresna bat prestatzea, enpresa transnazionalak eta beste enpresa ba-*

8 Milurtekoko Garapen Helburuak (Milurtekoko Helburuak ere esaten zaie) giza garapenaren bidean 2000. urtean finkatutako zortzi xede dira, eta Nazio Batuetako kide diren 189 herrialdeek adostu zuten 2015erako lortu behar zirela helburu horiek.

tzuk juridikoki lotetsiko dituena, giza eskubideei dagokienez. Dokumentu horretan ezarri zen enpresa transnasionalei eta beste enpresa batzuei buruzko gobernuarteko lantalde bat sortuko zela, osaera irekikoa, giza eskubideei begira. Helburua zen tresna juridikoki lotesle bat prestatzea enpresa transnasionalen jarduerak arautzeko giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidean.

Bestalde, ISO 26000 nazioarteko arauak, Gizarte-erantzukizunari buruzko Gida deitutakoak, sektore publiko eta pribatuko era guztietako erakundeei ibilbide-orri global bat eskaintzen die modu harmonizatuan, alderdi interesdun nagusiak ordezkatzeko dituzten nazioarteko adituek lortutako adostasunean oinarrituta. Beraz, gizarte-erantzukizunerako jardunbide egokien aplikazioa sustatzen du mundu osoan.

Era guztietako erakundeek erabil dezaten diseinatu da ISO 26000 araua: sektore publikoan nahiz pribatuan, herrialde garatuetan edo garapen-bidean daudenetan, baita trantsizioko ekonomietan ere. Arau horren birtartez, guztiei lagundu egin nahi zaie gizarte-erantzukizunez jarduteko ahaleginean. Ez da ziurtapen-arau bat ISO 9001:2008 edo ISO 14001:2004 arauen antzera, adibide batzuk aipatzearen.

Hauxe da erronka: nola gauzatu printzipioak eta nola implementatu eraginkortasunez GEKa, baita terminoaren beraren norainokoaz eta ulerkeraz zalantza egiten denean ere.

Badirudi Frantziak eman duela lehen pausoa, EBko estatu kide gisa, 2017ko martxoaren 27ko 2017-399 Legea onartuta, hau da, "Zaintzeko Eginbeharraren Legea". Xedapen hori Frantziako Merkataritza Kodean txertaturik dago. Hari buruzko eztabaida luzea egin zen Frantziako Biltzarrean, enpresen aurkako akzio eta zehapen zehatzak arautzen zituelako.

Frantziako lege horren onarpena urrats sendo bat izan da multinazionalak giza eskubideen eta ingurumenaren babesaren arloan juridikoki lotetsiko dituen nazioarteko tresna bat sustatzearen garrantziari buruzko eztabaidan sakontzeko. Frantziako lege horren bidez gauzatu da, neurri batean, juridikoki loteslea izango den tresna baten sorrera, multinazionalak giza eskubideak errespetatu dituzten.

Enpresen betebeharrak bilduko dituen dokumentu bat prestatzeko bidean emandako babesak nazioartean piztu duen interesa bistakoa da. Frantzia oso jardule politiko garrantzitsua eta ahaltsua da Europar Batasunean. Hala, hurbilketa horren ondorioz, hainbat eragile politikok, garapenerako gobernu kanpoko erakundeek eta gizarte zibilak presioa egin zuten, EBko herrialdeetako gobernuak proiektu horren eraikuntzarako ekarpenak eta proposamenak egiten hasi zitezten.

Kudeaketa horiek ekintza zehatzak eskatzen dituzte, ez Frantziak bakarrik, baizik eta Europar Batasun osoak burutu beharrekoak. Elkarrizketarako guneak sortu behar dira, eta Europako blokeak bere osoan aurrera egin ahal izateko mekanismoak erabili behar dira.

GEKaren Behatokiaren arabera, Espainian, globalizazioak ahalbidetu du enpresen boterea handitzea estatuen kalterako, eskubideak gutxitzea atzerriatik zuzeneko inbertsioa erakartzeko, deslokalizazio-prozesuak egitea eta oinarritzko zerbitzuak pribatu bihurtzea. Ingurune horrek elikatu du GEKari buruzko eztabaida, enpresek oro har eta multinazionalak bereziki gizarte- eta lan-eskubideetan, ingurumenen eta, funtsean, giza eskubideetan duten eragin negatiboa arintzeko tresna den aldetik.

GEKa zeharkako kontzeptua da, enpresaren kudeaketaren hainbat arlo ukitzen dituena. Beraz, GEKaren esparruko jarduerak enpresaren oinarritzko jarduerari lotuta egon behar dute, iraunkorrak izan behar dute eta goi-zuzendaritzaren konpromisoa ekarri behar dute berekin. Bestela ezinezkoa da GEKaren bikaintasun-mailarik lortzea.

Badago adostasuna GEKak biltzen dituen arlo nagusiei buruz: ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloei buruz. Hala ere, GEKak dimentsio-aniztasuna du ezaugarri nagusia, enpresaren kudeaketaren hainbat arlo ukitzen baititu, hala nola giza eskubideak, laneko eta enpleguko jardunbideak, osasunaren babesa, ingurumen-arazoak, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borroka edo kontsumitzaileen interesak, besteak beste.

Euskadin, duela urte batzuetatik bultzada ematen ari zaio gizarte-erantzukizunari. Gaur egun badago laguntza-lerro bat GEKeko metodologiak gauzatzeko. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak egin du deialdia⁹. Laguntzen bitartez gizarte-erantzukizunaren balioak eta printzipioak hedatu nahi dira gizarte-ekonomiaren eremuaz harago, gizarte-erantzukizunaren garapenean bete-betean ahalegintzea gizarte-ekonomiako enpresarantzko aldaketa planteatzeko aurretiazko eta behin betiko urratsa izan daitekeela sinetsita. Beste

⁹ AGINDUA, 2018ko urriaren 3koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak, bai eta laguntza horiek jasotzeko deialdia egin ere. 2018ko urriaren 10eko EHAA, 196. zk.

ekintza batzuen artean, aurreikusten da gizarte-erantzukizunari buruzko prestakuntzarako metodologiak lantzea; horiek ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) jasangarritasun-memoriak eginez, eta gizarte-erantzukizunaren kultura hedatzea, jardunbide egokien identifikazioaren bidez.

GEKa egunetik egunera garrantzi handiagoa hartzen ari da ingurune jasangarria sortzea ahalbidetzen duten alderdi guztien kudeaketa bateratua agertu nahi duten erakundeetan –horretarako bitartekoak dira erakundearen negozioaren errentagarritasun eta jasangarritasun ekonomikoa eta ingurunearen ingurumen-jasangarritasuna–, eta hartan datza antolaketa eta jasangarritasun soziala, enplegu-sorreratik hasi eta balio sozialen sustapeneraino.

Euskal Autonomia Erkidegoan GEK gaitan egin diren lan guztien artean, Innobasqueko i-taldeak 2013an taxutu zuen lan-metodologia nabarmentzen da, enpresetan GEKa ezartzea helburu duena. Horren nondik norakoak azalduko ditugu.

Innobasqueko i-taldearen metodologiaren xedea da erakundeek gogoeta egitea zer-nolako jarrera duten gizarte-erantzukizunari buruz, eta horrek beren lehiakortasunaren hobekuntzarako gakoak identifikatzen lagunduko die, enpresei orientabidea emateko dagoeneko gauzatzen ari diren ekintzak eta konpromisoak bistaratu eta horien balioaz jabe daitezen, ziur aski ez baitira ohartu EGEaren esparruarekin duten loturaz, enpresak ekintzaren bidean jartzeko, tresna erabilerraz batzuk eskaintzeko, edozein erakundek balia ditzakeenak, haren tamaina, jarduera-sektorea edo kokapena edozein izanda ere.

Printzipio korporatiboak aldatu egiten dira erakundetik erakundera, baina gizarte-erantzukizuneko jarrera harrarazten duten printzipioak ez, horiek enpresa guztientzat berdinak dira. ISO 26000 arauak aurreikusten dituen printzipioak dira GEKeko estrategia on batean zaindu behar direnak.

Hona printzipio horietako batzuk, gida edo ibilbide-orri izango direnak, enpresak hobekuntzak sartu ahal izan ditzaizkizuten:

- *Legea errespetatzea.* Gizarte-erantzukizuna duen erakunde batek onartu eta errespetatu egin behar du zuzenbidezko estatua, aplikatzekoak diren lege, erregulazio eta araudi guztiak betez. Printzipio horrek berekin dakar legea nagusi izatea gizabanako edo erakunde baten edozein jokabideren aurrean.
- *Nazioarteko jokabide-arauak errespetatzea.* Erakunde batek nazioarteko jokabide-arauak errespetatu behar ditu eta, horrekin batera, men egin behar dio zuzenbidezko estatuaren errespetuaren printzipioari. Printzipio horren arabera, enpresa batek herrialde batean jarduten badu zeinean legeak ez baititu bermatzen gutxienezko gizarte- edo ingurumen-babesak, edota jokabideari buruzko nazioarteko araudiarekin gatazkan suertatzen bada, nazioartean ezarrita dauden jokabide-gidetara jo beharko du.
- *Giza eskubideak errespetatzea.* Erakunde batek giza eskubideen garrantzia eta unibertsaltasuna onartu behar ditu. Giza Eskubideen Gutun/Adierazpen Unibertsalean ezarritako eskubideak errespetatu eta sustatu behar ditu, eta onartu unibertsalak direla eta beren osotasunean aplikatu behar direla herrialde, kultura eta egoera guztietan.
- *Osotasuna.* Erakunde batek jokabide etikoa izan behar du une oro. Zer inguruetan diharduen, hango ohitura moralen arabera egoki den hura ere egin behar du, eta ez legezkoa dena bakarrik. Horrek berekin dakar antolaketa-egitura egokia garatzea, enpresan portaera etikoa sustatu eta jokabide etikoari buruzko arauak definituko dituen, balio korporatiboak espero diren jokabideetara ekartzeko.
- *Materialtasuna.* Erakunde batek, bere jardueraren zein alderdik eragiten dioten gehien inguruko oreka jasangarriari, alderdi horietan egin behar du ahalegin berezia.
- *Alderdi interesdunen interesak errespetatzea.* Erakunde batek bere interes-taldeen interesak errespetatu eta aintzat hartu behar ditu bere jardueran. Non diharduen, hango komunitate eta inguruneen interes eta errealitatei erantzun behar die, eta zaindu egin behar ditu. Interes horiek errespetatzen dituzenez gero, gizarteak harengandik espero duen egitekoa beteko du enpresak, eta ez die bere finantza-hornitzaileen (akziodun, banku eta abarren) interesei bakarrik erantzungo.
- *Ingurumena errespetatzea.* Erakunde batek bere unean uneko beharrianak asetzen saiatu behar du eta ingurumena babestu eta kontserbatzearen aldeko konpromisoa agertu behar du. Prebentzioari begira jokatu behar du, arlo horretako informazioa eta prestakuntza sustatuz, etorkizuneko jokalekuak bermatzeko.
- *Gardentasuna.* Erakunde batek garden jokatu behar du gizarteari eta ingurumenari eragiten dieten erabaki eta jardueretan, hala bere barneko harremanetan nola kanpokoetan. Modu argi, zehatz eta osoan

eta zentzuzko eta behar adinako graduan eman behar du aditzera bere ardurapeko politika, erabaki eta jardueri buruzko informazioa, eta argi utzi behar du benetan zer ondorio dakarten interes-taldeei dagokienez onartu dituen konpromisoak eta politikak. Informazioak egokia izan behar du, egitateetan oinarritua, modu argi eta objektiboan aurkeztua, erraz eskuratzeko modukoa, eta interes-talde bakoitzaren hizketa-mailari egokitu.

•*Kontuak ematea*. Erakunde batek bere gain hartzen du gizartean eta ingurumenean duen eraginaren erantzukizuna. Kontuak emanez, enpresak adierazten du erantzuna ematen diela bere interes-taldeei eta horien itxaropenei; horregatik, erantzun egin behar du talde horien eskariaren eta azterketaren aurrean. Printzipio horren ildotik, halaber, erantzukizuna onartu behar du, hutsegiteren bat eginez gero, eta hutsegiteak konpontzeko edo aurrea hartzeko neurriak hartu behar ditu.

Innobasquek enpresetan gizarte-erantzukizuna ezartzeko landutako metodologiaren ataletako batean, enpresek galdera batzuei erantzun behar diete. Besteak beste, galdera hauek egiten zaizkie:

1. Zer berrikuntza dakar gizarte-erantzukizunak?

Berrikuntzaren ikuspuntutik ezinbestekotzat jotzen da gogoetarako tresna estrategiko bat edukitzea GEKaren esparruan, erabilgarri izan daitekeena mota guztietako erakundeentzat, edozein izanik ere haien tamaina, jarduera edo enpresen gizarte-erantzukizunaren arloan egina duten bidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-enpresen kasuan, hori guztiz baliagarritzat jo liteke haien ospea eta irudia hobetzeko, komunitatearekin duten harremana hobetze aldera, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren errespetua ez ezik gardentasuna ere helburu dutela.

2. Enpresa jabetuta al dago bere jarduera inpaktuak sortzen ari dela esparru jakin batzuetan?

Erakundeak, bere negozio-estrategian, interes-taldeak lehenetsi eta segmentatu behar ditu, eta haiekiko komunikazio erosoan ezarri, zer behar duten eta zer espero duten jakin ahal izateko, eta integrazio-programak ezarri behar ditu. Jaramon egin behar dio bezeroari.

Halaber, konpromisoak hartu behar ditu arloz arlo, helburuak zehaztu, eta epe laburreko eta ertaineko ekin-tza-planak garatu behar ditu. Komeni da erakundeak adierazleak ezartzea, ibilbide-orri modukoak, eta haiek aztertzea emaitzak baloratzeko eta zer arlotan egin behar duen hobera erabakitzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko arma-enpresek, lehenengo eta behin, enplegua eta aberastasuna sortzen dute eskualdean, baina, jakina, beren negozioaren xedeari buruzko dilema edo eztabaida morala ere sortzen dute. Egokia izan liteke komunikazio/publizitate bideak ezartzea, negozio jakin horren garapenaren berri emateko herritarrei eta haren inguruneari.

3. Zeintzuk dira garrantzizko inpaktuak?

Enpresari EGEa barneratzen lagun diezaioketen neurriak izan daitezke, halaber, arlo guztietan lortutako aurrerapenen berri zabaltzea, haren interes-taldeak sentikortzea ingurumen-inpaktua gutxitzeko neurriak hartzearen garrantziaz, edota EGEarekin lotuta enpresak landu ditzakeen negozio-arlo berriak ezagutzea.

Armen industriaren kasuan, inpaktua ekonomikoa da, baita etikoa ere.

4. Horietatik zeintzuk aldatzeko aukera duzula uste duzu?

Eragiketen esparruan, enpresak gizarte- eta ingurumen-irizpideak sar ditzake hornitzaileen ebaluazioan, tokiko, eskualdeko edo/eta estatuko kontratazioa susta dezake, eta inbertsioak egiterakoan aintzat har ditzake irizpide etikoak eta jasangarritasunari lotutakoak. Horrez gain, babesa eman diezaieke komunitatearekiko konpromisoa hartzen eta azpiegiturak eta ingurunea hobetzen laguntzen duten programei, enpresak lantokiak dituen zonetan.

Armamentu-enpresek jarduteko aukera handiagoa dute inpaktu etiko eta moralaren kasuan. Komunikazioa, jariakortasuna eta gardentasuna sustatzen dituzten tresnak erabil ditzakete, eta armen arloko negozio batek dituen "alderdi gatazkatsu" horiek nolabait orekatuko dituzten jarduketak egin ditzakete. Alegia, indartu egin dezakete beren gizarte-laneko alderdia.

5. Zer egin dezake enpresak etikaz jarduteko eta bere gizarte-erantzukizuna hobetzeko?

Enpresak bezeroekiko kontratu-harremanen ondoriozko betebeharrak bete behar ditu, epean eta behar den eran, eta, nazioarteko jokabide-arauei dagokienez, nazioarteko estandarren aplikazioa bermatu behar

du ingurumen- eta lan-arloko araudirik ez duten edo lasaiegia duten herrialdeetan diharduten bezeroekiko harremanetan.

Giza eskubideei dagokienez, administrazio publikoekiko harremanetan enpresak identifikatu eta kudeatu egin behar ditu giza eskubideak urratzen diren herrialdeekiko kontratazio kasuak. Halaber, osotasun-printzipioari jarraituz, publizitate ez-sexista erabili behar du, gizonaren eta emakumearen estereotipoak gainditzen dituen eta inola ere salaketarako biderik ematen ez duena. Jarrera profesional eta zintzoa izan behar du bezeroekiko harremanetan, eta haiekin baldintzak negoziatzerakoan posizioaz abusatzea eragotziko duten mekanismoak ezarri behar ditu.

Giza eskubideei dagokienez, enpresak uko egin behar dio giza eskubideen kontrako praktikak egin edo onartzen dituzten entitateak finantzatzeari edota horrelako laguntzaile zein hornitzaileak kontratatzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko arma-industriari dagokionez, egokia litzateke enpresak jokabide-kode etiko bat sortzea (edo lehendik baden bati atxikitzea). Kode horretan bere balioak azalduko ditu, giza eskubide guztiak eta arloko legeria osoa, estatukoa zein nazioartekoa, errespetatzen dituela adieraziko du, eta bere negozioan legezko prozedurei jarraituz aritzeko konpromisoa hartuko du. Eta erosleei eskatuko die egokiro erabil ditzatela bere produktuak, baimenik gabe hirugarrenei transferentziak egiterik onartu gabe.

Giza eskubideei dagokienez, enpresak eskualdeko gizarte-elkarteekin lankidetzan jardun dezake bazterketa-arriskuan dauden pertsonen laguntzeko, edota GKEekin nahiz beste elkarte batzuekin, komunitatearentzat lehentasunezkoak diren boluntariotzako ekintzak identifikatzeko. Gainera, osotasun-printzipioa betetze aldera, langileen eta toki-inguruneke pertsonen artean botere-abusuzko egoerarik sortuko ez dela bermatzeko neurriak har ditzake.

Enpresak aldian behingo bilerak egin ditzake elkarteekin eta komunitatearen beste ordezkari batzuekin, eta komunitateari eragiten dioten erabakietan bizilagunek eta elkarteek parte har dezaten susta dezake.

7.1.2. Sektoreko EAEko enpresa batzuen jokabide-, etika- edo/eta gardentasun-kodeen azterketa, indarguneak eta gabeziak

Irizpenaren atal honetan EAEko arma-sektoreko enpresetako batzuen kode etikoen azterketaren balorazioa jaso da. Gorago ohartarazi dugun bezala, kontzeptu horretan sartzen dira zuzenean edo/eta zeharka defentsa-materialak, armak, munizioak edo/eta erabilera bikoitzeko teknologia edo/eta produktuak fabrikatzen, transferitzen, esportatzen, ekoizten edo/eta halako hornidura ematen duten EAEko enpresa guztiak, eta baita EAEko, Espainiako, Europako edo/eta nazioarteko beste enpresa batzuek horrelako produktuak edo/eta salgaiak fabrikatzeko erabil ditzaketan materialak ekoizten, transferitzen, esportatzen edo/eta halako hornidura ematen dutenak ere.

7.1.2.1. Azterketa enpresaz enpresa, eta haien korrelazioa

·**ADS (ADVANCED DYNAMIC SYSTEMS)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

·**AEG POWER SOLUTIONS IBÉRICA (LEHENGO SAFT)**. Enpresak dioenez, bere “negozio-harremanak bultzatzen dituzten balioak dira berrikuntza, errespetua, erantzukizuna, fidagarritasuna eta enpresa-jokabide etikoa”. Horrez gain, bere kode etikoan zehaztapenen batzuk egiten ditu giza eskubideak babesteko konpromisoari buruz: “AEG Power Solutions is committed to respect human rights everywhere it does business. In line with the principles laid down in the United Nations Global Compact, the Group supports and respects the protection of internationally proclaimed human rights and makes sure that it is not complicit in human rights abuses, such as forced, compulsory or child labor”. Haren jokabide-kodean hainbat aipamen daude enpresak bere kode etikoak beteko direla bermatzeko erabiltzen dituen mekanismo edo tresnei buruz. Group Compliance Officer AEG Power Solutions Compliance Officer. Jokabide-kodearen urratzeak detektatzeko eta horien aurrean jarduteko eginkizuna du. Horrez gain, jokabide-kodeak implementatzeko eta enpresako langileak haien garrantziaz ohartarazteko eginkizuna ere badu. Beste alde batetik, Human Resources Management delakoaren ardura da zehapenen kodea egitea, jokabide-kodeen urratzei begira. Halaber, jokabide eta konpromiso etiko horiek langileen preskakuntzan txertatzeko eginkizuna du. Enpresa horrek bere jokabide-kodean jaso du, bestalde, indarrean dauden jokabide-kodeak urratu direla detektatuz gero jarraitu beharreko prozedura.

·**AERNOVA AEROSPACE S.A.** Bere kode etikoan konpromiso irmoa hartzen du estatuko eta nazioarteko legerian aitortutako giza eskubideak errespetatzeko, eta, bereziki, Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak betetzeko, baina ez du zehazten nola gauzatuko duen konpromiso hori.

Nolanahi ere, honako hauek sortzeko aukera jasotzen du: “delituei aurrea hartzen dieten edo delituak egiteko arriskua nabarmen gutxitzen duten zaintza- eta kontrol-neurri egokiak barnean dituzten antolaketa- eta kudeaketa-ereduak”. Ezarritako prebentzio-ereduak nola funtzionatzen duen eta hura nola betetzen den gainbegiratzeko ardura emango zaio ekimen- eta kontrol-ahal autonomoak dituen organo bati, edo konpainiaren barneko kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzeko eginkizuna legez esleituta daukan organoari. Delituen prebentzioa kudeatzeko sistema hori tresna bat izango da, kode etiko honetan ezarrita dauden eta sistemak berak babestu beharreko ondasun juridikoei lotuta dauden portae-ra-arauak bete daitezen adi egongo dena.

•**AEROMEC**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**AEROSPACE ENGINEERING GROUP S.L.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**AEROTEAM S.L. (AERONAUTICAL ENGINEERING)**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**AIBE (TALLERES AIBE S.A.)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**AITOR (CUCHILLERIA DEL NORTE)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ALESTIS AEROSPACE**. Gizarte-erantzukizun korporatiboari buruzko aipamen batzuk egiten ditu, oso abstraktuak (Alestis Aerospacek gizartearekiko duen konpromisoa hark jarduten duen komunitateetako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ekimenen garapenean eta sustapenean gauzatzen da, babesletza- ren, mezenasgoaren eta bestelako lankidetzeta-jarduketek bitartez. Jarduketa horiek berariaz definituko den barne-araudiari jarraituz egin beharko dira, gardentasunez, eta interes orokorra helburu, betiere). Funtsean aipamen horiek ez dagozkio hizpide dugun sektoreari.

•**ALFALAN**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**ALTRAN**. Bere kode etikok lanaren printzipio etiko gisa jaso du “giza eskubideen defentsa”. Lan-ar- loko gaiez ari da, ordea, eta ez armen esportazioaz edo ekoizpenaz. Ez du inolako batzorderik ezarri bere printzipio etikoak bete daitezen arduratzeko. Hala ere, uste dugu honako xedapen hau erabat bateragarria izan litekeela autonomia-erkidegoko behatoki edo/eta batzorde baten sorrerarekin: “Kode Etikok ezarritako printzipioak tokian tokiko arau, estrategia eta jardunbideekin bat etorri bete eta apli- katuko dira”.

•**ARATZ (TALLERES ARATZ)**. Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere. Aero- nautikaren sektoreaz egiten duen aipamena arma-sektorearen zeharkako aipamentzat har liteke. Hori bai, bere bezeroen artean Sener aipatzen du (arma-sektoreko enpresa bat). Esan genezake bere kon- promisoen aipamen oso abstraktua egiten duela (Talleres Aratz enpresan zorroztasunez lan egiten dugu, goi-mailako teknologiarekin, malgutasunez, doitasunez eta planoan zein kontratuan hartutako konpromisoak errespetatuz); baina ez dauka benetako kode etikorik.

•**ARDESA S.A.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ARMAS GARBI SA**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ARMAS KEMEN SL**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ARMAS PARKEMY S.L.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ASA EY S.L.** Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**ASTILLEROS MURUETA**. Gure gaiari aplikatu ahal zaion erreferentzia bakarra hau da: “indarrean dagoen legeria eta nahitaez bete beharreko beste edozein arau eta baldintza betetzeko konpromisoa hartzen du”.

•**AYA AGUIRRE Y ARANZABAL SA**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**BARRENA BOSTAK SL**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**BERETTA-BENELLI IBÉRICA S.A. (BBI)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**BURDINBERRI S.L.** Ontzigintzan hainbat lan egiten dituela aipatzen duen arren, ez du sektoreko par- taide izateari buruzko zuzeneko erreferentziarik egiten. Ez dauka inolako kode etikorik.

•**CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles)**. Gardentasuna bezalako gaien berariazko aipa- mena egiten du bere jokabide-kodean, baina ez du gardentasun hori gauzatzen arma-esportazioari

lotutako inongo konpromisotan. Gardentasunaren aipamen hori egiteaz gainera, badu Betetze Batzordea, bai enpresaren portaera etikoa bai haren jokabide-kodearen errespetua sustatu behar dituen. Halaber, batzorde horrek zehapenak ezartzeko eta diziplina-neurriak erabakitzeko eskumena izango du, jokabide-kodearen kontrako arau-hauste nabarmenik eginez gero.

Enpresa horrek honako hau jaso du bere jokabide-kodean: “Gure bezeroen informazio sentikorra erabateko erreserbaz eta isilpean erabili beharko da eta legezko titularrei bakarrik eman ahalko zaie, ez beste inori, errekerimendu ofizialaren pean ez bada, eta behar diren berme juridikoekin, betiere”. Badirudi horrek eragotzi egiten duela entitateaz kanpoko organoren batek esku hartu eta haren printzipio etikoak edo/eta jokabide-arauak kontrolatzea. Non eta ez den ofizialki eratzten giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publiko bat, Eusko Jaurlaritzak sustatua, edo/eta administrazio publikoen, sektoreko enpresen eta sektore horretako bezero edo erabiltzaileen ordezkariak osatutako batzorde bat (bigarren kasu horretan, batzordeari borondatez men egingo litzaioke, esportazio-baime-naren eskaera Estatuko administrazio-agintaritza eskudunari –JIMDDUri– aurkeztu aurretik).

•**CARABINAS COMETA SA.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**CIDETEC (CENTRO DE TECNOLOGÍAS ELECTROQUÍMICAS).** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**COECA.** Armamentu-produktuak fabrikatzen dituela aitortzen duen arren, ez du halakoen ekoizpena arautzeko inolako kode etikorik.

•**CTA (CENTRO DE TECNOLOGÍAS AERONÁUTICAS).** Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere.

•**DANOBAT S.C.L.** Nahiz eta izaera sozialeko zenbait konpromiso aurkezten dituen, ez du gure aztergaiari buruzko bakar bat ere jasotzen.

•**DIKAR.** Mondragon Kooperatibak berak hartutako konpromisoek jarduera muga diezaioke.

•**DMP (DESARROLLOS MECÁNICOS DE PRECISIÓN).** Ez du aipamen bakar bat ere egiten hizpide dugun gaiari buruz.

•**DOIMAK.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**ELECTRO HILO.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**EMBALAJES ECHEBERRIA S.A.** Haren jokabide-kodeak honako konpromiso hau aurreikusten du hizpide dugun gaiari buruz: “Aplikatu beharreko legezko betekizunak eta erakundeak borondatez sinatzen dituen gainerako betekizunak betetzea”.

•**ERLE ROBOTICS.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**EVEC (ELEMENTOS DE VERIFICACIÓN Y CONTROL S.A.).** Ez dauka gure aztergaiari buruzko aipamenik.

•**FARMI S.A.** Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**GESTAMP.** Bere jokabide-kodean konpromiso abstraktuak hartzen ditu aztertutako gaiari buruz: “Gure akziodunen eta enpresa bazkideen konfiantza lortzea, jarduten dugun herrialdeetako legeak betetzea, oinarritzko giza eskubideei babesa agertzea, eta osasunari, segurtasunari eta ingurumenari garrantzia ematea”. Arduraz eta gardentasunez jardungo duela ere agintzen du. Badu etika-batzorde bat.

•**GOIMENDI S.A.** Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**GRULLA ARMAS S.L.** Ez dauka inongo kode etikorik.

•**GRUPO ALCOR (SK-10).** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**GRUPO BULTZAKI.** Bere kode etikoan gure aztergaiari buruzko zehaztapen batzuk egiten ditu: “Negozioak printzipio etiko arduratsuetan oinarrituta garatuko dira, eta printzipiook bai barruan (langileak, azpikontratatistak...) zein kanpoan (hornitzaileak, zerbitzuak edo bestelakoak) estrapolatu behar dira. Printzipio etikoek barruan hartzen dute, halaber, legeria betetzea (langileen esplotazioa, haurren lana, gehieneko lanaldia betetzea, soldata-osagarriak, elkartzeko eskubidea...), bai eta berdintasunerako lege eta printzipioak ere (generoa, arraza, erlijioa edo beste zernahi ezaugarri)”. Ez dauka hori beteazteko inolako kontrol mekanismorik.

GRUPO EB-RIM. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

·HEGAN (KLUSTER AEROESPASIALA). Ez dauka inolako kode etikorik.

·IBERMÁTICA S.A. IBERMÁTICA taldeak (bere kode etikoa) konpromisoa eta atxikimendua agertzen die legeria nazionalen eta nazioartekoan aitortutako giza eskubideei eta lan-arlokoiei, bai eta Nazio Batuen Mundu Itunaren oinarri diren printzipioei ere. Hala ere, ez du inolako zehaztapenik egiten armamentu-sektorean izan dezakeen erantzukizunari buruz. Badauka Jokabide Kodearen Batzordea, kode horren aplikazioa kontrolatzeaz arduratzen dena.

·IDEC (INGENIERÍA Y DESARROLLOS EN COMPOSITES). Bere web-orrian armen sektorean duen partaidetzaren aipamenak egiten dituen arren, ez du inolako kode etikorik aurreikusten.

·IGNACIO TRES SL. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

·IKUSI (ÁNGEL IGLESIAS • S.A.). Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere.

·INASMET-TECNALIA. Ez dauka inolako kode etikorik.

·INDRA. Hizpide dugun gaiari buruzko kode zehatzenetako bat dauka. Honako hau xedatzen du kode horrek: “6) Defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza. Indraren jarduerak sarritan eragiten du defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialen esportazioa edo inportazioa. Horregatik behar-beharrezkoa da arlo hori antolatzen duen araudia betetzen dela bermatzea, halako moldez non material horien esportazio eta inportazio guztiak behar diren baimenekin eta legezkotasun erabatekoaz egingo baitira. Defentsarako materialtzat jotzen dira armak eta erabilera militarerako berariaz diseinatutako edo eraldatutako produktu eta teknologia guztiak, bai eta halakoak ekoiztea, saiatzea edo erabiltzea xede dutenak ere. Erabilera bikoitzeko materiala, berriz, erabilera zibila izan ohi duten baina erabilera militarretarako ere balia daitezkeen produktu eta teknologiek osatzen dute, softwarea barne. Defentsarako materialak eta erabilera bikoitzeko materialak esportatzeko eta inportatzeko jarduera hauek dute baimenaren beharra: behin betiko esportazio eta inportazioek; aldi baterakoek (konponketak, berrikuspenak, material akastunak kobratu gabe ordeztzea, itzulketak, probak, homologazioak, azokak edo erakustaldiak); zuzenketek (emandako lizentzia edo baimenen baliozkotasun-epareenak, irteera-aduanarenak edo transakzio-balioarenak); lizentziapean ekoizteko akordioek; bitartekotza- edo artekaritza-jarduerak; eta hobekuntza pasibo edo aktiborako trafikoa egiten diren esportazio eta inportazioek. Indrako edozein langile edo kolaboratzailek, eskaintza edo eragiketa komertzial batean horrelako materialak esportatu edo inportatu beharra dagoela edo egon litekeela jakiten badu, berehala horretaz ohartaraziko du enpresako kanpo-merkataritzako arloa, eta zorrotz bete beharko du enpresak gai horri buruz duen barne-araudia”. Badu auditoretza- eta betetze-batzorde bat ere.

·ITP AERO. Bere kode etikoa agintzen du esportazioari buruzko araudia eta inportazioaren inguruko betebeharrak beteko dituela. Ohartarazi egiten du Export Controlean araudiaren ez-betetzeek eta kontrol gabeko esportazioek ospe txarra, arrisku ekonomikoak eta negozio-galera ekarri eta giza eskubideen urraketa susta ditzaketela, eta horrek ondorio penalak dituela. Baditu etika-arduradunak, edozein dilema etikoren harreran eta ikerketan inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatu behar dituztenak. Adierazten dute “edozein alerta” konfidentzialtasunez erabiliko dela, jokabide-kodea urratu ote den zehazteko eta zuzenketa-neurri egokiak erabakitzeko.

·LARRAÑAGA Y ELORZA S.A. (ALCYON). Ez dauka inolako kode etikorik.

·LAZPIUR (CONSTRUCCIONES MECÁNICAS JOSÉ LAZPIUR). Ez dauka inolako kode etikorik.

·MATRICI SOCIEDAD COOPERATIVA. Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere.

·MAXAM (UEE CARTUCHERÍA DEPORTIVA) (UEE CARTUCHERÍA DEPORTIVA). Beren produktuen arriskuaz jabetuta segurtasun-arloko politika korporatiboa antolatu duten entitate bakanetakoa da. “MAXAM” terminoak erreferentzia egiten die MAXAM Corp Holding, S.L. enpresari eta horren taldea osatzen duten filial guztiei. Izaera juridikoa. Kode etikoa aplikazio orokorrekoa eta nahitaezkoa da, eta MAXAM osatzen duten guztien laguntza aktiboaren beharra dago hura egokiro ezarri, garatu eta hobetu ahal izateko. Kode honetan ezarritako esparruan, ahaleginak egingo dira Taldearekin kontratuak edo harreman egonkorak dituzten hirugarrenak (hornitzaile, bezero, agente, kontrata eta azpikontrata, banatzaile eta antzekoak) kode etiko honetara atxiki daitezzen (edo pareko edukia duten beste batzuetara, Taldearenak izan nahiz besterenak izan), edo behintzat kode honen printzipioak eta oinarriko arauak betetzeko konpromisoa adieraz dezaten. Printzipio orokorrak. Kode etiko honek oinarritzat har-

tzen ditu printzipio orokor hauek: zintzotasuna, osotasuna, bereizkeriarik eza, lan-ingurune seguru eta osasungarria, eta ingurumenaren babesa. Kode etikoaren aurkako arau-hausteak. Alor horretako aipamenak oso orokorrak dira. Kodeak berak hau zehazten du: “Kode etikoaren aurkako arau-hausteak ikertu egingo dira, eta, prozedura egokiaren ondoren, kasu bakoitzean arau-hausleari egotzi beharreko erantzukizunak eta zehapenak erabakiko dira, inguruabarrak aintzat harturik. Arau-haustearen larriak hala justifikatzen duenean, zehapen hauek ezarri ahal izango dira: indarrean dagoen kontratuzko harremana azkentzea, arau-hauslea kaleratzea edo kargutik kentzea eta agintari eskudunen aurrean salatzea”. Araudia betetzea. Hizpide dugun arloari dagokionez, aztertutako kodean ezarrita dago honako gai hauetan MAXAMek indartu egingo duela bere lege-betebeharrak betetzearen gaineko kontrola: bere jardueri lotutako administrazio-baimenak eta esportazioaren arloko mugak. Aurrekoaz gainera, enpresa talde horrek honako hau ere adierazten du: “Esportazioen arloan, MAXAMek une bakoitzean aplikatu behar diren legezko mugak errespetatuko ditu, bere produktuak, zerbitzuak eta teknologia lurralde (edo, hala denean, enpresa edo pertsona) jakin batzuetara esportatzeari dagokionez. Nahitaez bete beharrekoak dira bai segurtasun-politika korporatiboa eta bai defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialak zenbait herrialdetara saldu aurretik esportazio horiek koordinatzeko prozedura korporatiboa. Aipatutako prozeduran “sentikor” gisa definitzen diren herrialdeetara esportatu ahal izateko, prozeduran bertan zehazten diren baimenak lortu behar dira. Herrialde jakin batera esportatzeko aukeraz zalantzak sortzen badira, kontsulta egin behar zaio segurtasuneko zuzendaritza korporatiboari edo, horrelakorik ezean, compliance officer-ari”. Aurrekoa bezalako xedapenak edukitzea ez da ohikoa sektorean, ezta sektorekoak direla argi eta garbi aitortzen duten enpresetan ere. Informazio pribilegiatua. Funtsean, informazio pribilegiatuari buruzko xedapenek ez dute eragotziko informazio hori giza eskubideen errespetua bermatzea xede duten batzorde autonomikoetara eramatea. Ados dago, itxuraz, giza eskubideen errespetua bermatzeko eskumena duten batzorde autonomikoen sorrerari lotutako ekimenekin. Jokatutako kodea betetzearen ardura duen organoa. Arestian aipatutako enpresa taldeak badu compliance officer bat, kode etikoaren aplikazioaren inguruko alderdi guztien arduradun nagusia. Hona hemen hari dagozkion eginkizunen zerrenda irekia eta ez mugatzailea: Kodea aplikatu eta bete dadin begiratzea, eta dagozkion alderdi guztiak koordinatzea. MAXAM taldeko Chairman & CEOari eta auditoretza-batzordeari informazioa ematea kodearen eta horren aplikazioaren inguruan sortzen diren kontu garrantzitsu guztiei buruz. Kodea hobetzeko eta berrikusteko jarduketak proposatzea, egokitzea jotzen duenean. Kode honi dagozkion informazio-, prestakuntza- eta auditoretza-lanak gidatzea. Segurtasuneko zuzendari korporatiboarekin batera, kode honetan esportazioen mugaketari buruz jasotako alderdi guztiak koordinatzea. Kodearen aplikazioak sorrarazten dituen dokumentuak egitea eta zaintzea. Kodeak beraren esku jartzen dituen baimenak ematea edo ukatzea, kasuan kasuko aurrekariak aztertu eta gero. Kode etikoaren 9. apartatuan xedatutako moduan jasotako salaketak hartu, izapidetu eta ebaztea.

•**MECANIZADOS ASTORKIA.** Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere. Aeronautika sektoreaz egiten duen aipamena arma-sektorearen zeharkako aipamentzat har liteke.

•**MECANIZADOS KANTER.** Defentsaren arloko ekoizpen-programa batean parte hartzen duen arren, ez dauka inolako kode etikorik.

•**MESIMA BILBAO S.A.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**METRALTEC S.L.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**MICROFUSIÓN DE ALUMINIO.** Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**MONTAJES USARTZA SOCIEDAD LIMITADA LABORAL.** Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**NOVALTI S.A.** Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere. Aeronautika militarren sektoreaz egiten duen aipamena arma-sektorearen zeharkako aipamentzat har liteke.

•**NOVATRONIC SISTEMAS.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**NUTER.** Ez dauka inolako kode etikorik.

•**OESÍA NETWORKS S.L. (LEHENGO IT DEUSTO).** Honako hau baieztatzen du: “Konpromiso horri erantzun bikaina ematen jarraitu nahian, Oesía taldea kultura-aldaketarako prozesu sakon batean murgilduta dabil. Prozesu horrek Oesía Up du izena (konpainia goragoko maila batean kokatzeko asmo irmoagatik), eta oinarritzat ditu bost balio korporatibo sendo (fidagarritasuna, konpromisoa, etengabeko ikaskuntza, berrikuntza eta bikaintasuna), jokabide-kode etiko eta compliance plan zorrotz bat, lanbide-garapeneko programa handinahi bat, pertsonak errespetatzeko programa bat, eta lantaldeak

kudeatzeko eta lidergoa garatzeko programa bat. Horrekin batera, konpainiak ingurumenaren aldeko konpromiso sakona dauka”. Hala ere, ez ditu baieztapen horiek kode etiko batean zehaztu, edo guk behintzat ez dugu horrelakorik eskuratu ahal izan.

·**PRECICAST BILBAO S.A. (PCB)**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

·**PREVENT-EUROSELAND**. Ez dauka inolako kode etikorik.

·**QAES (QUALITY ENGINEERING SERVICES)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

·**SAPA PLACENCIA (GRUPO SAPA)**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

·**SENER INGENIERÍA Y SISTEMAS S.A. (SENER)**. Bere jokabide-kodean gardentasunerako eta segurtasunerako konpromisoen aipamen batzuk egiten ditu, baina behin ere ez du gardentasunaren eta segurtasunaren inguruko zehaztapenik ematen armen esportazioaren arloan. Gainera, delitu penalei aurrea hartzeko eta haiek detektatzeko eredua antolatu du. Talde honek, bere jokabide-kodean azaltzen duenez, “Betetze Arloa”ren bitartez kudeatzen ditu kodearen inguruko gaiak, zehatzago “Betetzearen eta Prozesu Korporatiboan Zuzendaritza”ren bitartez (aurrerantzean “BPKZ”); organo hori SENER taldearen Auditoretza eta Betetze Batzordearen mendekoa da, eta taldeko kide diren entitate guztien gain du eskumena arlo horretan”.

SIDENOR. Beste subjektu batzuen artean, SIDENOR sozietateak nahitaez bete behar du abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 3. artikuluan ezarritakoa. Bere kode etikoan konpromiso hau hartzen du berariaz: “Sidenor enpresaren eta haren langileen jarduketa orok zehatz-mehatz errespetatuko ditu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubideak eta askatasun publikoak”. Enpresak jarraipen-batzorde bat sortuko du bere kodea betetzen ote den zaintzeko, haren interpretazioaren inguruko gorabeherak edo zalantzak ebazteko eta hura hobeto betetzeko neurri egokiak ezartzeko. Sidenorko zuzendaritza-batzordeak erabakiko du jarraipen-batzordearen osaera.

·**SIEMENS-GAMESA**. Bere jokabide-kodean giza eskubideak errespetatzearen aldeko konpromisoa ezartzen du, baina ez du zehazten babes horren nolakoa. Jokabide-kode hori hornitzaileei eta Siemens Gamesa Renewable Energy enpresa taldearentzat bitartekari jarduten duten hirugarren alderdiei bakarrik aplikatzen zaie. Baina, zer gertatzen da taldearen beraren jarduketekin?

·**SISFLE (SISTEMAS FLEXIBLES)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

·**SISTEPLANT S.A.** Badu kode etiko bat, baina ez da armamentu-gaiei buruzkoa. Arlo horri dagokionez, konpromiso hau azaltzen du: “SISTEPLANTen saiatzen gara bermatzen gure eraginpeko eremuaren barruan geuk zuzenean nahiz hirugarrenen bitartez egiten ditugun jarduerak ez ditzaten urratu pertsonen oinarritzko eskubideak, Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmen nagusietan ezarrita dauden horiek”. Hori nola betetzen den kontrolatzeko mekanismo bat dauka. Eta berariaz adierazten du Batzorde Estrategikoak beti eskatuko duela enpresak etikaz jardun dezala, jokabide-kode egokiaren onarpena barne, eta hura eraginkortasunez aplikatzen saia dadila.

·**TECNASA (TECNOLOGÍAS AEROESPACIALES S.A.)**. Ez dauka inolako kode etikorik.

·**TECNICHAPA VELATIA**. Bere erantzukizun korporatiboan ezarrita dagoen moduan, Mundu Itunari atxiki zitzaien (Nazio Batuen Erakundeak proposatutako nazioarteko ekimen bati, 2002. urtean). Itunari atxikiz, VELATIAk bere borondatez erantzukizun korporatiboarekiko konpromisoa hartu du eta bere kudeaketa-prozesuetan hamar printzipio zabaldu ditu, giza eskubideetan, lan-arloko eskubideetan, ingurumen-eskubideetan eta ustelkeriaren aurkako borrokan oinarrituak”.

·**TECOMAR S.L.** Ez du inolako kode etikorik.

·**TEDAE**. TEDAE Defentsa, Aeronautika eta Espazioko Enpresa Teknologikoen Espainiako Elkarte da. Aurrekariak: TEDAE Madrilan sortu zen, 2009ko otsailaren 26an. 2016ko ekainaren 24an estatutu berri batzuk onartu zituen, gardentasuna, gobernamendu ona eta jardunbide egokiak aintzat hartuta; hori guztia, sektoreko enpresak bizitzen ari ziren iraultza teknologikoaren ondorioz. Bi kode proposatzen dituzte: kode etiko bat eta gobernamendu onerako beste bat; baina autoarautzaileak dira. Hamar printzipio hartzen dituzte oinarritzat beren jardueran: ustelkeriarik ez onartzea; begirunea, zintotasuna eta konpromiso etikoa; arauak betetzea; erakundeekiko lankidetzeta eta ekintzarako autonomia; zerbitzua

eta kontu-ematea; gardentasuna; funtzionamendu ona edo gobernamentu ona; zuhertasuna eta presatasuna baliabideen administrazioan; plangintza eta jarraipena; eta jasagarritasuna. Ez dago inongo artikulutan berariaz araututa giza eskubideak babestu behar direnik, ezta armen salmenta kontrolatzeko batzorde bat dagoenik ere. Arma-merkataritzaren arloko lanarekin nolabaiteko lotura duten ohar batzuk badira: 6. artikuluan adierazten du ezin dela iruzurrezko jarduketarik egin, ezta talde terroristak babestu ere. 9. artikuluan arreta handia jartzen du gardentasunaren arloko politikan. 11. artikuluan kudeaketa kontrolatzeko sistemei buruz hitz egiten du modu orokorrean, baina ez du zehazten, ez du xehetasunik ematen, ez nork, ez nola. Zehapenekin ere ez du ñabardurarik egiten. Kodearen ez-betetze graduaren arabera izango dira eta presidentearen esku egongo dira; hark zehapenen berri izan beharko du. 15. artikulua konfidentzialtasuna gorde beharri buruz dihardu, eta enpresaren interesak langileen interesen gainetik jarriko direla dio. 21. artikulua dio zuzendaritza-batzordeak egingo dituela jarraipen- eta kontrol-lanak, kodea betetzeari dagokionez. Kodea 2018ko ekainaren 28an jarri zen indarrean.

•**TEKNIKER**. Kolaboratzaile ditu armen arloko zenbait enpresa, hala nola Gamesa edo Aernnova Erospace.

•**TESA (TALLERES ESCORIAZA S.A.)**. Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere.

•**TRATAMIENTOS SUPERFICIALES IONTECH**. Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere. Aeronautika sektoreaz egiten duen aipamena arma-sektorearen zeharkako aipamentzat har liteke.

•**TRATAMIENTOS TÉRMICOS TTT S.A.** Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere. Aeronautika sektoreaz egiten duen aipamena arma-sektorearen zeharkako aipamentzat har liteke.

•**UEB (UNIÓN EXPLOSIVOS ENSIGN BICKFORD)**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

•**VITELSA NORTE**. Ez du aipatzen ezta armamentuaren arloarekin duen lotura ere.

•**WARTSILA IBÉRICA**. Ezin izan da eskuratu haren kode etikoa.

7.1.3. Amaierako gogoetak, gizarte-erantzukizun korporatiboa eta sektoreko EAEko enpresa batzuen jokabide-, etika- edo/eta gardentasun-kodeen azterketa, indarguneak eta gabeziak direla-eta

Gizarte-erantzukizun korporatiboa dela-eta : NBEren barruan ahalegin asko egin dira; esaterako, NBEren Mundu Ituna, ELGEk enpresa multinazionalentzat jarritako Gidalerroak edo Ruggie Printzipioak. Baina, oraingoz, borondate oneko dokumentuak izaten jarraitzen dute. Buruan eduki behar da lotesleak izango diren dokumentua eta jardunbide egokiak prestatzea, enpresa baten kudeatzaileen borondate onaren mende egongo ez direnak.

Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-industriari asko interesatzen zaio gizarte-erantzukizuna sustatzea eta ibilbide-orri bat ezartzea jarduketa zehatzekin; hor tartean izan litezke (aukera batzuk baino ez dira aipatuko) enpresa dagoen tokian gizarte-bazterketaren arriskua duten kolektiboak laneratzea, ingurumen-estandarrak errespetatzea, giza eskubide unibertsalak errespetatzen dituela adieraztea, gardentasuna sustatzea (zentzuz eta EAEko Administrazioak ezartzen dituen gidalerroen arabera), eta, batez ere, bere produktuek trazabilitate egokia dutela bermatzea. Ekimen sozial-kultural-humanitarioren bat ere babes dezakete.

Ikuspuntu tekniko eta fiskaletik, gastu kengarritzat jo daiteke beren gizarte-erantzukizuneko ekintza-plannaren barruan enpresek gizartea babesteko proiektu kultural eta berritzaile jakin batzuk hobetzeko/sustatzeko egiten dituzten ekarpenen zati bat. Sozietateen gaineko zerga murrizteko aukera tekniko-fiskala ere badago: enpresei zerga hori jaitsi ahal zaie beren gizarte-erantzukizuneko politikaren/estrategiaren barruan jardunbide egokietan inbertitzen duten neurrian.

Enpresen GEKaren barruko jarduketaren batzuk jarduketa humanitarioak izan litezke. Jokaera horiek tratamendu fiskal onuragarria ekar dezakete, ospari begira onura garrantzitsua ekartzeaz gain. Halaber, Nazio Batuen Mundu Itunak sustatzen dituen "aliantzak" bezalako "aliantza" publiko-pribatuak egiteko aukera dago. Horien bitartez, enpresek Nazio Batuen agentziaren batekin edo gobernu kanpoko beste erakunderen batekin lankidetzan jarduten dute.

Jokabide-kodeak direla-eta: Sektoreko enpresen kodeei egindako azterketatik zenbait ondorio atera ditzakegu. Lehenik, azpimarratu behar dugu oso gutxi direla kode etiko edo jokabide-kode irekia edo jendakorra duten enpresak, giza eskubideen babesa edo zuzenbide humanitarioa bezalako gaiei dago-

kienez. Bigarrenik, azpimarratu behar dugu, era berean, aipatutako dokumentuak badituzten enpresek ere ez dutela, gure iritziz, behar adinako erregulazioa egiten, batez ere haien produktu edo zerbitzuen arriskugarritasuna kontuan izanik. Hirugarrenik eta azkenik, ohartarazi behar dugu aztertutako enpresa gehienek, bereziki armamentu-sektorean zeharbidez ari direnek, hau da, azpikontratazioen ondorioz edo hornitzaile gisa ari direnek, beren kodeetan aipatu ere ez dutela egiten armamentu-sektorean duten partaidetza.

Aurrean azaldutakoa gorabehera, esan beharra dago, halaber, horrelako kode irekiak edo jendaurrekoak dituzten enpresek haietan aipamenen batzuk egiten dituztela, zuzenean edo zeharka, giza eskubideez eta gaiari buruzko nazioarteko testu jakin batzuek.

Azken batean, hau ondorioztatu behar dugu: kodeetan gaia behar adina arauturik egon ez edo/eta kodeak jendaurrekoak ez izan arren, aurreikuspen generiko horietan argi eta garbi nabaritu dugu, era berean, EAEko sektoreko enpresa-entitate horiek konpromisoa hartu dutela giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioen errespetua hobetzeko eta gehiago sendotzeko, bai eta eskubide horien urraketak saihesteko edo modu esponenzialean gutxitzeko ere. Horregatik, uste dugu Eusko Jaurlaritzak jarrera aktiboa hartuko balu egungo errealitatea hobetuko lukeen jokabideari buruzko esparru-kode bat sortzeari begira, sektoreko EAEko enpresek jarrera hori ongi hartu edo gutxienez ere onartu egingo luketela (enpresa horiek atxikitzea edo/eta jokabideari buruzko esparru-kodea beren entitateetan sartzea horren erakusgarri litzateke), aztertutako enpresa gehienek eta oro har sektoreko enpresek merkaturatzen dituzten produktu edo/eta zerbitzuen arriskugarritasuna dela-eta.

7.2. EAEko armamentu-sektorerako jokabideari buruzko esparru kodea eta giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatokia edo/eta ebaluazio batzordea

7.2.1. EAEko armamentu-sektoreko zuzeneko edo/eta zeharkako industriari aplikatzen diren esparru-kode bat diseinatzea, jokabideari, etikari edo gardentasunari buruzkoa, merkataritza egokiaren gainekoa, gardentasuna eta erantzukizunaren areagotzea errespetatuko dituen

7.2.1.1. Gardentasuna dela-eta

Espainiako ordenamendu juridikoan indarrean dago abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa¹⁰, bada, lege horrek dioenez, zabaltzen den informazioa guztientzat eskuragarri jartzea irmoki sustatzeko, Gardentasunaren Ataria sortuko da, eta, publikotasun aktiboaren betebeharra duen informazioaz gain, gehien eskatzen diren informazioak ere emango dira haren bidez. Ataria topagune eta zabalkunderako gune izango da, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea ulertzeko modu berriaren adierazgarri.

Aurreikusten da Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoetako administrazioek eta Toki Administrazioa osatzen duten erakundeek lankidetzaz neurriak erabili ahal izatea publikotasun aktiboaren arloko beren betebeharrak betetzeko.

19/2013 Legearen III. kapituluak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du. Pertsona guztiek dute eskubide hori, eta informazioa zergatik eskuratu nahi duten arrazoitu gabe balia dezakete. Eskubidea mugatzeko kasu bakarra da mugatze hori beharrezkoa izatea informazioaren izaeragatik, edo babestutako beste interes batzuekin gatazkan sartzen delako.

Edonola ere, aurreikusitako mugak kaltea aztertuta aplikatuko dira, eta azterketa horretan aintzat hartu beharko dira muga ezarri zaindu behar diren interesak, zabalkundearen interes publikoa, eta informazioaren zabalkundearen interes publiko hori gailendu behar ez izatearen arrazoiak.

Halaber, informazioa eskuratzeko datu pertsonalen babesari eragin diezaiokenez zuzenean, bi eskubideen arteko harremana argitzen du legeak, beharrezkoak diren oreka-tresnak ezarrita. Horrela, bada, informazioak organoaren antolamenduari edo jarduerari publikoari eragiten dionean zuzenean, informazioa eskuratzeko eskubideari emango zaio lehentasuna; baina, beste alde batetik, araudian babes berezikiotzat jotako datuak babesten dira, eta horiek eskuratzeko, oro har, titularraren baimena beharko da.

¹⁰ 2013ko abenduaren 10eko BOEn argitaratua.

Legearen III. tituluak sortu eta arautzen du Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua; organo independente horri esleitzen zaizkio Administrazio Publikoaren jardunean gardentasunaren kultura sustatzeko, publikotasun aktiboko betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla bermatzeko eskumenak. Legea egoki aplikatzen dela bermatzeko gainbegiratze- eta kontrol-organoa sortzen da.

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua organo independentea da; gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du, eta haren egitura sinpleak, espezializazioa eta operatibitatea bermatzeaz gain, egitura administratibo handiak sortu behar izatea saihesten du. Bere jarduerak burutzeko independentzia eta autonomia izango dituela bermatzeko, parlamentuaren babesa beharko da.

Autonomia-erkidegoen eskumenak ahalik eta gehien errespetatzeko, aurreikusten da Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak berariazko hitzarmena sinatzen duten autonomia-erkidegoetan soilik izango duela eskumena; estatu-mailan Kontseiluak dituen eskumenak, gainerako kasuetarako, izendatutako organo autonomikoaren esku egongo dira.

Xedapen gehigarriek hainbat arlo jorratzen dituzte: informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak aplikatzea, arauak berrikusi eta sinplifikatzea, eta Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren arteko elkarlana ezartzea, datu pertsonalak babestearen inguruan legean ezarritakoa aplikatzeko irizpideak ezartzeko.

Azpiraratzekoak dira, arautzen dituzten gaien garrantziagatik, 29., 33., 36. eta 38. artikulua. Hala, bada, 29. artikulua diziplinazko arau-hauste larritzat jotzen du Administrazioari edo herritarrei kalte handiak ekar diezazkieketen eta argi eta garbi legez kontrako diren erabakiak hartzea.

33. artikulua bitartez Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua sortzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean (2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zenbakia) aurreikusitako artero organismo publiko gisa. Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak berezko nortasun juridikoa du, eta jarduteko gaitasun osoa ere bai. Autonomia eta beregaintasun osoz jarduten du bere helburuak betetzeko orduan.

36. artikuluan Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordea aurreikusten da; legeak ematen dizkion eskumen guztiak baliatuko ditu, bai eta legea garatzeko arauak ematen dizkion eskumenak ere. Gutxienez urtean behin, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Batzordeak deitu egingo die autonomia-erkidegoek beren eskumenak baliatuz sortu eta Batzordeak dituen antzeko eginkizunak dituzten organismoetako ordezkari. Aukeran izango da Toki Administrazioako ordezkari bati ere bilera horretarako deia egitea; Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak proposatutako ordezkaria izan beharko du.

19/2013 Legearen 38. artikulua Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren eginkizunak ezartzen ditu, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira: gomendioak onartzea, lege horretan jasotako betebeharrak hobeto betetzeko; aholkularitzan jardutea gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu onaren arloetan; aginduzko txostenak egitea Estatuko araugintza-proiektuen inguruan, baldin eta lege hori garatzen badute edo lege horren objektuarekin zerikusia badute; eta lege hori nola aplikatzen den ebaluatzea.

Horretarako, memoria bat egingo du urtero-urtero, eta ezarritako betebeharrak nola bete diren azaltzen duen informazioa jaso beharko da bertan, eta memoria hori Gorte Nagusiei aurkeztuko zaie; gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu onaren arloetan gomendio, gidalerro eta praktika onetarako arauen zirriborroak egin daitezen sustatzea; prestakuntza- eta sentikortze-jarduerak sustatzea, lege horrek arautzen dituen gaien inguruko ezagutza handiagoa izan dadin; berari dagozkion gaietan antzeko organoekin lankidetzan aritzea; eta lege- edo erregelamendu-mailako arau batek esleitzen dizkion gainerakoak.

Bestalde, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluko lehendakariak honako eginkizun hauek izango ditu: 19/2013 Legean jasotako betebeharrak era berdinean interpretatzeko irizpideak onartzea; publikitate-betebeharrak betetzen direla zaintzea; lege horretako 24. artikulua aplikatuz aurkeztu diren erreklamazioak aztertzea eta haiei buruz erabakitzea; informazio-eskaerak tramitzeko eta haiei buruz erabakitzeke ardura duten organoek kontsulta egiten diotenean (kontsulta egitea aukerakoa dutelarik) erantzuna ematea; eta lege horretako II. tituluaren jasotzen den zehapen-prozedura hasteko eskatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen xedea da, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta

entitateetan eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, zabaltzea eta indartzea administrazio-jardueraren gardentasuna eta publizitatea, gobernu ona, informazio publikora iristeko eskubidea baliatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa eta baita herritarren parte hartzea ere zuzenean edo zeharka interes publikokoak diren diseinuetan eta erabakietan.

Legea egitean, bidezko izapide eta txostenak egin ziren, kontuan hartuta proposatutako arautzeak duen materia eta edukia, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera. Aipatu legearen 8. artikulua arabera, entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapidea bete zen, gaiarekin lotutako hainbat erakundek nahi beste ekarpen egin zituzten.

2017ko Gardentasunaren Ataria webgune honetan dago: <http://www.gardena.euskadi.eus/hasiera/>.

Gobernu Kontseiluak onartu egin du “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta sektore publikoan gardentasunak duen ezarpen-mailari buruzko 2017ko Balantzea”. Hirugarren urtez jarraian presatatu du Eusko Jaurlaritzak dokumentu hori eta, horrela, 2015eko urtarrilaren 13an hartutako konpromisoa bete du; orduan, informazio publikora jotzearen arloko, publizitate aktiboaren arloko eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrerapenerako funtzionamendu-neurriak onetsi zituen.

Zehazki, aurrerapenak honako arlo hauetan:

- Zenbait informazio argitaratzeko betebeharra.
- Nola argitaratu behar den.
- Herritarrei informazio publikora jotzeko eskubidea bermatzea.
- Nazioarteko gardentasun-estandarrak, besteak beste, Nazioarteko Gardentasuna GKEak ezarritakoak.
- Sektore publikoa osatzen duten erakunde guzti-guztiek betetzea gardentasun-betebeharrak: erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek, nortasun juridikorik gabeko funtsek, fundazioek, partzuergoek eta irabazi-asmorik gabeko beste batzuek.

EAEko Gardentasunaren Atariari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, 2015ean, Gardena sortu zuen, Euskal Administrazio Publikoaren gardentasun-ataria. Bertan eskuragarri dago, online, herritarrentzat garrantzia duen informazio publiko guztia. 2017an esekitzen joan den informazioaren bolumena handituz joan da eta, une hauetan, “zorrotz eta kalitate handiz betetzen” ari dira gardentasun-arloko araudian ezarritako betebeharrak.

Nobedade nabarmenak dira, besteak beste, honako hauek:

- Garrantzi juridikoko informazioa. 2017tik, gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak, aurreproiektuak, erregelamendu-proiektuak, memoriak, txostenak, dokumentuak eta abar esekitzen dira.
- Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak. 2017tik, hitzarmenen eta kudeaketa-aginduen modalitate guztiak esekitzen dira: protokoloak, kofinantzaketa-hitzarmenak, ondare-hitzarmenak, barneko esleipenak, kontratuak, programak eta abar.
- Funtzioak, erakundeen organigramak, Kargu Publikoen Katalogoko lanbide-profila eta -ibilbidea. Informazio guztia integratu eta koordinatu da, etengabe eguneratzeko. Pertsona, erakunde eta ekipamenduen direktorioa sortu da, erraz kontsultatu eta ikusarazteko.
- Urteko eta urte anitzeko plan eta programak, eta betetze-mailaren eta emaitzen adierazleak. Argitaratuta eta eguneratuta dago Eusko Jaurlaritzaren planen egutegiarekin lotura duen informazio guztia, bai eta neurketa- eta balorazio-adierazleak ere.
- Kontratazioaren argitalpena. 2017tik, REVASCON “Kontratuen Euskal Erregistroa”n kontratu “txiki” guztiak argitaratzen dira. Kontratu horiek jasota, web-orrialde ofizialak, dagoeneko, euskal sektore publikoak sinatzen dituen kontratuen % 100 argitaratzen ditu.
- Dirulaguntzak eta bestelako laguntzak. Guztiak argitaratzen dira, data, erakundea, onuraduna, zenbatekoa eta abar adierazita. Txostenean Eusko Jaurlaritzak, urte horretatik aurrera, informazio hori hilean behin eguneratzeko konpromisoa hartzen da.
- Lanpostuen zerrendak, enplegatuen bateragarritasunari buruzko ebazpenak eta langile publikoen ordainsariak.

• Lanpostuen zerrendak, bateragarritasun-ebazpenak eta kargu publikodun langileen ordainsariak eta kalte-ordainak.

• Bestelakoak: nahitaezkoa ez bada ere, Eusko Jaurlaritzak honako alderdi hauei buruzko informazio ugari argitaratzen du:

-Gobernu Programaren segimendua.

-Kargu publikodunen agenda.

-Sailburuen bidaia-gastuak.

-Urteko araugintza-planak, etab.

Euskal Autonomia Erkidegoko lege- eta arau-esparrua:

• Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Legearen proiektua.

• Agindua, 2016ko urriaren 6koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideak izendatzen dituen eta batzordearen osaera jakinarazten duena (2016ko urriaren 13ko EHAA, 194. zk.).

• 128/2016 Dekretua, irailaren 13koa, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoa (2016ko irailaren 16ko EHAA, 177. zk.).

• 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (VI. titulua. Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea). (2016ko maiatzaren 2ko BOE, 105. zk.).

• Arlo horretan aplikatu behar diren foru-arauak.

Aurrekoa azaldu ondoren, azpimarratu behar da informazio publikoa eskuratzeko bidea Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen aurrean eska daitekeela, baita tokiko gardentasun-atarien bitartez ere, hainbat udal eta foru-aldundik horrelako atariak dituzte-eta. Hau da webgunea:

http://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/euskadi.html

Zalantzarik gabe, gaur egun lege- eta arau-esparru hori izateak bide emango luke galdetzeko ea arau-esparru horretan ezarritakoa armen sektorean ere aplikatzeko modurik izango ote den etorkizunean, armen merkataritzari buruzko informazio garrantzitsua aditzera emateko. Gaur egun, noski, aldatu egin beharko liriteke abenduaren 28ko 53/2007 Legea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoa, eta abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua, defentsarako materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamendua onartzen duena, bai eta Sekretu Ofizialen Legea ere (apirilaren 5eko 9/1968 Legea).

7.2.1.2. Jokabide-kodea dela-eta

Auzitegi Nazionalako Lan-arloko Salako 1. Sekzioaren 2018ko martxoaren 6ko 40/2018 Epaia¹¹ honela definitu zuen etika- edo jokabide-kodea, zuzenbideko hirugarren oinarrian (53. paragrafoa): “Erakunde baten portaera-estandarrak zehazten dituzten printzipioen finkatze formala eta erabiltzaileei printzipio horiei buruzko informazioa emateko tresna”. Izan ere, jokabide-kodea printzipioen adierazpen formal bat da, erakunde batentzat gidalerro diren balio eta estandar etikoak biltzen dituen.

Giza eskubideen babesa, gizarte-eraginak eta ingurumen-eraginak azken urteotan erakundeen zuzendaritza estrategikoan hartzen ari diren garrantziaren ondorioz, etika- edo jokabide-kodeak sortu ohi dituzte erakundeek, bakarka eta beren kabuz, edo nazio eta gobernu arteko erakundeek, eta halako kodeak onartzen dituzte hainbat solaskide sozialek, esaterako enpresa, GKE edo/eta sindikatuek.

Kode etiko edo jokabide-kodea honako helburu hauetakoren baterako onartu ohi da: a) erakundearen balio eta estandar etikoak adierazteko barneko kudeaketa-tresna izan dadin; b) bazkideen edo negozio globalen jardunbideetan eragina izateko bidea izan dadin; c) produktuak landu eta fabrikatzean aintzat hartzen diren printzipioak bezero eta hornitzaileei jakinarazteko bide izan dadin.

Hizpide dugun kasuan bereziki garrantzitsua da jokabideari edo etikari buruzko esparru-kode bat sortzeko eta EAEko armamentu-industriak hari atxikitzeko aukera (EAEko gainerako industria- eta enpresa-sektorearen-

¹¹ Westlaw Thomson Reuters Aranzadi.

tzat ere balioko luke), haien bazkideen edo negozio globalen jardunbideetan eragina izan dezan eta, gainera, egunerokoan enpresa arautzen duten printzipioak bezero eta hornitzaileei jakinarazteko bitartekoa izan dadin.

Kode etiko edo jokabide-kode hori ez litzateke ziurtapen-sistema bat izango, ez dituelako estandar jakin batzuk betetzen (ISO arauak, EMAS); aitzitik, barne-dokumentu batean balio sail bat jaso baino ez du egiten, bai langileei bai bezero edo hornitzaileei informazioa emateko helburu bakarrarekin. Hala, ez da kodean jasotzen ebaluazio-sistematik, ez prozesuen garapenik, ez inplementaziorik, ezta haren gauzatzea eta emaitzak erakundearen barne-egituran egiaztatu ahal izateko bestelako prozedurarik ere.

Kode horren edukiak aipagai izan behar lituzke giza eskubideen, oinarrizko eskubideen, eskubide humanitarioen, lan-arloko eskubideen eta ingurumen-arloko eskubideen babesa eta ustelkeriaren eta eroskeriaren kontrako jardunbideak.

Aztertzen ari garen kasuan, egokia dirudi proposatutako kode horretan sartzeak EBren sorrerako balioak, Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikulua honako hau esanez aurreikusten dituenak: “Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.

Halaber, EBren 3.1 artikulua hau ezartzen du: “Batasunak bakea, bere balioak eta bere herrien ongi-zatea sustatzea du helburu”; eta EBren 3.5. artikulua, berriz, hau dio: “Munduko gainerakoekin dituen harremanetan Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu, eta bere herritarren babesa bultzatuko du. Bakea, segurtasuna, Lurraren garapen jasangarria, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza aske eta zuzena, pobretasuna ezabatzea eta giza eskubideak –batez ere haurren eskubideak– babestea, nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen errespetua bultzatuko ditu”.

Nahiz eta enpresa batek bere kabuz finka ditzakeen jokabide-kodeak, horiek, zentzuzkoa denez, ezin dira izan legeriaren, elkarrizketa sozialaren edo ezarritako negoziazio kolektiboaren kontrakoak.

Jokabide-kode bat egitea edo jokabide-kode bati atxikitzea abiapuntu ona izan daiteke EAEko armamentu-industriak beharrezkoa duen zuzendaritza estrategikoaren prozesuan (beste industria-sektore batzuetara ere heda daiteke), batez ere balioei eta eginkizun korporatiboari dagokienez, zeren eta kode horrek erakundearen gizarte-erantzukizunari eutsiko dion oinarri adostua izan behar baitu. Hala ere, beste giza eskubide edo/eta oinarrizko eskubide batzuen babesari buruzko arauekin bat datozenean eta horien kontrakoak ez direnean, orduan bakarrik izan daitezke lotesleak jokabide-kodeak.

7.2.1.3. Amaierako gogoetak

Azaldutakoaren arabera, neurri egokia izan liteke jokabideari, etikari edo/eta gardentasunari buruzko esparru-kode autonomiko erkide bat diseinatzea edo/eta sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-sektoreko enpresetan integratu eta aplikatu ahal izango dena (eta beste industria- eta enpresa-sektore batzuetara ere hedatu). Esparru-kode horrek gardentasuna eta erantzukizunaren areagotzea sustatu eta zaindu behar ditu, eta, horrekin batera, errespetatu egin behar ditu Europako eta nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak eta zuzenbide humanitarioa.

Ezaugarri horiek dituen kode bat, jakina, sektoreko EAEko enpresek elikatuko dute hala nahi badute, alegia, beren kabuz erabakitzen badute EAEko erakundeek planteatutako ekimen horrekin bat egitea. Hori horrela, esparru-kodean jaso behar da giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publiko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzak sustatua, edo/eta merkataritza egokirako jokabide- edo/eta etika-batzorde bat sortzea eta bertan ordezkariak izatea administrazio publikoek, sektoreko edo parekatu ahal zaizkion sektoreetako enpresek, sektorearen edo parekatu ahal zaizkion sektoreen bezero eta erabiltzaileek eta gizarte zibilak. Horrelako ekintza batek –zeinak, adierazi dugun bezala, oinarri izango bailuke sektoreko EAEko enpresak askatasunez atxikitzea goian aipatutako jokabideari buruzko esparru-kodera– aukera emango luke behatoki bat edo/eta ebaluazio-batzorde bat (edo biak) sortu edo ezartzeko. Erakunde hori eskualdekoa eta autonomia izango litzateke, eta eginkizun nagusia izango luke aipatutako esparru-kodea benetan betetzen edo errespetatzen den kontrolatzea.

Ez da ahaztu behar Euskal Autonomia Erkidegoan badugula esperientzia jokabideari edo etikari buruzko esparru-kodeak sortzen –hori bai, sektore publikorako–, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bere sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bategina onartu baita.

7.2.2. Giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatokia edo/eta ebaluazio-batzordea sortzea, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, enpresa-sektoreak, erabiltzaileek eta gizarte zibilak osatua

Lehen adierazi dugun moduan, aztertu ditugun sektoreko enpresa batzuek, beren jokabide- edo/eta etika-kodeen bitartez, kode horietan jasotako arauak eta printzipioak nola betetzen diren kontrolatzeko batzorde edo erakundeak ezartzen dituzte. Bistan da, beraz, enpresa horiek kodeetan ezarritako xedapen etikoak edo/eta enpresaren printzipioak eraginkortasunez errespetarazi eta betearazteko konpromisoa agertzen dutela. Xedapen eta printzipio horietatik gehienek diote Estatuko, Europako eta nazioarteko ordenamendu juridikoa errespetatu behar direla eta ez direla urratu behar. Ondorioz, batzorde horiek lehendik izanda, pentsa liteke sektoreko enpresa askok interesa edo/eta joera edo prestasun handiagoa agertuko luketela jokabideari/etikari buruzko esparru-kode bati atxikitzeko, zeinak autonomia-erkidegoaren mailan kontrol-mekanismo bat bilduko bailuke txosten honen gaiari buruz testu horietan xedatutakoa nola betetzen den kontrolatzeko.

Enpresek bere egin behar duten sistema hori jokabideari buruzko esparru-kode baten bitartez diseinatzen bada eta enpresetatik kanpoko kontrol-mekanismo edo egiaztapen-protokolo bat ezartzen bada, pizgarriak eman beharko zaizkie, noski, sistema hori ezarri eta kontrol horren pean jartzen diren sektoreko EAEko enpresei, hobari, kenkari edo/eta onura fiskalak eskainiz.

Aurrean esan dugunez, esparru-kodean jaso beharko da giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publiko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzak sustatua, edo/eta merkataritza egokirako jokabide- edo/eta etika-batzorde bat sortzea eta bertan ordezkariak izatea administrazio publikoek, sektoreko enpresek, sektore horren bezero eta erabiltzaileek eta gizarte zibilak. Gure iritziz, bi kontrol-organo sortu behar lirateke: lehenik, giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publikoa, helburutzat edo/eta xedetzat izango lukeena haien azterketa eta ikerketa, zabalkundea, irakaskuntza eta sustapena; gizarteari zerbitzu osoa eskaintzeko aholku-organoa izan liteke, irizpenak emateko ere kontsulta egin ahalko litzaioke, eta, kasua balitz, hainbat unibertsitate publikok osa lezakete. Eta bigarrenik, merkataritza egokirako jokabidearen edo/eta etikaren ebaluaziorako batzorde bat, eginkizun hauek izango lituzkeena, beste batzuen artean:

- Jokabideari buruzko esparru-kodeari atxikitako enpresen portaera etikoa sustatzea.
- Oharpenak, kontsultak eta hobekuntzarako iradokizunak jasotzeko eskumena duen organoa izatea. Halaber, jokabide-kodean ezarritako aurreikuspenetan egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura hasteko eskumena izango luke.
- Sektoreko ahalik eta enpresa gehien jokabideari buruzko esparru-kodera batu daitezen eta kode hori eraginkortasunez martxan jar dadin sustatzea.
- Jokabide- edo/eta etika-kode hori egokitzeko egin behar zaizkion aldaketak sustatzea.
- Jokabide-kodeari atxikitako enpresek, EAEko erakundeek eta kargu publikodunek egiten dituzten kontsultak ebatzea.
- Jokabide- edo etika-kode horretan jasotako balio, printzipio edo/eta jokabideen kontrako balizko ez-betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak egitea.
- Autonomia-erkidegoko administrazio publikoei, bai eta sailei eta erakundeei ere, jokabide- edo etika-kodea betetzeari buruzko gomendioak egitea.
- Jokabide- edo/eta etika-kodearen gainbegiratze-txostena egitea sei hilean behin.
- Zehapenez bestelako neurri egokiak hartzeko ardura izango du. Egiaztatutako egitateen larritasunaren arabera izango dira neurri horiek, eta eraginkorrek izango dira sektoreko enpresen jarduna zuzendu, arteztu eta hobetzeko, etikaren edo/eta jokabidearen ikuspuntutik, baldin eta jokabide-kodea urratzen badute.
- Beren korporazioetan jokabide-kodea ezarri eta gero legozkiekeen hobari, kenkari edo/eta pizgarri fiskalak eskuratu nahi dituzten sektoreko enpresek jokabide-kodean ezarritakoa betetzeari buruzko txostena ematea, aldekoa zein ez.

Aurrekoa azaldu ondoren azpimarratu behar da egokia litzatekeela giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatokia bai Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saileko Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren menpean eta bai Hezkuntza Sailaren menpean egotea. Merkataritza

egokirako jokabidearen edo/eta etikaren ebaluaziorako batzordea, bestalde, bai Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saileko Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren menpean eta bai Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren menpean egongo litzateke.

Merkataritza egokirako jokabidearen edo/eta etikaren ebaluaziorako batzordearen osaerari dagokionez, kide hauek izango lituzke batzorde horrek:

- a) Lehendakaritza Saileko Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- b) Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- d) Arabako Foru Aldundiko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- e) Bizkaiko Foru Aldundiko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- f) Gipuzkoako Foru Aldundiko titularra edo hark izendatutako pertsona.
- g) Kasuan kasuko sektorea ordezkatzeko duen enpresa-elkarteak izendatutako pertsona.
- h) Erabiltzaile edo bezeroak ordezkatzeko dituen elkarteak izendatutako pertsona, halako elkarerik egonez gero.
- i) Esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatutako pertsona bat, gizarte zibila ordezkatzeko duena.
- j) Zuzenbidearekin, sektoreko enpresa-esparruarekin edo/eta erakundearen gobernantzarekin zerikusia duten gaitasun esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatutako pertsona, sektore publikokoak nahiz pribatukoak. Bata Eusko Jaurlaritzak izendatutako du, eta bestea hiru foru-aldundiak izendatutako dute, adostasunez.
- k) Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun bat, idazkari-lanak egingo dituen, hitzarekin baina botorik gabe.

Illo horretan, ez da albora utzi behar Euskal Autonomia Erkidegoan badugula esperientzia etika batzorde publiko bat sortzen –hori bai, sektore publikorako–, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta bere sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginaren onarpenaren bitartez. Behatoki publikoak sortzen ere badugu eskarmenturik, hori bai, garraioaren sektorerako; sektore horretan Euskadiko Garraio Behatokia (EUSGABE) sortu dugu.

Nolanahi ere, bai giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publikoan, bai merkataritza egokirako jokabidearen edo/eta etikaren ebaluaziorako batzordean, botere publikoen ordezkariak osatutako lantalde batek eduki behar du gehiengoa, eta operadore ekonomiko interesdunen, erabiltzaileen eta gizarte zibilaren ordezkariak gutxiengoa izango dute.

7.3. Sektorean interesak dituzten EAEko enpresentzako kenkari fiskalei aplikatu beharreko esparru juridikoaren azterketa

7.3.1. Foru-arauak

Armen sektoreko EAEko enpresentzako balizko kenkari fiskalak aztertzeko, lurralde historikoetako foru-arauetara jo behar da.

Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua¹² aplikatzen da, sozietateen gaineko zerga arautzen duena. Honako kenkari fiskal hauek onartzen ditu 60.-68. bitarteko artikuluetan:

1. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria.
2. Aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatikoko kenkaria.

¹² Duela gutxi 37/2013 Foru Araua aldatu egin da Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 23ko 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez, zeinak onesten baitu Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ekonomia itunean sartutako aldatetara egokitzea. Ez die inola ere eragiten aztergai ditugun kenkariak.

3. Ikerketa- eta garapen-jardueren (I+G jarduerak) ziozko kenkaria.
4. Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria.
5. Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia- iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuekin loturiko inbertsioengatik eta gastuengatik aplikatu daitezkeen kenkaria.
6. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.
7. Atxikipen eta konturako sarrerengatiko kenkaria.

Berrikuntza gisa, Araban martxoaren 7ko 2/2018 Foru Araua onartu zen, Arabako zerga-sistemako hainbat arau eta zerga aldatzekoa (2018ko martxoaren 16an argitaratua), eta horren bidez Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren artikulua batzuk aldatu ziren.

Gaur egun 37/2013 Foru Araua berrikuspen-prozesu betean dago eta 2019ko urtarrilaren 1era arte soilik egongo dela indarrean aurreikusten da. Une hauetan izapidetzen ari da Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 23ko 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinak onetsi behar baitu Arabako Lurralde Historikoko zerga-araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ekonomia itunean sartutako aldaketetara egokitzea.

Honako hauek dira gaur egun Arabako foru-lurraldean aurreikusita dauden kenkariak:

a) Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 60. artikuluan arautua.

Zergadunaren zerga-oinarrian atzerrian lortu eta kargatutako errentak sartzen badira, kuota osotik kendu behar da zerga hau bezalako karga edo antzeko karga baten zioz atzerrian ordaindutako zenbatekoa. (Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 33.1 eta 34.2 artikulua)

Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria ezin da izan sozietateen gaineko zerga dela-eta zerga-oinarrian sartutako errentagatik ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren arautegiaren menpean dagoen erakunde batek ordainduz gero, hura dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

b) Aktibo finko berrietako inbertsioen ziozko kenkaria Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 61. artikuluan arautua. Kuota likidoan kenkaria aplikatu daiteke, hain zuzen ere inbertsioaren % 5 edo % 10, aktibo finkoetan egindako inbertsioen baldintzen arabera.

Aurreko paragrafoetan aipatutako inbertsioek honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte, eta baldintza hauek bete:

- Inbertitutako dirua aktibo finkoaren barruan kontabilizatu behar da.
- Inbertsioak aplikatzen diren aktiboek (informatikoek ez beste guztiek) gutxienez bost urteko amortizazio-aldia eduki behar dute ezarrita; aldi hori 37/2013 Foru Arauaren 17.1 artikuluan ezarritako taulako gehieneko amortizazio-koefizientea aplikatuta kalkulatu da.
- Ez dute ordaindu behar zenbait garraibideren gaineko zerga berezia, bai haren kargapean ez daudelako, bai, kargapean egon arren, salbuespena: inbertsioa turismo-ibilgailuetan egitea zerga ordaindu arren halako ibilgailuen errentamenduan diharduten erakundeek, baldin eta ibilgailuok erosteko eskubiderik gabe –"renting"– eta hiru hilabeterako gehienez (pertsonek edo erakunde berari) edo jarraiki hamabi hilabeterako errentatzen badituzte, loturik dauden pertsona edo erakundeei laga ezean, eta betiere ibilgailuak alokatzeko beste ezertarako erabiltzen ez badira.
- Inbertsioa aplikatzen den aktiboen guztizko zenbatekoa, ekitaldi bakoitzean, ondoko baturaren ehuneko hamar baino gehiago izan behar da: ibilgetu materialeko aktibo finkoko aurreko kontabilitateko balio garbiak, higiezinetakoa inbertsioak, aplikazio informatikoetako ibilgetu ukiezina, eta 61. artikuluko honetako 1. apartatuko d) letran aipatzen diren inbertsioak; baturatik kontabilizatutako amortizazioak eta narriaduraren ondoriozko galerak kendu behar dira. Edo bestela bost milioi eurotik gorakoa izan behar da.

c) Ikerketa- eta garapen-jardueren ziozko kenkaria Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 62. artikuluan arautua.

Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteak kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 62. eta 64. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Honako hauek dira kenkariaren ehunekoak:

Kontzeptu hori dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen % 30. Ikerkuntza- eta garapen-jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko lerroaldean jasotako % 30eko portzentajea aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari, berriz, % 50.

Gainera, % 20ko kenkari gehigarria aplikatuko da zergaldiko gastu hauengatik:

- Entitatearen langileria-gastuen artean ikerketa- eta garapen-jardueri oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkien gastuengatik.
- Ikerketa- eta garapen-proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak).

Ibilgetu material eta ez-materialeko elementuetan egindako inbertsioen % 10, higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa- eta garapen-jardueri lotuta badaude.

d) Berrikuntza teknologikorako jarduerengatiko kenkaria Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 63. artikuluan arautua.

Berrikuntza teknologikorako jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko edo % 20ko kenkaria aplikatzeko, 37/2013 Foru Arauaren 64. artikulua I+G+B kontzeptutik kanpo gelditzen diren jardueri buruz aurreikusten dituen kasuen arabera.

Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Ekonomiaren esparruko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere.

e) Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuekin loturiko inbertsioengatik eta gastuengatik Araban aplikatutako kenkaria, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 65. artikulua. <https://www.iberley.es/legislacion/nf-37-2013-13-dic-alava-araba-impuesto-sobre-sociedades-is-12993124?ancla=6669700> - [ancla_6669700https://www.iberley.es/legislacion/nf-37-2013-13-dic-alava-araba-impuesto-sobre-sociedades-is-12993124](https://www.iberley.es/legislacion/nf-37-2013-13-dic-alava-araba-impuesto-sobre-sociedades-is-12993124)

Zergadunek kuota likidotik kendu ahal izango dute Teknologia Garbien EAEko Zerrenda onartu duen Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren aginduan zehaztutako ekipo osoetan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 30.

Zergadunek honako hauen zenbatekoaren % 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

- EAEko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzekoan ekitaldian zehar ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioa eta lur kutsatuak garbitzeko izandako gastuak.
- Garapen jasangarriaren nahiz ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren arloetan, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, baldin eta aktibo horiek beharrezkoak badira, ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk gauzatzean; hauek dira helburuok:
 - Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.
 - Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.
 - Naturaguneetako ingurumena birsortzea, konpentsazio-neurriak betearazi edo borondatezko beste jarduketara batzuk egitearen ondorioz.
 - Ur-kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
 - Energia berriztagarrien erabilera eta energia-eraginkortasuna.

f) Enplegua sortzeagatik kenkaria Araban, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan arautua.

Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko, urteko soldata gordinaren % 25 kendu

ahal izango da kuota likidotik (5.000 euroko zenbatekoa gainditu gabe), baldin eta pertsona horren soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino % 70 handiagoa bada, gutxienez.

Kontratututako pertsona lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo batekoa denean, erregelamenduz zehazten den moduan, kenkariaren zenbatekoa goian azaldutakoaren arabera kalkulatzen dena halako bi izango da.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldiaren arabera izango da, lanaldi osoari dagokionez.

Aurreko apartatuan xedatutako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa izango da kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez murriztea hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan eta kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea, eta diferentzia, gutxienez, kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten kontratuen kopurua izatea.

g)) Atxikipenen eta konturako sarrerren kenkaria, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 68. artikuluan arautua:

Benetako kuotatik kendu ahal izango dira: 1. Atxikipenak, salbu eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 39.3 artikuluan xedaturikoa aplikatuta zerga-oinarrian sartzen ez diren errentei dagozkienak 2. Konturako sarrerak, eta 3. Ordainketa zatikatuak

Kontzeptu horien zenbateko osoa benetako kuotatik gorakoa denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du soberakina.

Denak baturik, 37/2013 Foru Legearen 61., 65., 66. eta 68. artikuluetan aurreikusitako kenkariak ezingo dute gainditu kuota likidoaren % 35. Horrek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondoreak.

Bizkaian, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua¹³ aplikatzen da. Honako kenkari hauek ezartzen ditu:

1. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria.
2. Aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatikoko kenkaria.
3. Ikerketa- eta garapen-jarduerengatikoko kenkaria.
4. Berrikuntza teknologikoko jarduerengatikoko kenkaria.
5. Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatikoko kenkaria.
6. Enplegua sortzeagatikoko kenkaria.
7. Atxikipen eta konturako sarrerengatikoko kenkaria.

Berrikuntza gisa, 11/2013 Foru Araua aldatu egin da martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren bidez, zeinak tributuen ondorioetarako karakterizatzen baititu Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts.

Hauek dira kenkariak:

a) Sozietateen gaineko zergan zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 60. artikuluan arautua.

b) Aktibo ez-korrante berrietan egindako inbertsioengatikoko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 61. artikuluan arautua. Kuota likidoan kenkaria aplika daiteke, hain zuzen ere inbertsioaren % 5 edo % 10, aktibo finkoetan egindako inbertsioen baldintzen arabera.

c) Ikerketa- eta garapen-jarduerengatikoko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 62. artikuluan arautua.

Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteak kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du, foru-arauaren 62. eta 64. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

13 Abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauak (2018ko abenduaren 28ko BAO) Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen du abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldatetara; aldatu egiten du Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua. Zehazki, 2. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, 3. artikulua, 45. artikuluko 6. apartatuko e) letra, 100. artikuluko 3. apartatua eta 132. artikulua aldatzen ditu. Ez die inola ere eragiten aztergai ditugun kenkariei.

Honako hauek dira kenkariaren ehunekoak:

Kontzeptu hori dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen % 30. Ikerkuntza- eta garapen-jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak bada, batez besteko horretara iritsi arte aurreko lerroaldean jasotako % 30eko ehunekoa aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari, berriz, % 50.

Gainera, % 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldi bakoitzeko gastu hauengatik:

- Entitatearen langileria-gastuen artean ikerketa- eta garapen-jarduerei oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkien gastuengatik.

- Ikerketa- eta garapen-proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak).

Ibilgetu material eta ez-materialeko elementuetan egindako inbertsioen % 10, higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa- eta garapen-jarduerei lotuta badaude.

d) Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 63. artikuluan arautua.

Berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko edo % 20ko kenkaria aplikatzeko, foru-arauaren 64. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kontzeptu horretatik kanpo uzten dituen kasuen arabera.

Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Ekonomiaren esparruko beste estatu batzuetan egindako jardueri dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere.

e) Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatiko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 65. artikuluan arautua.

Zergadunek kuota likidotik kendu ahal izango dute Teknologia Garbien EAEko Zerrenda onartu duen Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren aginduan zehaztutako ekipo osoetan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 30.

Zergadunek honako hauen zenbatekoaren % 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

- EAEko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzekoan ekitaldian zehar ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioa eta lur kutsatuak garbitzeko izandako gastuak.

- Garapen jasangarriaren nahiz ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren arloetan, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, baldin eta aktibo horiek beharrezkoak bada, ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk gauzatzeko; hauek dira helburuak:

- Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.

- Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.

- Naturaguneetako ingurumena birsortzea, konpentsazio-neurriak betearazi edo borondatezko beste jarduketara batzuk egitearen ondorioz.

- Ur-kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

- Energia berriztagarrien erabilera eta energia-eraginkortasuna.

f) Enplegua sortzeagatiko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan arautua.

Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko, urteko soldata gordinaren % 25 kendu ahal izango da kuota likidotik (5.000 euroko zenbatekoa gainditu gabe), baldin eta pertsona horren soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino % 70 handiagoa bada, gutxienez.

Kontratatu den pertsona lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoren batean badago, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, arestian adierazitako zenbatekoaren bikoitza izango da kengarria.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldia-aren arabera izango da, lanaldi osoari dagokionez.

g) Atxikipen eta konturako sarrerengatiko kenkaria Bizkaian, 11/2013 Foru Arauaren 68. artikuluan arautua.

Benetako kuotatik kendu ahal izango dira:

- Atxikipenak, salbu eta 39.3 artikuluan xedaturikoa aplikatuta zerga-oinarrian sartzen ez diren errentei dagozkienak.
- Konturako sarrerak.
- Ordainketa zatikatuak.

Kontzeptu horien zenbateko osoa benetako kuotatik gorakoa denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du soberakina.

Denak baturik, 61., 65., 66. eta 68. artikuluetan aurreikusitako kenkariak ezingo dute gainditu kuota likidoaren % 35. Horrek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondoreak.

Gipuzkoan, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, aplikatzen da. Enpresentzako kenkari fiskal hauek aurreikusten dit:

1. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria.
2. Aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatiko kenkaria.
3. Ikerketa- eta garapen-jarduerengatiko kenkaria.
4. Berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria.
5. Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatiko kenkaria.
6. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.
7. Atxikipen eta konturako sarrerengatiko kenkaria.

Gipuzkoan, berrikuntza fiskal gisa, kontuan hartu behar da uztailaren 24ko 22/2018 Foru Dekretua, aldatu egiten baitu sozietateen gaineko zerga, 2018ko uztailaren 27tik aurrera.

22/2018 Foru Dekretuan, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren justifikazioari dagokionez, kendu egiten da txosten teknikoa aurkezteko obligazioa, hain zuzen, proiektu baten urteko aurrekontua entitate batentzat milioi bat eurotik gorakoa den kasuetarako eskatzen zena eta Akreditazioarako Lankidetzaren Elkarte Europarreko erakunde batek behar bezala akreditatutako entitate batek eman behar zuena.

Horrez gain, 22/2018 Foru Dekretuak, atxikipenen alorrean, atxikitze obligazioan beste salbuespen-kasu bat ezartzen du pentsio-funts irekiet ordaintzen dituzten diru kopuruei dagokienez, pentsio-funts edo pentsio-plan inbertsiogileetako partaidetzak itzuli edo mobilizatzeagatik ordaintzen direnean. Beraz, arautzen da kontrapartida zentralen entitateek balore-maileguen eragiketengatik jasotzen dituzten ordainsariak eta eskubide ekonomikoen konpentsazioak atxikitze obligaziotik salbuesita geratzen direla.

22/2018 Foru Dekretuak egindako bi berrikuntza horiek erantsita, honako hauek dira Gipuzkoako enpresentzako kenkariak:

a) Sozietateen gaineko zergan zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 60. artikuluan arautua.

Zergadunaren zerga-oinarrian atzerrian lortu eta kargatutako errentak sartzen badira, kuota osotik kendu behar da zerga hau bezalako karga edo antzeko karga baten zioz atzerrian ordaindutako zenbatekoa.

Ezarpen bikoitza eragozteko hitzarmenen bat aplikatu behar den kasuetan, kenkaria ezin da izan hitzarmen horren arabera ordaindu beharreko zergak ezarritakotik gorakoa.

Zerga-oinarrian egoiliar ez diren entitateek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunek ondokoak kendu ahal izango dituzte kuota osotik:

- Zerga hau bezalako edo antzeko zergak edo kargak, benetan ordainduak, hain zuzen ere zerga-oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.
- Dibidenduen banaketaren edo mozkinetako partaidetzen zioz, atzerrian benetan ordaindutako zerga edo karga bat datorrenean ezarpen bikoitza eragozteko hitzarmen batekin, edo bestela kasuko herrial-

de edo lurraldeko barne-legeriari lotzen zaionean, aldez aurretik zerga-oinarriaren barruan sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Entitate ez-egoiliarren kapitaleko partaidetza zeharkakoa bada, beste entitate ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez, azken horrek edo horiek benetan ordaindutako zerga hau bezalako edo antzeko zerga edo karga kenduko da, hain zuzen ere lehendik zerga-oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Kenkari horiek egingo dira, nahiz eta zergak sarrera burutu zen zergaldia ez den beste batzuei dagozkien.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

b) Aktibo finko berrietako inbertsioen ziozko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 61. artikuluan arautua. Kuota likidoan kenkaria aplikatu daiteke, hain zuzen ere inbertsioaren % 5 edo % 10, aktibo finkoetan egindako inbertsioen baldintzen arabera.

c) Ikerketa- eta garapen-jardueren ziozko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 62. artikuluan arautua.

Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteak kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du, 62. eta 64. artikuluetan ezarritako moduan, eta 22/2018 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Honako hauek dira kenkariaren ehunekoak:

- Kontzeptu hori dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen % 30. Ikerkuntza- eta garapen-jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko lerroaldean jasotako % 30eko portzentajea aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari, berriz, % 50.

Gainera, % 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldiko gastu hauengatik:

- Entitatearen langileria-gastuen artean ikerketa- eta garapen-jarduerari oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkien gastuengatik.

- Ikerketa- eta garapen-proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak).

- Ibilgetu material eta ez-materialeko elementuetan egindako inbertsioen % 10, higiezinak eta terenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerketa- eta garapen-jarduerari lotuta badaude.

d) Berrikuntza teknologikorako jarduketengatiko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 63. artikuluan arautua.

Berrikuntza teknologikorako jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan % 15eko edo % 20ko kenkaria aplikatzeko, 64. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, I+G+B kontzeptutik kanpo gelditzen diren jarduerari dagokienez.

Halaber, kenkariaren oinarrian sartuko dira Europar Batasuneko edo Europako Ekonomiaren esparruko beste estatu batzuetan egindako jarduerari dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere.

e) Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatiko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 65. artikuluan arautua.

Zergadunek Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen Eusko Jaurlaritzako sail egokiaren aginduan zehazten diren ekipo osoetan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 30 kendu ahal izango dute kuota likidotik.

Zergadunek honako hauen zenbatekoaren % 15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

- EAEko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzekoan ekitaldian zehar ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioa eta lur kutsatuak garbitzeko izandako gastuak.

- Garapen jasangarriaren nahiz ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren arloetan, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, baldin eta aktibo horiek beharrezkoak badira, ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk gauzatzean; hauek dira helburuok:

- Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.

- Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.
- Naturaguneetako ingurumena birsortzea, konpentsazio-neurriak betearazi edo borondatezko beste jarduketara batzuk egitearen ondorioz.
- Ur-kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
- Energia berriztagarrien erabilera eta energia-eraginkortasuna.

f) Enplegua sortzeagatiko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 66. artikuluan arautua.

Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko 4.900 euro kendu ahal izango da kuota likidotik. Kopuru horri 4.900 euro gehituko zaizkio kontratatzen den pertsona lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean sartuta badago, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraikiz.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldia-
ren arabera izango da, lanaldi osoari dagokionez.

g) Atxikipen eta konturako sarrerengatiko kenkaria Gipuzkoan, 2/2014 Foru Arauaren 68. artikuluan arautua.

Benetako kuotatik kendu ahal izango dira: 1. Atxikipenak, salbu eta 39.3 artikuluan xedaturikoa aplikatuta zerga-oinarrian sartzen ez diren errentei dagozkienak, eta 2. Konturako sarrerak.

Kontzeptu horien zenbateko osoa benetako kuotatik gorakoa denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du soberakina.

Aurreikusitako kenkariaren batura ezingo da izan kuota likidoaren % 45 baino gehiago. Gipuzkoak (Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta) kenkari handiagoa onartzen du, % 45erainokoa, eta beste bi foru-lurraldeetan, berriz, kenkaria % 35ekoa izan daiteke gehienez.

7.3.2. Amaierako gogoetak

Lurralde historiko bakoitzak bere foru-araua du, eta bertan ezartzen zaizkie kenkari fiskalak egoitza lurralde horretan daukaten enpresei. Alegia, ez da zuzenbide erkidea aplikatzen, lurralde historiko bakoitzeko foru-zuzenbidea baino.

Arabian, abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak arautzen du sozietateen gaineko zerga, eta hari aldaketa garrantzitsua egin zion martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak, Arabako zerga-sistemako hainbat arau eta zerga aldatzekoak.

Duela gutxi 37/2013 Foru Araua aldatu egin da Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 23ko 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez, zeinak onesten baitu Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ekonomia itunean sartutako aldaketetara egokitzea. Ez die inola ere eragiten aztergai ditugun kenkariei.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 23ko 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 1. artikulua dioenez, "foru-arauetan xedatzen dena zerga-egoitza hurrenez hurren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan daukaten zergadunei aplikatuko zaie.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatzen dena ez zaie aplikatuko inguruabar hauetan dauden zergadunei:

- Haien eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan da aurreko ekitaldian.
- Aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dute, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan egin dituzte".

Beraz, foru-araua aplikatzeko, ez zaio sozietatearen egoitzari bakarrik erreparatu behar. Irizpide berri horiek ere sartu dira.

Bizkaian, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, aplikatzen da; aldaketa garrantzitsua egin zaio martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren bidez, zeinak tributuen ondorioetarako karakterizatzen baititu Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts¹⁴.

¹⁴ Bizkaian, halaber, sozietateen gaineko zergan aldaketa egin du abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauak (2018ko abenduaren 28ko BAO argitaratua), zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen baita abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia

Gipuzkoan, urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua aplikatzen da. Oraintsu aldaketa garrantzitsua egin dio uztailearen 24ko 22/2018 Foru Dekretuak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen dituenak (sozietateen gaineko zergaz ari gara azterlan honetan).

EAEko lurralde historikoren batean egoitza duten enpresek lortzen dituzten kenkari fiskalak aztertuta, ondorio hauek atera daitezke, besteak beste:

Hiru lurralde historikoetako foru-arauek zazpi motatako kenkari fiskalak arautzen dituzte (hiru lurraldeetan berberak). Egoitza (edo negozio bolumenaren zenbateko jakin bat) lurralde horietakoren batean duten enpresek aplikatu ditzakete kenkari horiek. Erregulazioan bat datoz hiru foru-arauek. Edukian eta artikuluetan ere bat datoz, eta horrek nahasmena eragiten du, hiru foru-arauen azterketa konparatua egiten denean aldi berean.

Hauek dira egoitza EAEn duten enpresentzako kenkariak:

1. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria.
2. Aktibo finko berrietan egindako inbertsioengatikoko kenkaria.
3. Ikerketa- eta garapen-jarduerengatikoko kenkaria.
4. Berrikuntza teknologikoko jarduerengatikoko kenkaria.
5. Garapen jasangarria, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatikoko kenkaria.
6. Enplegua sortzeagatikoko kenkaria.
7. Atxikipen eta konturako sarrerengatikoko kenkaria.

Berezitasun batzuk antzematen dira.

Lehenik, Gipuzkoako araubide fiskal onuragarriagoa duela Arabak eta Bizkaiak baino, hango kenkaria kuota likidoaren zenbatekoaren % 45 izan daitekeelako gehienez; gainerako foru-lurraldeetan (Arabak eta Bizkaian), berriz, gehieneko kenkaria kuota likidoaren % 35 baino ez da.

Bigarren berezitasuna: Gipuzkoako foru-arauari aldaketa egin zaio 2018ko uztailean, hango sozietateen gaineko zerga aldatzen duen 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez, eta bi ñabardura interesgarri gehitu zaizkio, egoitza lurralde historiko horretan duten enpresen mesedetan. Batetik, dekretu horretan, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueren justifikazioari dagokionez, kendu egiten da txosten teknikoaren aurkezteko obligazioa, hain zuzen, proiektu baten urteko aurrekontua entitate batentzat milioi bat eurotik gorakoa den kasuetarako eskatzen zena eta Akreditaziorako Lankidetzaren Elkarte Europarreko erakunde baten behar bezala akreditatutako entitate batek eman behar zuena. Beraz, izapideak erraztu egin dira.

Horrez gain, 22/2018 Foru Dekretuak, atxikipenen alorrean, atxikitzeko obligazioan beste salbuespen-kasu bat ezartzen du pentsio-funts irekietan ordaintzen dituzten diru kopuruei dagokienez, pentsio-funts edo pentsio-plan inbertsioegaitako partaidetzak itzuli edo mobilizatzeari dagokionez ordaintzen direnean.

Bizkaian, berriz, kenkari berri bat sortu da, Europako epe luzeko inbertsio-funts batzuen eraketaren bitartez (aurreikusita daude 2/2018 Foru Arauan), tamaina txikiagoko beste enpresa-proiektu batzuk sustatu eta bultzatu ahal izateko kredituak lortzea helburu. Alegia, funts horien bitartez likidezia lortu nahi da enpresa-proiektu berriei ekiteko, Europako epe luzeko inbertsio-funtsen bidez erakarri den kapital hori maileguan emanez.

Azken balorazioa egiteko, azpimarratu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-enpresek aplikatu ditzaketen kenkariak EAEko lurraldean kokatutako beste edozein enpresak aplikatu ditzakeen berberak direla. Alegia, ez dute ez berariazko tratamendurik, ez berezitasunik. Lurraldeetako foru-arauek arautzen diren kenkariak aplikatzen zaizkie. Hala ere, sektore ekonomikoaren artean ez da berezitasun tratamendurik nabaritzen, EAEko ekoizpen- eta enpresa-sarearen barruan.

Bosgarren kenkarian ("Garapen jasangarria, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuekin loturiko inbertsioengatik eta gastuengatik aplikatu daitezkeen kenkaria") osagai sozial bat sartzeko aukera azter daitezke erakunde eskudunek.

Itunaren egintza aldaketetara. 7/2018 Foru Arau horrek, zehazki, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 2. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, 3. artikulua, 45. artikuluko 6. apartatuko e) letra, 100. artikuluko 3. apartatua eta 132. artikulua aldatzen ditu. Ez die inola ere eragiten aztergai ditugun kenkariari

Hain zuzen ere, lausoki eta modu abstraktu samarrean, horixe aipatzen da “garapen jasangarria” seinalatzen denean. Garapen jasangarri horri begira, gizarte-erantzukizunaren esparru batean, kulturaren eta hezkuntzaren eremuetan jardun behar litzateke, eta baztertuta geratzeko arriskua duten kolektiboetako lagundu, haurrak babesten dituzten jokabideak sustatu, giza eskubideak babestu edota enpresetan balio etikoak zaindu.

Foru-arau bati buruz ari garenez gero, bosgarren kenkarian (aipatu dugun horretan) aldaketa egitea, edo gizarte-erantzukizunez jokatzeko duten enpresentzat kenkari berri bat sortzea, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien egungo jarduketatik bat datorren zerbait da, eta, zalantzarik gabe, akuilu izan liteke enpresek beren balioak eta beren printzipio etikoak hobetu ditzaten, horretarako jarduketa zehatz eta nabariak eginez, egitateetan gauzatuko liratekeenak. Agian EAEko gizarteak eta herritarrek begi onez ikusiko litzukete horrelako jokabideak.

Biltzar Nagusien webgunean azaltzen da zer izapide bete behar diren, Biltzar Nagusien Erregelamenduen arabera, foru-arau bat onartzeko; erregelamenduak araugintzako prozedura arrunta eta prozedura berezia ezartzen ditu¹⁵.

Gogora ekarri behar da, era berean, foru-arau bat egiteko prozedura hasteko ekimena nortzuek har dezaketean:

- Batzarkide batek, beste lau batzarkideren sinadura duela.
- Foru-aldundiak.
- Batzarkide talde batek.
- Gipuzkoako, Arabako edo Bizkaiko herritarrek, gutxienez 10.000 hautesleren sinaduraren bidez.
- Lurralde historikoko udalek, gutxienez hiru udalek. Udal horiek bi hauteskunde-barrutitakoak izan behar dute gutxienez eta 10.000 biztanletik gora eduki guztien artean.

Argi dago lurralde historiko bakoitzaren zerga-araubidea foru-zuzenbideko gai eskusiboa dela, eta, beraz, foru-arau baten bitartez arautu daitekeela. Horrek pentsarazten du izapideak errazago eta arinago egiten direla lurralde erkidearen gaien erregulazioan baino, azken hori Estatuko lege batek arautuko bailuke.

Legegintzaren bidea zabalik dago, beraz, EAEko enpresentzako kenkari fiskalak hobetu ahal izateko eta, era horretara, jardunbide sozial eta jasangarri egokiak susta daitezkeen eta kode etikoak eta gobernamentu onari buruzkoak bete daitezkeen lortzeko. EAEko enpresen borondatezko autorregulazioa sarituko litzateke nolabait.

Dagoeneko Eusko Legebiltzarrak jendaurrean jarrera hartu du, ordea, abenduaren 28ko 14/2007 Legea onartuz (Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena)¹⁶, bertan konpromisoa hartu baitu “armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin” inolako lan-kidetzarik ez izateko.

Halaxe adierazten du berariaz 3.3 artikulua, honako hau esanez:

“Enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin.”

Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait enpresa, hala ere, lider teknologikoak dira misil-sistemen ingeniari-tzan, garapenean eta eraikuntzan, eta haien artean badira inteligentzia-, zaintza- eta arakatzeko-lanetarako (ISR) berariazko aplikazioetan espezializatuta daudenak. Batzuek dirulaguntza publikoak jaso izan dituzte beren jarduerak garatzeko.

Defentsa, Aeronautika eta Espazioko Teknologien Espainiako Elkartearen (TEDAE) datuen arabera, atxikitako enpresak ia ehun dira, eta 11.180 milioi euroko fakturazioa lortu zuten 2017ko ekitaldian. Enpresen erdiek defentsarako materialaren eta gerrako teknologiaren arloan dihardute.

Espainiako armamentu-industriaren zifrek hazkunde esponenziala erakusten dute, eta esportazioek guztizko bolumenaren % 83 egiten dute. Horrenbestez, Espainia armen salmentan ondoen kokatutako herrialdeetako bat da munduan. Armak, osagaiak, zerbitzu militarrik eta defentsa-zerbitzuak egiten dituzten EAEko enpresek nazio-mailako fakturazio osoaren % 16 egiten dutela kalkulatu da.

15 http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/funciones_normativa.jsp?idioma=eu.

16 2011ko urriaren 26an argitaratu zen BOEn.

Azken batean, aipatutako legearen 3.3 artikuluan xedatutakoa nola edo hala kontraesanean dago –eta kontraesan hori lege-aldaketa egokien bitartez zuzendu beharko da– jokabideari buruzko esparru-kodea sektoreko EAeko enpresetan integrazteagatik dirulaguntzak ematearekin edo/eta erakunde eskudunen bitartez kenkariak onartzearekin. Horregatik, beharrezkoa da, aipatutako esparrua diseinatu eta kenkari berriak arautu aurretik, aplikatu beharreko esparru juridikoan dauden kontraesanak aztertzea.

VII. Ondorioak

Azaldutako arrazoibideen eta egindako azterketa juridiko eta teknikoaren ildotik, ondorio hauek atera daitezke txosten honetatik:

I. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta EAeko erakundeek itsas garraioaren eta interes orokorreko portuen arloetan duten eskumena.

Aplikatu beharreko arau juridikoak –barnekoak, Europakoak zein nazioartekoak– kontuan izanik, ondorioztatu behar da ez Eusko Jaurlaritzak, ez Eusko Legebiltzarrak, ez EAeko erakundeek ez dutela eskumenik merkataritzako ontzidiaren eta interes orokorreko portuen gain, Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak osatutako eskumen-sistemaren arabera.

Konstituzioaren 148.1.6 eta 149.1.20 artikuluen eta EAeko Autonomia Estatutuaren 10.32 eta 12.8 artikuluen konbinazioak argi erakusten du autonomia-erkidegoei legegintza-, betearazpen- eta erregelamendugintza-ahal osoak aitortzen zaizkiela itsas garraioaren eta portuetako jardueraren gain, baina eskumen horrek salbuespen bakarra eta garrantzitsua duela honako gai hauetan: merkataritzako ontzidia eta ontziei bandera jartzea, itsasertzeko argiak eta itsas seinaleak, interes orokorreko aireportuak, aireko espazioaren kontrola, aireko bidaiak eta garraioa, meteorologia-zerbitzua, aireontzien matrikulazioa eta interes orokorreko portuak. Hain zuzen ere horrela dago sailkatuta Bilboko portua (Estatuko Portuen eta Merkataritzako Ontzidiaren Legearen testu bateginaren I. eranskina), eta handik abiatzen dira armen eta erabilera bikoitzeko teknologiaren nazioarteko bidalketa eta esportazioetako batzuk. Funtsean, interes orokorrekotzat sailkatu gabeko jolas-jardueri eta arrantzari dagokienez soil-soilik dira autonomia-erkidegoaren eskumenekoak portuak eta itsas garraioa.

Hala ere, Autonomia Estatutuaren 10.32 eta 12.8 artikulua batera edo konbinatuta interpretatuz gero, ondoriozta daiteke interes orokorrekotzat sailkatutako portuen zuzeneko kudeaketa autonomia-erkidegoak har lezakeela bere gain baldin eta Estatuak ez baditu beretzat gordetzen haien zuzeneko kudeaketa eta, horrekin batera, indarrean dagoen legeriaren betearazpena. Aurrekoa esanda, ordea, ohartarazi dugun bezala, eta EAeko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulutik ondorioztatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du portuen gain baldin eta interes orokorrekotzat sailkatuta ez badaude (2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko portuena eta itsas garraioarena; zioen azalpena eta 1.1 artikulua).

II. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta EAeko erakundeek kanpo-merkataritzaren, armen eta armamentu-industriaren arloetan duten eskumena.

Kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren gaineko eskumena dela-eta txosten honetan azaldu diren arrazoibideen arabera, hasieratik azpimarratu beharra dago eskumen hori ukatu egiten zaiela autonomia-erkidegoei. 149.1.3, 149.1.10, 149.1.13 eta 149.1.26 artikuluen irakurketa konbinatuak erakusten du nola Estatuak argi eta garbi, artikulua horietan aipatzen diren eskumenak eskusibotzat jotzean, eskumenok beren gain hartzea eragozten dien autonomia-erkidegoei.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 346. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu kideek eskumen eskusiboa dutela armen, munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpenaren edo/eta merkaturatzearen arloan, egia ere bada EBFTren beraren 215. artikuluan ezarritakoaren itzalpean suma daitekeela nola EBk murrizketa-neurriak har ditzakeen, Batasuneko estatu kideei debekatuz arma konbentzionalak, horien munizioa eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia saltzea edo/eta laguntza teknikoa edo/eta finantzarioa eskaintzea hirugarren herrialdeei, hirugarren estatu hori zuzenbide humanitarioa urratzen ari bada.

Azpimarratu beharra dago, bestalde, Espainiako arma-sektorean kanpo-merkataritzako politikak eraginik izango balu atzerri-politika, segurtasun eta defentsa erkideetan, giza duintasunean, giza eskubideetan eta

askatasunean, Europar Batasunak eta haren erakundeek eskumena izango luketela eremu horien guztien gain. Alhora utzi gabe EBk eskumen eskusiboa duela merkataritzako politika erkideko gaietarako edo/eta barne-merkatua arautzeko, arma konbentzionalen, lehergaien eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen transferentziari dagokionez. Hain zuzen ere merkataritzako politika erkideak eskaintzen dituen tresnak eta atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloan hartutako erabakiak izan dira, biak batera, EBri ahalbidetu diotenak lege- eta arau-esparru egituratua edukitzea arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen salerosketa kontrolatzeko.

III. Armen eta erabilera bikoitzeko teknologiaren merkataritza eta esportazioa arautzen dituen esparru juridikoa. Dauden arau multzoak.

3.1. Nazioarteko arau multzoa

3.1.1. Nazio Batuen Gutuna

Nazioarteko testu hori aztertutik, hau ondoriozta daiteke: hirugarren herrialde batera arma-esportazio jakin bat egiteak nazioarteko segurtasun-politika, segurtasuna bera edota bakearen mantentzea eragotz dezakeen kasuetan, Nazio Batuen Gutuna eta eskura jarritako mekanismo guztiak bete-betean aplikatu ditzake Nazio Batuen Erakundeak, bere kide guztien berdintasun subiranoaren printzipioa bere existentziaren oinarri edo giltza duen nazioarteko erakundea den aldetik.

Horrelako kasuetan, Segurtasun Kontseiluak ahalmen edo/eta eskumen osoa du zehazteko indar armaturik baliatu gabe zer-nolako neurriak erabili behar diren bere erabakiak gauzatzeko, eta Nazio Batuetako kideak hertsia ditzake neurri horiek aplikatzera. Neurriok barruan hartu ahal izango dute, Gutunaren 41. artikuluan jasotzen denez, “[...] harreman ekonomikoen etete erabatekoa edo partziala [...], bai eta harreman diplomatikoak etetea ere”. Ulertu behar da manu horretan biltzen direla, beste neurri batzuen artean, produktu eta salgai jakinak esportatzeko edo/eta inportatzeko debekuak eta armen enbargoak.

3.1.2. Armen merkataritzari buruzko tratatua

Armen Merkataritzari buruzko Tratatua nazioarteko akordio bat da, bertan parte hartzen duten estatuak lotesten dituena eta arma konbentzionalen eta horien munizioaren merkataritza, joan-etorriak, garraio-aldaketak eta artekaritza erregulatzeko arauak ezartzen dituena. Nazioarteko testuak armen transferentziari buruzko betebeharrak zehatz batzuk ezartzen dizkie estatu parte-hartzaileei: armen transferentziak kontrolatzeko sistema bat ezarri eta mantentzea; zenbait arma-transferentzia debekatzea eta zenbait arma-esportazio ez baimentzea; armen inportazioak arautzea; joan-etorriak eta garraio-aldaketak arautzea; armen artekaritza arautzea; betearazpen-mekanismoak ezarri eta mantentzea; beste estatu parte-hartzaile batzuekin informazioa trukatea; eta arma-transferentzien erregistroa antolatzea.

AMT aginduzkoa izateari dagokionez, aitortu beharra dago hainbat eta hainbat manutan estatuen esku uzten duela, neurri batean, araua errespetarazteko eta betearazteko ardura. Horrek bide ematen digu pentsatzeko ez ote gauden berez soft law-ko arau baten aurrean, nazioarteko legegilearen ahaleginak gorabehera. Hain zuzen ere horrexek moteltzen ditu haren eraginkortasuna eta araugintzako erantzunaren harmonizazio desiratuak, eta azken batean agerian jartzen ditu, gure ustez, lege eta arauen ziurgabetasun juridiko handiagoa eta arauak aplikatuta lor daitekeen emaitzaren aurreikusgarritasun txikiagoa. Izan ere, nazioarteko testuaren eraginkortasun hori estatu parte-hartzaile batek edo/eta eskualde-erakunde batek gaiari buruz izan dezakeen asmo edota ikuspegi zehatzaren mendean geratzen da.

Dudarik gabe, nazioarteko testua negoziatu eta zirriborroak egiteko garaian lortu zen adostasun urriaren isla dira AMTren testuaren argitasunik eza eta arau nazionalen zein estatuek banaka duten protagonismoaren etengabeko aipamenak. Eta, jakina, sistema lauso bat ezin daiteke hartu estatu parte-hartzaile bakoitzak bere egoera berezia egokituko duen araugintzako erantzuna aurkitzeko eta antolatzeko aukeratzat, zeren eta, armen transferentzien eta esportazioaren gaineko kontrol-sistema benetan eraginkorra izatea nahi izanez gero, nazioarteko ahalik eta adostasun handienarekin arautu behar bailitzateke.

Nazioarteko testuaren arabera, estatu parte-hartzaileek armen eta munizioen esportazioa eta transferentzia arautzeko barneko kontrol-sistema gardena eta eraginkorra antolatu behar dute, beren erantzukizunaren eta kontrolaren pean, eta gainera aipatutako kontrol-zerrenda nazionala sortu eta gainerako herrialde tratatukideen eskura jarri behar dute. Alegia, funtsean helburua da estatu esportatzaileak berak bere burua kontrolatzea nazioarteko merkataritzaren esparru horretan, eta AMTko gainerako estatuak ezin diote zehapenik ezarri, ezta kargurik hartu ere, testu arauemailean ez delako horretarako mekanismorik zehaztu. Barneko kontrol-sistemaren gardentasuna edo eraginkortasuna handiagoa edo

txikiagoa izatea, beraz, hura diseinatu behar duen estatuaren esku dago, berak nahi duena egin baitezake sistema hobetzeko edota goragoko estandarrei egokitzeko. Logikoa denez, Europako zuzenbideak osatu egin ditu AMTren hutsune edota gabezia horiek EBrako eta hango estatu kideetarako, eta hori aurrerapen handia da AMTko beste kideek beren herrialdeetan eratu eta ezarri dituzten gainerako sistemen aldean.

Horregatik, esan dezakegu arma-esportazioak kontrolatzeko sistema eraginkor eta efizientearen ezarpenean oinarritzat hartu behar dela lege-esparru juridiko zehatz eta argi bat, armak inportatzeko eta esportatzeko lizentzia eskuratu ahal izateko bete behar diren baldintzak eta prozesu objektiboak finkatzen dituena. Horrekin batera beharrezkoak dira, jakina, lizentziak edota baimenak emateaz arduratzen diren erakundeen jarduera gardena eta publikoa, kontrol-zerrenda nazional publikoa, eta ez-betetzeei erantzunez aplikatu ahal izango den zehapen-sistema atzera-eragilea.

Gainera, ezinbestekoa da erabaki politikoak hartzeko mekanismoak ezartzea, sistema garatzeko aukera juridiko eta instituzional askotarikoei buruz erabaki egokiak har daitezten. Alabaina, lizentzien sistema objektibo, eraginkor eta garden bat gehitu behar zaio aurrekoari, arriskuen ebaluazioak egiteko eta armen esportazio, inportazio edota transferentziei buruzko erabakiak hartzeko, arloko erakundeekin eta ministerio eskudunarekin koordinaturik. Garrantzitsua da gardentasunean oinarrituta eta beharrezkoak diren berme juridiko eta arauzkoei pean diseinatzea sistema hori, horrela arma-enpresen sektoreak hobeto ezagutuko baititu lege ezartzen zaizkion betebeharrak. Dударik gabe, sistema horrek berak nazioarteko informazio-trukerako eta lankidetzarako mekanismo argiak ezarri behar ditu, eta, horrekin batera, betearazpen-sistema aurreikusgarria eta aginduzkoa diseinatu behar du. .

3.2. Europako arau multzoa

3.2.1. 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua

Europar Batasunak teknologia eta tresneria militarren esportazioak kontrolatzeko taxutu duen sistemen oinarria Kontseiluaren 2008ko abenduaren 8ko 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua da. Armen Esportazioari buruzko Jokabide Kodea, Kontseiluak 1998ko ekainaren 8an onartua, du iturburua, eta eguneratu eta ordeztu egiten du.

Jarrera bateratuak irizpide sail bat arautzen eta egituratzen du. EBko estatu kideek aintzat hartu behar dituzte irizpideok, EBren Zerrenda Militar Bateratuan jasotako gaiak esportatzeko aurkez daitezkeen lizentzia-eskaeretako bakoitza ebaluatzeko garaian. Zerrenda hori estatu kideetako teknologia eta tresneria militarren zerrenda nazionaletarako erreferentzia gisa hartzen da.

Txosten honetan egindako azterketatik ondoriozta daiteke jarrera bateratuak aginduzkotasuna eta haztapena/subjektibotasuna konbinatzen dituela bere irizpide gehienetan. Salbuespen bakarra 1. irizpidea da agian, bertan nabarmena baita nahitaezkotasuna. Gainerako irizpideetan beti hautematen da tartean diren interesak hazta daitezkeela, inguruabar edo/eta gertakizun jakin batzuen balorazioaren bitartez, eta horrek erakusten du subjektibotasun-maila handia onartzen dela esportaziorako baimena edo lizentzia emateari buruzko erabakia hartzean. Giza eskubideen urratzeari buruz 2. irizpideko a) eta b) letratan jasotako arauen artean alde oso deigarria dago, urratzea barne-errepresioa den ala bestelako kasu bat den.

Izan ere, 2. irizpideko a) eta b) letrak irakurri eta alderatu ondoren, zera suma daiteke, nazioarteko edo/eta eskualdeko erakunde horiek egiaztatuak dituzten giza eskubideen urratze larriek barne-errepresioarekin zerikusirik ez duten kasuetan ez dagoela debekatuta armak esportatzea giza eskubideak urratzen ari den herrialdera edo estatura eta egin ere egin daitezkeela, baldin eta estatu esportatzaileak egokitzen jotzen badu. Horrek ez du esan nahi, ordea, kontu horrek eraginik ez duenik EBko atzerri- eta segurtasun-politika erkidean eta kasua bada Europako Kontseiluak jarrera hartzea beharrezkoa ez denik.

Europako testuak estatu kideei aukera ematen die, kasua denean, interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrial deitutakoak lehenesteko, bigarren mailan utzita honako hauek: giza eskubideen errespetua, barne-errepresioaren ideiaz kanpo; eskualdeko bakeari, segurtasunari eta egonkortasunari eustea; estatu kideen segurtasun nazionala, kanpo-harremanak estatu kideren baten ardurapean dituzten lurraldeena eta adiskide edo aliatuena; herrialde erosleak nazioarteko erkidegoarekiko duen jarrera edo jokabidea; behar ez den desbideratze edo/eta berresportazioaren bat gertatzeko arriskua; eta teknologia edo tresneria militarren esportazioen eta herrialde hartzaileak duen ahalmen ekonomiko eta teknikoaren arteko bateragarritasuna.

Beste alde batetik, egia da, era berean, estatu kideek arau nazional zorrotzago eta bermezaleagoak taxutu eta aplikatu ditzaketela beren esportazioetarako, bi material motei dagokienez (armak edo/eta defentsarako materiala, eta erabilera bikoitzeko produktuak edo teknologia). Hala ere, ohartarazi dugun moduan, irizpen edo interpretaziorako halako tarte bat ageri da, eta horrek aplikazio aldakorra ahalbidetzen die estatuei, nolabaiteko zorrotzasun falta duena.

Azkenik, jabetu beharra dago, halaber, EBko estatu kideen atzerri- eta segurtasun-politika erkidea gobernuen arteko kontua dela nabarmenki, eta izaera horren ondorioz itzuri egiten diola Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren kontrol judizialari. Izan ere, arau orokor gisa, atzerri- eta -segurtasun politika erkidearen (ASPE) esparruan onartzen diren legegintza eta araugintzako egintzak ez dira EBko jurisdikzio-organo gorenaren kontrol judizialaren pean jartzen. Hori ez da oztopo aipatutako arau-esparru hori nazioarteko zuzenbide publikoko arauen pean egoteko eta nazioarteko jurisdikzio-organo baten kontrol juridikoaren xede izateko.

Hala ere, esanak esan, jabetu beharra daukagu EB dela armen transferentzietan ezarri beharreko kontrolei buruz nazioartean laguntza gehiago eman duten eskualde-erakundeetako bat.

3.2.2. 428/2009 Erregelamendua

Zuzenean aplikatzeko araua da 428/2009 Erregelamendua, eta helburutzat du araubide erkide eragin-korra aplikatzea erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko, EBko estatuen nazioarteko erantzukizunak eta konpromisoak betetze aldera. Zentzuzkoa denez, EBn horrelako sistema erkide bat antolatzeak erabilera bikoitzeko produktuen zirkulazio liberako aukera ematen du EBren barruan.

Egia da, hala ere, arau horrek Teknologia eta tresneria militarren esportaziorako Jarrera Bateratuaren ildoari jarraitzen diola eta estatu kideei egozten dizkiela erabilera bikoitzeko produktuak esportatzeko eskaerari buruz erabakia hartzeko eta ondorioz baimena edo lizentzia eman edo ukatzeko eskumena eta erantzukizuna. Hori bai, Europako arauak erabilera bikoitzeko produktuen eta horien xedeen zerrenda erkideak egotearen mende jarri nahi du sistemaren eraginkortasuna.

Aztertu eta gero, berriro ikusten dugu Europako araua ez dagoela aginduzkotasun edo nahitaezkotasunez jantzirik, bere zatirik handienera, eta gaiaren gaineko eskumen osoa egozten zaiela estatu kideei; are gehiago, haztapan-faktore eta araugintzako kontzeptu juridiko zehaztugabeak eransten dira, zenbaitetan arau zehatz baten aginduzkotasuna itxuraz eztiitu edo leundu egiten dutenak.

3.2.3. Kontrol eraginkorren sustapena

EBn armen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzea estu lotuta dago Europako segurtasun- eta defentsa-estrategia esaten zaion horrekin. Dударik gabe EBk askotariko erronkak ditu parean: suntsipen handiko armen ugaritzea; nazioarteko terrorismoa; eskualde-gatazkak; estatuen zatiketa; delinkuentzia antolatua; gizakien salerosketa (bereziki emakumeek eta hurrek pairatzen dutena); brexit-arekin piztutako Europar Batasunik Eza; Europar Batasuneko estatu kideetan azaldu diren eskuin-muturreko alderdi euroseptikoen gorakada, eta, horrekin guztiarekin batera, arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia eta produktuen kontrolik gabeko zirkulazioak nazioarteko segurtasun eta egonkortasunari, bakeari, giza eskubideei eta zuzenbide humanitarioari egiten dien kaltea. Arazo horiek ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna sortzen ari dira, eta egoera horrek atzerri- eta segurtasun-politika eraginkorra eta behin betikoa eskatzen du EB osorako.

EBk eta haren erakundeek gaur egun nazio elkarte aurreratuena osatzen dute, armagabetzeko, armak ez ugaritzeko eta armamentua kontrolatzeko alde anitzeko tratatuak eta sistemak orokortzearen, osorik aplikatzearen eta betetzearen aldeko konpromiso sendoena daukana. Horren isla garbia izan zen EBk 1998ko ekainaren 5ean onartutako Jokabide Kodea. Testu horrek armen esportaziorako nazioarteko sistemarik zorrotzena ezarri zuen, arma konbentzionalen legeko merkataritzari buruzko irizpide erkideak zehaztuta. Haren adierazle nagusia gaur egun 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua da, zeinak Erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorriak kontrolatzeko 428/2009 Erregelamendua baitu osagarri.

Hain zuzen ere EBk hirugarren herrialdeei laguntzeko programak sustatu izan ditu gaiari buruzko lege-ria nazionalaren sorrera edo gardentasunerako neurrien sustapena bezalako esparruetan. Jarrera bateratuaren beraren 11. artikulua estatu kideei adere ematen die hirugarren estatu esportatzaileak bultzatzen dituzten jarrera bateratu horretan jasotako zortzi irizpideak beren esportazioetan ezarri eta aplikatzera.

AMTren eta jarrera bateratuaren aplikazio konbinatuak nazioarteko esparru juridiko funtsezkoa sortzen du, egin beharreko esportazioen arriskuen ebaluaziorako aintzat hartzekoa, eta EBk berariaz babestu du AMTn dauden xedapenen aplikazio orokorra, haren unibertsalizazioa sustatuz eta gardentasun handiagoa eta erantzukizunaren areagotzea bilatuz armen zein erabilera bikoitzeko produktuen esportazioetan. Horretarako baliatu izan ditu Kontseiluaren 2013/768/ASPE eta 2017/915 erabakietan jasotako programak, besteak beste.

Kontseiluak oraintsu hartutako 2018ko urtarrilaren 22ko 2018/101 (ASPE) Erabakiak, kontrol eraginkorrak sustatzeari buruzkoak, 1. artikuluan islatzen du Europako erakundeen nahia dela gero eta eskumen gehiago erreklamatzeko arlo horretan.

Zalantzarik gabe, EBk nazioartean arlo honetan azaltzen duen planteamenduak multilateralismo eraginkorra du ardatz, eta estrategia horrexetan bermatzen ditu bere segurtasun- eta defentsa-politikaren koherentzia eta eraginkortasuna. Jakina da behar adinako adostasunik gabe nazioarteko ekintza juridiko-politiko batek modu esponentzian murrizten duela bere helburua lortzeko ahalmena (kasu honetan arma konbentzionalen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen kontrolik gabeko ugaritzea eta haiek erabiliz giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren kontra egiten diren urratzeak gutxitzea da helburua).

Esanak esan, bistan denez, arma konbentzionalak eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuak salduz diru-sarrera itzelak lortzen dira, eta armamentuaren nahiz erabilera bikoitzeko teknologiaren ikerketa eta garapenak etekin ederrak dakartza. Zalantzarik gabe, faktore horien eraginak barne-gatazkak zein nazioartekoak desorekatu ditzake, eta hori guztia oztupo izan daiteke herrialdeetako, Europako eta nazioarteko araudi zorrotzagoa sustatzeko garaian. Hala ere, armamentuaren beste sektore batzuetarako (arma kimikoak, biologikoak eta nuklearrak) nazioarteko kontrol-esparru juridikoa askoz zorrotzago eta sakonagoa da, suntsipen handiko armen esportazioak kontrolatzeko indarrean dauden nazioarteko tresnek halakoak eskualdatzea, edukitzea eta salerostea debekatzen baitiete estatu gehienei. Edo, are arma konbentzionalen arloan, pertsonen aurkako minen salerosketari, fabrikazioari eta biltegiatzeari aplikatu beharreko nazioarteko araubide juridikoa askoz murriztaileagoa eta bermezaleagoa da.

Egindako azterketaren arabera, ondorioztatu behar da, azalduetakoa gorabehera, Europako 1998ko Jokabide Kodea birmoldatuz 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua sortzea funtsezko urratsa izan zela Europar Batasunean armen esportazioak kontrolatzeko esparru juridikoaren garapenean. Inondik ere kontrol-sistema aurreratua da, segurtasun juridiko handiagoa errazten duena.

3.3. Estatuko arau multzoa

3.3.1. 53/2007 Legea

Aztertu den gaiari dagokionez, armen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo/eta produktuen kanpo-merkataritzari buruz indarrean dauden estatu-arauak honako hauek dira: 53/2007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa, eta hura garatzen duen erregelamendua, hots, 679/2014 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, defentsa-materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko erregelamendua onartzen duena.

Barne-arauak oinarritzeko hiru kategoriatan sailkatzen ditu arautzen dituen produktuak edo materialak. Hala, 1. artikulua, legearen xedeari eta helburuari buruzkoak, adierazten duenaren arabera, legeak aztergai ditu defentsarako materialak, beste material batzuk (polizialak eta segurtasunekoak, horiek defentsarako materialaren kontzeptutik kanpo geratzen baitira, 3. artikulua xedatzen duenez), eta erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak.

Ondorioen atal honetan azpimarratu behar da, batetik, legearen 8.1 artikulua zenbait arau-kontzeptu zehaztugabe jasotzen dituela eta horregatik sistemak zenbait hutsune dituela, ziurtasun eta aurreikusgarritasun falta eragiten dutenak. Hala, manuak ez ditu argi zehazten edo mugatzen zenbait kasu, esportazio-eragiketarako baimena ukatzeko, eteteko edo/eta indargabetzeko kontuan hartu behar direnak. Eta, bestalde, legearen 16.3 artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduaren (679/2014 Errege Dekretua) 19.3 artikuluan esportazio-eragiketen kontrol parlamentarioarako mekanismo bat ezartzen dela eta Defentsa Batzordeak gauzatzen duela mekanismo hori. Ohartarazi dugun moduan, ordea, kontrol-mekanismo hori urtean behin abiarazten da, baimenak jada emanda daudelarik. Beraz, haren eraginkortasuna eta efikazia oso mugatuak dira: kontrol testimonial hu-

tsa da, zurruna, aurrez erabakitako esportazio-baimena berbideratzeko, indargabetzeko edo eteteko ekintza-tarterik ematen ez duena.

3.3.2. Sekretu Ofizialei buruzko 9/1968 Legea

Txosten honetan azaldutakoaren haritik, Legearen 10.2 artikulutik ondorioztatzen da Diputatuen Kongresuaren edota Senatuaren jarrera aktiboa "sailkatutako gaien" kontrolerako mekanismo baliagarria izan daitekeela. Baina ganbera horietan erabakitzen denaren mende egongo da, eta babes parlamentario nahikoa edo gutxienekoa beharko du. Ministro Kontseiluaren 1986ko azaroaren 28ko Erabakiaren arabera, halakoak isilpean jartzea edo sailkatutako gaitzat kalifikatzea, praktikan, esportazioa sustatzeko politikako beste tresna bat balitz bezala planteatzen da.

3.4. Giza eskubideak Europar Batasunean. Arauketa eta mekanismoak

Azpimarratu behar da Europako lurraldean giza eskubideak babesteko hainbat sistema daudela eta bakoitzak bere eremu geografikoan diharduela. Hona: Europako Kontseiluak diseinatutako sistema; Europar Batasunak giza eskubideak babesteko diseinatutako sistema; eta azkenik, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundeak (ESLE) diseinatutako sistema.

Horrenbestez, esan dezakegu nazioartean Europar Batasuna dela zalantzarik gabe giza eskubideak gehien bermatzen eta babesten dituen nazio elkarte. Ez du parekorik, indarrean baitauka giza eskubideak bermatzeko mekanismo edo sistema bikoitza: batetik 1950eko Erromako Hitzarmena eta GEEAren kontrola, eta bestetik Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna eta EBJAren kontrola. Subjektuek sistema horretara jo dezakete balizko urratzeen aurrean.

IV. Nazio Batuen edo Europar Batasunaren zehapenak jaso dituzten herrialdeetara armak esportatzea

4.1. Nazioarteko zehapenak

Nazioarteko zehapenak legezko neurriak dira, Nazio Batuek edo integrazio ekonomikorako prozesuetako erakundeek edo beren kabuz zenbait herrialdek erabakitzen dituztenak, atzerriko estatu, talde sozial eta politikoko edo pertsona fisiko zein juridikoen aurka, eta bai partikularrekiko bai erakunde publikoekiko harreman ekonomikoetan eragiten dutenak, funtsean. Mota askotakoak izan daitezke, eta kasu bakoitzean zehapena ezartzen duenak erabili behar dituen legezko tresnen bitartez bideratzen dira. Zehapen horien bidez helburu jakin batzuk lortu nahi dira, helburu politikoak funtsean, baina ez dira baztertzekoak helburu ekonomikoak ere, zenbait kasutan.

Nazio Batuen Erakundeak ezar ditzake zehapenak, edo integrazio ekonomiko eta politikorako prozesuetako nazioz haraindiko erakundeek, esaterako Europar Batasunak, eta baita zenbait estatuk beren kabuz ere; ildo horretan garrantzi berezia du Amerikako Estatu Batuen portaerak, baina ez dira ahaztu behar beste hainbat herrialde: Japonia, Australia etab.

Nabarmendu behar da, azkenik, NBEren eta dituen gaitasun eta ahalmen juridiko eta faktikoen ezaugarriak direla-eta, NBEko kide diren herrialdeei dagokiela Segurtasun Kontseiluak onartutako nahitaezko neurriak bete-betean aplikatzea. Ondorioz, NBEren zehapenak egiaz estatuen eta Europar Batasuna bezalako beste erakunde batzuen legegintzako, administrazioiko eta arlo judizialeko ekintzaren bitartez inplementatzen dira. Arrakasta izan dezakete baldin eta estatu askok beren legerian txertatzen badituzte eta aplikatzeari ekiten badiote; adibidez, Europar Batasunak zehapen baten transposizioa egiteak edo hura handitzeak garrantzi handia du zehapen hori benetan eraginkorra izateko.

4.2. EBren zehapenak

Txosten honetan oinarri juridiko eta guzti azaldu diren arrazoibideekin bat etorritik, EBren zehapenak Kontseiluaren atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloko erabakien bitartez ezartzen dira, hau da, Kontseiluaren ASPE erabakien bitartez. Prozesu hau bete behar da zehapena erabakitzeko: EBren Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkariek proposamena egiten du, eta prestatze-organo hauek hura aztertzen eta eztabaidatzen dute: Zehapena jarri nahi zaion herrialdea zein eremu geografikotan dagoen, hango talde arduraduna; Kanpo Harremanetako Kontseilarien Taldea (RELEX); beharrezkoa bada, Politika eta Segurtasun Komitea (PSL); eta Ordezkaritza Iraunkorren Lantaldea (Coreper II). Azkenik, Kontseiluak ASPE erabakia onartzen du aho batez.

Azpimarratu behar da, hala ere, badirela ASPE erabakian bakarrik ezartzen diren murrizketak, hala nola arma-enbargoak edo lurraldean sartzeko murrizketak; baina zehapen-neurri gehienak, eta zehazki aktiboen

ibilgetzea berekin dakartzatenak edo bestelako zehapen ekonomiko edo finantzarioak, Kontseiluaren erregelamendu baten bidez aplikatu behar dira (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 215. artikulua), eta honako prozedura honen bitartez onartzen da erregelamendu hori: ASPE erabakian oinarrituta, goi-ordezkariek eta Batzordeak erregelamendu-proposamena aurkezten dute batera, RELEX aztertu egiten du, gero Coreper-i eta Kontseiluari igortzen zaie, eta azken horrek txostena egiten dio Europako Parlamentuari. Erregelamendua gehiago kalifikatuz onartzen da. Haren xedea neurriak zehaztu eta xehetasunez azaltzea da. Erregelamendua aplikazio orokorreko egintza juridikoa da eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko eta erakunde oro lotesten du EBn.

Bestalde, EBren zehapenak, denak argi eta garbi hari berekoak izan arren, badituzte aldeak, nabarmenak batzuetan, egoera desberdinen arabera: kasurik gehienetan estatu oso bati dagozkio, baina badira subjektu edo talde jakinei bakarrik eragiten dietenak; esaterako, gerrillari talde bati. Haiek ezartzea eragin duten arrazioen larritasunaren arabera ere desberdinak izan daitezke. EBk murrizketa jakin batzuk erabakitzen dituenen lortu nahi dituen helburuetan ere egon daiteke elementu bereizgarria. Hala, helburua arma nuklearren edo misil balistikoen ugaritzeari amaiera ematea denean, zehapenek azpimarra jartzen dute eremu horiekin zerikusia duen guztian (uranioa, zenbait mineral eta zenbait osagai esportatzeko debekua, eta abar). Beraz, praktikan ezinbestekoa da kasu eta egoera guztiei banan heltzea.

Azkenik, kontuan izan behar da nazioarteko zehapenei buruzko araudia nabarmenki dinamikoa dela, alegia, sarritan eta oso azkar aldatzen dela, murrizketak ezartzea eragin duten gertaerek eboluzionatu ahala edo datu eta inguruabar berriak azaldu ahala.

V. JIMDDU eta haren erregulazioa

Txosten honetan egindako azterketaren arabera, esan daiteke, JIMDDU nortzuek osatzen duten ikusita, itxuraz interes komertzialek dutela lehentasuna baimenak emateko edo ukatzeko garaian, eta bigarren mailan uzten direla beste interes batzuk, hala nola defentsa, nazioarteko segurtasuna, Estatuaren segurtasuna edo giza eskubideak. Ikus daiteke, argi eta garbi, diseinatutako sistemak ez diela ordezkariarik ematen armagabetearekin, giza eskubideekin edo nazioarteko lankidetzarekin zerikusia duten gaietan espezializatutako administrazio-organoei.

Adierazi beharra dago, bestalde, agian zentzu juridiko handirik gabekoa dela 53/2007 Legearen 14.3 artikulua bere lehen zatian aukera ematea zenbait baimen salbuetz daitezen aurretiazko txostena eman beharretik eta kontrol-agiria aurkeztu beharretik, eta jarraian, bigarren paragrafoan, eskatzea baimen horiek ez dezatela urratu Europako arau aplikagarrian eta 53/2007 Legearen beraren 8. artikuluan xedatutakoa. Aurretiazko txostena egiteko eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko eskakizun horren helburu bakarra da, noski, aztertu eta egiaztatzea ea eskatutako baimenak urratzen ote duen Europako jarrera bateratuan ezarri diren eta barne-legearen 8. artikuluan ere jasorik dauden irizpide juridiko lotesle horietakoren bat.

Aztertutako arau multzoetan, Europakoan eta Estatuakoan, diseinatu eta txertatu den sistemak Europa mailako nolabaiteko harmonizazioa falta du, esportazio-baimenak ematearen edo ukatzearen gaineko kontrolerako organoei dagokienez, eta hutsune horrek bide ematen du interpretazio dibergenteak edo/eta lasaigoak egiteko kasuan kasuko ordenamendu juridikoaren arabera.

Dudarik gabe, EBko ordenamendu juridikoaren hutsune horrek aukera ematen du konfidentzial edo isilpekotzat kalifikatu ahal izateko JIMDDUren akta batzuk, zeinetan jasotzen baitira herrialde jakin batera esportatzeko lizentzia edo baimena eman edo ukatzerakoan administrazio-organoren horrek baloratu beharreko datu zehatzak. Logikoki, horrek eragozten du jakitea ea giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren irizpideak benetan hartu diren aintzat baimen bat ematerakoan. Barneko ordenamendu juridikorako taxututako sistemak ahalbidetzen du hura iritzi librean oinarritu dadin, erantzunik eta kontrolrik gabe, JIMDDUren aldetik. Azken batean, egindako baimen-eskaeren balorazioaren gardentasunaren lausotze horrek asko zailtzen du JIMDDUren baitan armen, defentsarako materialen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo/eta produktuen esportazioari buruz hartu diren erabakien kontrol juridikozionala.

VI. Aduana-prozedura, Muga-zergen TARIC Kodea eta muga-zergen nomenklatura aztertutako eremuan

Batasuneko Muga-zergen Kodea azterturik, baieztatu dezakegu Europako arauak biltzen dituen eduki juridiko-administratiboek zerikusia dutela bai aduana-prozeduraren araubidearekin eta administrazio-egintzarekin, baita agintari eskudunek aduana-arau aplikagarriak aplikatuz egikaritu ditzaketen ahalekin ere.

Beste alde batetik, Muga-zergen Kodea ikusita, ondorioztatu behar da armak ekoizten dituzten enpresen esportazioari buruzko datuak ez direla aduanetako erregistroetan jasorik geratzen Administrazioak onartu egiten

duelako beti hutsik ager daitezen aduana-tarifetako zenbait partida, hala nola gerrako armak edo/eta lurreko ibilgailu militarrek.

Horrelako salgai edo/eta produktuekin behin eta berriz horrela jokatzeko, funtsean, ezkutuko salmentak egitea da edo kalifikazio hori dagokio. Alegia, armen industriarekin zerikusia duten produktuen transferentziak edo salmentak egiten ari dira, Administrazioak baimena emanda haiek estal daitezten edo aduana-tarifetan dagoen kodea alda dadin, segurtasun-arrazoiengatik, produktuok detektatzeko edo/eta haien arrastoari jarraitzeko modurik izan ez dadin.

VII. EAEko erakundearen egitekoa, eta sektoreko EAEko enpresa-operadoreei kontrol-mekanismoak ezartzea, gardentasuna eta erantzukizuna areagotzeko

7.1. Gizarte-erantzukizuna

Egindako azterketaren arabera, Euskadin duela urte batzuetatik bultzada ematen ari zaio gizarte-erantzukizunari. Gaur egun badago laguntza-lerro bat gizarte-erantzukizun korporatiboaren metodologiak gauzatzeko. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak egin du deialdia. Hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan GEK gaitan egin diren lan guztien artean, Innobasqueko i-taldeak 2013an sortu zuen lan-metodologia nabarmetzen da, enpresetan GEKa ezartzea helburu duena. Oso interesgarria da, armen sektorean aplikatzeari begira.

Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-industriari asko interesatzen zaio gizarte-erantzukizuna sustatzea eta ibilbide-orri bat ezartzea jarduketa zehatzekin; hor tartean izan litezke gizarte-bazterketaren arriskua duten kolektiboak laneratzea, ingurumen-estandarrak errespetatzea, giza eskubide unibertsalak errespetatzen dituela adieraztea, gardentasuna sustatzea, eta, batez ere, bere produktuek trazabilitate egokia dutela bermatzea. Ekimen sozial-kultural-humanitarioren bat ere babes dezakete. Halaber, Nazio Batuen Mundu Itunak sustatzen dituen "aliantzak" bezalako aliantza publiko-pribatuak egiteko aukera dago. Horien bitartez, enpresek Nazio Batuen agentziaren batekin edo gobernu kanpoko beste erakunderen batekin lankidetzan jarduten dute.

Ikuspuntu tekniko eta fiskaletik, gastu kengarritzat jo daiteke beren gizarte-erantzukizuneko ekintza-plannaren barruan enpresek gizarte babesteko proiektu kultural eta berritzaile jakin batzuk sustatzeko egiten dituzten ekarpenen zati bat. Horrek, dudarik gabe, enpresaren beraren ospea hobetzea ekarriko luke.

7.2. Gardentasuna

Gardentasunari dagokionez, Espainiako ordenamendu juridikoan indarrean dago abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Sektore Publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Legearen proiektua izapidetu zen 2015ean, baina gaur egun geldirik dago. Zalantzarik gabe, gaur egun lege- eta arau-esparru hori izateak bide emango luke galdetzeko ea arau-esparru horretan ezarritakoa armen sektorean ere aplikatzeko modurik izango ote den etorkizunean, armen merkataritzari buruzko informazio garrantzitsua aditzera emateko. Gaur egun, noski, aldatu egin beharko liriteke abenduaren 28ko 53/2007 Legea, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrolari buruzkoa, eta abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretua, defentsarako materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien kanpo-merkataritza kontrolatzeko Erregelamendua onartzen duena, bai eta Sekretu Ofizialen Legea ere (apirilaren 5eko 9/1968 Legea).

7.3. Jokabide-kodeak, eta Eusko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriak

Sektoreko enpresen kodeei egindako azterketatik zenbait ondorio atera ditzakegu. Lehenik, azpimarratu behar dugu oso gutxi direla kode etiko edo jokabide-kode irekia edo jendurrekoa duten enpresak, giza eskubideen babesa edo zuzenbide humanitarioa bezalako gaiei dagokienez. Bigarrenik, azpimarratu behar dugu, era berean, aipatutako dokumentuak badituzten enpresek ere ez dutela, gure iritziz, behar adinako erregulazioa egiten, batez ere haien produktu edo zerbitzuen arriskugarritasuna kontuan izanik. Hirugarrenik eta azkenik, ohartarazi behar dugu aztertutako enpresa gehienek, bereziki armamentu-sektorean zehar bidez ari direnek, hau da, azpikontratazioen ondorioz edo hornitzaile gisa ari direnek, beren kodeetan aipatu ere ez dutela egiten armamentu-sektorean duten partaidetza.

Ikusitakoak ikusita, neurri egokia izan liteke jokabideari, etikari edo/eta gardentasunari buruzko esparru-kode autonomiko erkide bat diseinatzea edo/eta sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko armamentu-sektoreko enpresetan integratu eta aplikatu ahal izango dena. Esparru-kode horrek gardentasuna eta erantzukizuna-

ren areagotzea sustatu eta zaindu behar ditu, eta, horrekin batera, errespetatu egin behar ditu Europako eta nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak eta zuzenbide humanitarioa.

Ezaugarri horiek dituen kode bat, jakina, sektoreko EAEko enpresek elikatuko dute hala nahi badute, alegia, beren kabuz erabakitzen badute EAEko erakundeek planteatutako ekimen horrekin bat egitea. Horretaz jakiturik, esparru-kodean jaso behar da giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren behatoki publiko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzak sustatua, edo/eta merkataritza egokirako jokabide- edo/eta etika-batzorde bat sortzea eta bertan ordezkariak izatea administrazio publikoek, sektoreko enpresek, sektore horren bezero eta erabiltzaileek eta gizarte zibilak. Horrelako ekintza batek –zeinak, adierazi dugun bezala, oinarri izango bailuke sektoreko EAEko enpresak askatasunez atxikitzea goian aipatutako jokabideari buruzko esparru-kodera– aukera emango luke behatoki bat edo/eta ebaluazio-batzorde bat (edo biak) sortu edo ezartzeko. Erakunde hori eskualdekoa eta autonomoa izango litzateke, eta eginkizun nagusia izango luke aipatutako esparru-kodea benetan betetzen edo errespetatzen den kontrolatzea.

